MAKILARI

GABIRIAKO ALDIZKARIA

2025EKO APIRILA
36. ZENBAKIA

MUNDUA BUELTAKA OMEN

Plaiara joateko
familiak zita
trenaren zain denbora
luze iritzita
Goierri pasa degu
gutxika gutxika
Tolosa ta Andoain
sudurrak itxita
Oriaren kiratsa
ezin irentsita

Trenak ziztu bizian
be(he)ra eta gora
egun alferrik zoaz
apeaderora
topera bizi zaitez
ez galdu denbora
zoaz hegazkinean
berdin dio nora
kutsadura...bueno bai
baina pasako da!

Zer dio oroiminak
soina orbeltzean:
mundua ezagutu
dut zuri beltzean
urdaia lapikoan
ta babak eltzean
murtxikatu ezinik
hortzak aletzean
jardun gogaikarrien
garaia heltzean!

JOSE INAZIO MURUA JAUREGI

MAKILARI

Gabiriako herri aldizkaria da, urtekaria.

270 ale inprimatu dira.

Diseinua eta maketazioa:
Gattiken

Azaleko argazkia:
Ane Miren Aizpuru Murua

Makilariko edukia gabiriarrek sortzen dute.
Eduki hauek kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, beti ere egiletza aitortu eta baldintza berdinetan egiten baduzu.

Makilarik ez du bere gain hartzen bertan agertzen diren esanen eta iritzien erantzunkizunik.

CC BY SA

GABIRIAko udala

AURKIBIDEA

4 DI-DA

6 GABIRIAKO HIRU IRUDI ZAHAR

8 EMAKUME GABIRIARROK GIZONEZKOEN ERREPRESENTAZIOAREN AURREAN

10 BEGOÑA ATIN KAZETARIA, ONDAS SARIAREKIN OLATU GAINEAN

12 GABIRIA JAIOTERRI

17 KEPA ORMAZABAL GALDOS (GABIRIAKO OTSOA)

20 LAN ZAILETAN TREBATUTA

24 ERREZETA

25 BERRIAK LABUR

48 GABIRIAR BERRIAK

50 JUANJO MORAL CIBRIAN, *VENCER EN TIERRA DE ESPIAS* ELEBERRIAREN IDAZLEA

55 EGIA ALA MITOA?

58 ZUAZOLA ETA MADARIAGA AUZOAK

62 ARITZ IRIARTE LEACHE

67 SASOIAN JARTZEKO MODU ERRAZA

69 BALENTZATEGI ESKOLA

74 MAKILAKIXKI

DI-DA

Jabier Garcia

Ni Jabier Garcia naiz, 69 urte ditut eta Haize-Leku etxean bizi naiz, Gabirian. Orain jubilatuta nago eta nire denbora librean iraupen eskia dut gustuko, eta ikusteko, berriz, pilota eta txirrindularitza. Honez gain, bidaiatzea ere gustuko dut.

Liburuak ala pelikulak?
Ez bata ez bestea, azken aldian ez dut asko irakurtzen, baina garai batean liburu gehiago irakurtzen nituen.

Edari gogokoena?
Sagardoa

Jateko toki bat?
Asko etortzen zaizkit burura, baina azken boladan, astean behin, gutxienez, Gabiriako Ostatura joatea gustatzen zait.

Inoiz jan duzun jakirik arraroena?
Jaki bat esateko, Vitoria ur-jauzietan kokodriloa probatu nuen. Eta edaria, berriz, Vietnamen probatu nuen Sugearen Ardoa, Hashubu bezala ere ezaguna. Botilaren barruan suge bat du edari alkoholdunak, gainera arrain zaporea du.

Gorliz edo Gabiria?
Bietan, Gabirian udan eta neguan Gorlizen

Afizioren bat?
Garai batean iraupen eskia eta txirrindularitza eta orain pilota partiduak eta txirrindularitza, baina ikusteko soilik.

Uda ala negua?
Uda

Munduko zein tokitara joango zinateke berriro? Eta nora ez?
Vietnamera joango nintzateke berriro, Yemenera berriz ez nintzateke itzuliko.

Botere bat edukiko bazenu zein botere aukeratuko zenuke?
Ikusezina izatea, esaterako.

Umetan zer izan nahi zenuen?
Ez naiz gogoratzen, 14 urterekin lanean hasi nintzen, beraz, nire haurtzaroa nahiko laburra izan zen.

Gabiriako tradizio bat azpimarratzekotan zein aipatuko zenuke?
Nire gustukoena, Santa Ageda bezperako irteera da.

Txikitan kalean zertan jolasten zinen?
Kaniketan eta txapetan batez ere.

Gabiriako alkate bazina, zer egingo zenuke?
Ez nituzke gauza asko aldatuko. Orain arteko komisioekin jarraituko nuke lanean, ondo funtzionatzen duelako.

Judith Arrondo

Judith Arrondo Aizpuru naiz Larrea-eneako 3 alabetatik erdikoa. Aurten 26 urte beteko ditut, geografoa naiz eta oraintxe bertan ingurumen aholkularitza teknikoan lan egiten dut. Azken urteetan, ikasketak medio, Gasteiz eta Bartzelonan bizi izan naiz eta duela urtebetetik lanagatik Donostian bizi naiz. Hala ere, asteburuetan gogoko dut Gabiriara itzuli eta ingurukoei bisita egitea.

Pelikula gustukoena?
Contratiempo

Juergarako toki bat?
Azpeiti

Kanpotar batek probatu beharko lukeen euskal platera? Eta edaria?
Patata tortila eta sagardoa.

Nolakoak izango lirateke zure opor idealak?
Eguzkia eta hondartza duen edozein txoko.

Afizioren bat?
Yoga egitea.

Gabirian bizi ez bazina, non?
Herri ertain edo hiri batean.

Ametsik?
Ingurukoen konpainian zoriontsu bizitzea.

Txikitan kalean zertan jolasten zinen?
Bote-boteron.

Maniarik?
Hurrengo egunerako eguraldi iragarkia jakitea.

Zer falta du Gabiriak Donostiak duena? Eta alderantziz?
Gabiriak egunerokotasuna egiteko Donostiak baino aukera gutxiago ditu. Aldiz, Donostiak Gabiriako natura eta lasaitasuna falta ditu.

Animalia bat izango bazina, zein animalia izatea gustatuko litzaizuke?
Txakurra.

Gehien gozatu duzun kontzertua? Eta aspergarriena?
Gehien gozatutakoa Lukiek taldearen kontzertua Elizondoko taberna batean izan da eta aspergarriena… izena esatea ez da egokiena agian… jeje

Gabiriako alkate bazina, zer egingo zenuke?
Garraio publikoaren maiztasuna areagotu eta herri gehiagorekin konexioa lortu.

LEXURI ETXEZARRETA LARRAÑAGA
IZAR GASTAÑAZATORRE ALDAZABAL

GABIRIAKO HIRU IRUDI ZAHAR

Gutxi dira Gabiriako irudi zaharrak. Argazkigintza zabaldu zenean XIX. mendean zaletasun garestia zen eta, normalean, pertsonak, biziak ala hilak, izan ohi zuen helburu. Familia-argazkiak, ezkontzakoak edo herritik kanpo zegoen senitartekoren bati bidalitako argazkiak ditugu kasurik onenean eta ia beti XX. mendekoak.

Errazagoa eta merkeagoa zen marrazkiak egitea, baina horren adibideak are urriagoak dira gurean. Errepidea egiteko planoren bat eta etxe berriak eraikitzeko kalko urdinetan egindako egitasmoak dira udal agiritegian ditugun lekuko bakanak. Bada, dena den, salbuespenik egoera horretan eta horien berri eman nahi dugu lerro gutxitan.

1857an heldu zen Donostiara Didier Petit de Meurville, Frantziaren kontsula izateko asmotan Gipuzkoako hiriburuan. Santo Domingo uhartean (oraingo Haitin) jaiotako gizaseme honek aurretik Alacanteko portuan postu bera bete zuen eta bertan margolari trebe modura nabarmendu zen. Donostian 16 urte egin zituen. 1873. urtean Miarritzen hil arte, 80 urterekin.

Donostia Frantziako mugatik gertu zegoenez, asko ziren kontsulatuaren zereginak, baina Petit de Meurvillek aurkitu zuen denbora tarte ugari Gipuzkoa ez ezik, euskal kostaldea eta Lapurdi ere bisitatzeko eta bere arkatz eta olio-pinturekin paperean jasotzeko. Ehundaka dira haren lanak. Kasu batzuetan arkatzez egindako zuri-beltzeko marrazkiak dira, beste batzuetan koloretako irudi ederrak sortu zituen, orduan oraindik garatu gabe zegoen teknika inpresionista erabilita. Gehienak, ia guztiak, tamaina txikikoak dira, orrialde erdikoak. Gipuzkoako Foru Aldundiak horietako asko erosi zituen eta Museotik web-orrian (www.museotik.euskadi.eus) kontsulta daitezke.

Gabiriara ere heldu zen gure Didier, zehaztugabeko une batean, baina, ziur aski, 1870. urtea baino lehen, oraingo errepidea garai hartan eraiki zelako eta ez dugulako haren arrastorik marrazkietan. Hiru dira guregana heldu diren lanak. Horietakoren bat agertu da Makilarin, baina ez behar den tamainarekin eta kalitatearekin

Lehen marrazkia, eta nire ustez interesgarriena, kaskoaren ikuspegia dugu. Oinatibi-Handiren paretik egindako lana da. Beheko aldean Baztarrika ikusten da, oraindik ez baitzegoen Iru-biderik; egun erorita dagoen Artzain dugu ezker aldean eta Arroaga bere gainean. Kaskoan ez dago eskola-etxerik (1914koa da), baina bai oraingo etxe gehienak, nahiz eta haien tamaina denborarekin apur bat aldatu den. Nabarmena egin zait Kalebarren amaierako etxearen garaiera. Marrazkilari zorrotza zen kontsul frantsesa eta ez dut uste okertuko zenik. Guk "beti" ezagutu dugun Torrea, agian, kalearen amaieran egongo zen XIX. mendean edota, auskalo, bi torre genituen, badakizue, "Gabiri beti agiri". Irudiaren eskuinaldean Gurutzeta, Alkain Txiki eta "Geñu", Garino ditugu.

Bigarren irudiak ez du azalpen handirik behar, Andramari elizaren aurrez aurrekoa dugu, baita ate-nagusiaren morroiloa ere. Ezer gutxi aldatu da 150 urtez toki horretan, desagertu den eskuinaldeko gurutzea eta XX. mendean egindako saloia alde batera uzten baditugu.

Hirugarren irudia ezezagunagoa egingo zaio askori. Igeribarrazpikoko zubia dugu aurrealdean, atzeko aldean bainuetxea eta haren gainean Bidaurreta baserria dago, nahiz eta antz gutxi eduki oraingo eraikin berrituarekin. Bainuetxea 1867. urtean ireki zen, 1884an eraberritu eta 1904an itxi. Ondoren, 1910 eta 1967 bitartean Pasiotarren ikastetxea izan zen eta, azkenean, itxi zen arte, Edersil aurrena eta Edersal, ondoren, gresite-fabrika.

MIKEL AIZPURU MURUA

1

2

3

EMAKUME GABIRIARROK GIZONEZKOEN ERREPRESENTAZIOAREN AURREAN

Badira aste batzuk, Agirineko bilera batean aurrez ezarrita genuen gai-zerrenda eta lantzeko guztiak alde batera utzi, eta sortu zitzaigun barne gatazka bati heldu geniola. Asko genuen gai honen inguruan hitz egin eta elkarbanatzeko, eta arratsaldea motz gelditu zitzaigun; beste egun bat hitzartu behar izan genuen.

Emakume izanda herriko plazara ateratzea edota jendaurrean agertzea eskatzen duten hainbat ekintzatan gure presentziak duen garrantziaz aritu ginen; batez ere, garrantzia horretaz jabetuta ere, ekintza horietan parte hartzeak sortzen dizkigun barne ezinegonez.

Izan ere, emakumeon presentzia ziurtatze hutsagatik behartu izan ditugu geure buruak ekintza horietan (bola-txapelketa, herri-kirolak, festetako antzerkia...) parte hartzera. Hala, honakoa izan zen hasunarketa: zein puntutaraino behartu behar dugu gure burua ekintza horietan parte hartzera, horrela nahi edo naturalki egiten ez dugunean, emakumeon ordezkaritza bermatzearren?

Mamiari tiraka, Gabirian zein ekintza egiten diren, ekintza horien nolakotasuna zein den, herriko zenbat emakumek parte hartzen dugun... pentsatzen aritu ginen. Aipatu ditugun barne ezinegonak zeintzuk diren eta sentimendu horien arrazoia zein izan litekeen aztertu genuen.

Beharrezkoa zaigu azaltzea aipatu ditugun oztopo pertsonalak espazio publikoan egiten diren ekintzetan sentitzen ditugula. Horregatik, garrantzitsua da kontuan hartzea historikoki urteetan zehar egon den espazio publiko eta pribatuaren arteko bereizketa: lehena, batez ere, gizonen eremua izan da, eta bigarrena, berriz, emakumeona.

Gaur egun, nahiz eta emakumeon ahalduntzea indarra hartzen ari den, urteetako bereizketa horrek oraindik ere ondorioak ditu. Uste dugu hori dela emakumeok espazio publikoa guztiz geure ez sentitzea eragiten duen arrazoietako bat, eta horrek gune hori baliatzeko aukeretan eta moduan berdintasun falta izatea dakarrela. Horrek guztiak segurtasun eta konfiantza falta sentitzea ekar dezake, eta, batez ere, jendaurreko jarduerak guretzat erosoak ez izatea.

Jendaurrean agertzean sentitzen dugun segurtasun faltarekin lotuta, ezin da aipatu gabe utzi iruzurtiaren sindromea, oso geurea den sentimendua. Oso geurea dela esaten dugu datuek erakusten dutelako sindrome honek kolektibo zapalduei eragiten diela bereziki, besteak beste, emakumeoi. Sindrome edo fenomeno hau bizi duten pertsonek gutxietsi egiten dute beren ahalegina, eta ez dituzte lorpenak beren gaitasunekin lotzen, zortearekin edo kasualitatearekin baizik. Egoera jakin batzuetan, segurtasun eza, beldurra edo gutxiespena agertzen dira, geure burua etengabe zalantzan jartzen dugu, eta parean ditugunak engainatzen ari garela iruditzen zaigu.

Kontuan izan beharko genukeen beste arrazoi bat gizonezkoek eta emakumezkook jasotzen dugun heziketa da. Gauzak aldatzen arituagatik, egungo heziketan ere sexu bakoitzari gustu, balore, ohitura eta jarduerak lotzen zaizkio barneratuta ditugun estereotipoen eraginez. Horrek eragin handia du izaera eraikitzeko prozesuan, eta aipatzen ari garena ere bada horren ondorio.

Herrian jendaurrean egiten diren ekintzei erreparatuz gero, horietako asko, **tradizioz eta urteetan zehar egin direlako**, gizonezkoei lotzen zaizkien gustu, balore eta ohiturei lotuago dauden ekintzak dira, ezaugarri horiek oinarri dituztenak, alegia. Ikusi besterik ez dago herrian egiten diren txapelketa eta lasterketak (Leharrei mendi lasterketa, mus txapelketa, bola txapelketa edo bizikleta igoera, besteak beste) tradizioz gizonek egin izan dituzten ekintzak direla, eta oraindik ere, gaur gaurkoz, horietako askotan emakumeon parte hartzea oso murritza dela. Zer esanik ez herri-kirolak eta apustuak egitearen kultura. Jarri ditugun adibide gehienek oinarrian dituzten ezaugarriak lehiakortasuna eta indar fisikoa ere badira, eta gu ez gara horiekin erabat identifikatzen. Ezin dugu alde batera utzi gizonezkoek gure aldean jenduaurrean, plazan, espazio publikoan, umorea egiteko sentitzen duten segurtasuna ere, festetako antzerkia egiteko garaian kasu.

Deseroso edo arrotz sentitzeko arrazoiak asko izan daitezkeela ikusi ahal izan dugu. Dena den, gauzak asko aldatu direla ere jabetzen gara, eta argi duguna da azken urteetako emakumeen behartutako ordezkaritza horri esker gaudela egon beharko genukeen eta gauden leku askotan (erabakiak hartzen diren guneetan, adibidez), eta gauza asko egiten hasi garela (kirol munduan, esaterako). Emakume horiei esker ditugu erreferenteak, eta gu ere leku horietan egon gaitezkeela sinesten laguntzen digu. Baina, hortik haratago, eta aipatutakoari garrantzirik kendu gabe, izan daiteke jendaurrean erakutsi dena gure ausentziatik eraiki izana, hau da, gure ekintzak, gustuak eta baloreak kontuan hartu gabe, horiek espazio pribatuan gordeak izan baitira.

Horregatik guztiagatik, gure lekua bilatzeko orduan, non eta nola egon nahi dugun hausnartzeko beharretik abiatuta, espazioa eta plaza geureagotzea izango dugu helburu.

Sentitzen ditugun beharrak, gure baloreak zein zaletasunak izango dira oinarri eta abiapuntu; izan ere, horiek jendaurrean lekua hartzea beharrezko ikusten dugu, ekintza horiek benetan geure sentitzeko, eta, hala, orain arte batez ere gizonezkoenak izan diren espazioetan emakume-gizon kopurua berdindu asmo hutsez geure buruak horietan parte hartzera behartua sentitzeari uzteko.

Azaldutako guztiagatik eta aurrez esan bezala, Agirinek herrian, jendaurrean eta herriarentzat gustura antolatuko lituzkeen jarduerak pentsatu eta gauzatu nahi ditu.

Beraz, adi egon, laster izango duzue eta gure berri!

Eta ozen diogu:
Gabirin, emakumeak eta gurea dena Agirin!!

AGIRIN

BEGOÑA ATIN KAZETARIA, ONDAS SARIAREKIN OLATU GAINEAN

Egun seinalatua eta pozgarria izan zen Altzibarko Begoña Atin Arratibelentzat azaroaren 14a. Estatu mailako sona eta ospea daukan Ondas sari bat jaso zuen, bazkide den New Digital Media Euskadik ekoitzitako M11: Martxoko lau egun dokumentalarengatik. Aktualitateko edo estaldura bereziko programa onenaren sailean saritu zuten, lan-bizitzaren aitortza ere baden saria, Gran Teatre del Liceu antzokian lau lankidek jasoa.

2004ko martxoko Madrilgo atentatu jihadistak, eta haien ondorio politikoak jorratu zituzten lau ataleko dokumentalean, elkarrizketak eginez eta lehen lerroko politikari, epaile, kazetari eta eragileen testigantzak bilduta. ETBren Primeran plataforman 2024ko martxoaren 8an estreinatu zuten, gertakarien 20. urteurrenean. “Izugarrizko ezustekoa” eta “errekonozimendua” izan zen Atinentzat Ondas saria jasotzea. (Sariari eta dokumentalari buruz gehiago jakiteko, ikus Goiberri 2025-1-17ko elkarrizketa)

Lan profesionala nagusiki beti telebistari eta ikus-entzunezko sektoreari lotuta egin du. Euskal Telebistako informazio zerbitzuetako zuzendariordea izan zen 2011ko otsailetik 2013ko martxora. Galdakaoko K2000 ekoiztetxearen ekoizle exekutiboa izan zen 2005eko urtarriletik 2011ko urtarrilera, dokumentalen eta erreportajeen departamentuan. EITBn, ETB2ko Lo que faltaba programaren zuzendari izan zen 1997ko abendutik 1999ko abendura; ondoren, Euskal Telebistaren gizarte gaietako programen arloburu, 2000ko urtarriletik 2004ko abendura.

Atin New Digital Media Euskadi ekoiztetxearen bazkide-sortzaileetakoa eta ekoizle exekutiboa da; 2013an sortu zuten. “2008ko krisiaren ondorioz sortutakoa dela esaten dugu. Sortzaileek ordurako ibilbide bat bagenuen, eta modu batera edo bestera, denok langabezian geratu ginen. Aukera izan genuen ekoiztetxe bat sortzeko. Momentu hartan, Bizkaiko Foru Aldundiak ikus-entzunezko enpresa sortzaileak sortzeko zeukan diru laguntza bat aprobetxatu genuen. 2013ko udazkenean jarri genuen martxan, eta 2014ko udaberri-udarako bi proiektu genituen salduta. Di-da. Gure esperientziaz baliatuta, segituan ikusi genuen zer behar zuen telebistak, zer ez zeukan, eta horretara joan ginen”.

Lan-garai zailak izan zituen aurretik. “Aurreko bi urteetan albistegietako zuzendariorde izan nintzen ETBn. Zuzendaritzan aldaketa izan zen, eta ez zuten nirekin kontatzen. Ni K2000 ekoiztetxekoa nintzen, lanpostua han neukan, eta hara itzultzekotan nintzenean, bigarren edo hirugarren EREan sartuta zegoen K2000, eta handik irten ginen”.

New Digital Mediarekin hainbat aitortza gehiago lortu dituzte, bestelako programekin, nahiz dokumentalen esparruan lehenbizikoa izan den. “Gu enpresa bat sortzera eta enpresa horrek arrakasta edo lana izatera, lanean jakiteak eraman gaitu”. Ekoiztetxea “hemengoa” dela nabarmendu du, Euskal Herrikoa, eta “bertan eta bertakoentzat” lan egin nahi dutte.

ETB dute bezero nagusia. Bi programa ekoizten dituzte ETB1erako, platoan: Biba zuek! eta Gora bihotzak. Abenduan estreinatu zen Habitación para dos programaren bigarren denboraldia, eta memoria historikoari buruzko hiru dokumentalak dira azken ekoizpenak. Urtezahar gaueko Biba 2025 ere ekoitzi zuten. Lehenago, 2014an, Gu ta gutarrak eta Por fin viernes programak egin zituzten. “Gu ta Gutarrak-etik Gure kasa-ra pasatu ginen, eta gero, ia ekipo berarekin, Biba zuek egitera pasatu ginen. Gure filosofia da gure konfiantzazko taldearekin batetik bestera pasatzea, eta jendeari ere gurekin ibilbide bat ematea”. Apellidos vascos, Juego de cartas edo Tuper Club ere beraienak dira.

Hori bai, sormenean lorik hartu gabe. “Beti proiektu eta formatu berriak aurkezten ari gara, ea zer edo zer kokatzeko zortea daukagun”.

Kazetaritza karrera, Informazio Zientzien lizentziatura, Nafarroako Unibertsitatean atera zuen, 1988an. “Garbi neukan hori ikasi nahi nuela. Ez zen etxean oso gustuko erabakia izan, momentu hartan. ‘Gure familian kazetari bat? Egin ezazu probetxuzko beste zer edo zer’, esaten zidaten. Ez nintzen ikasle on-on-ona izan, baina ona nintzen. Tematu nintzen, eta Iruñera joan nintzen, ahizpa zaharrena han ari zelako Erizaintza ikasten. ‘Kazetaritza nahi duzu? Bale, orduan ahizparen ondora joango zara’. Oso ondo.

Harrezkero, Iruñea izugarri gustatzen zaio. “Lagun asko egin nituen”. Kazetaritzako lehenengo lanak ere hantxe, eta prentsa idatzian, suertatu zitzaizkion; karrerako espezialitatea ere hura hartu zuen eta. “Nik prentsa idatzia nahi nuen, eta gainera ekonomian. Ekonomia gustatzen zitzaidan. Orduan bost urteko karrera zen, eta laugarren urtean praktikak zeuden. Euskaldun bat behar zutela, eta Deia-k Iruñean zuen korrespontsalian lortu nituen praktikak. Oso gustura ibili nintzen, lantalde txikia ginen. Uda osoa herriz herri festak kontatzen pasatu nuen. Lanean hasteko oso modu ona da. Beti esaten dut: eskarmentua hartzeko eta asko ikasteko, hedabide txikiak oso onak dira. Handiek baino gehiago erakusten dizute. Denetik egin behar duzu, ez daukazu beste erremediorik, eta hori oso-oso ona da”.

Bi-hiru urte igaro zituen periodikoan, eta telebistara pasatu zen. Ekonomian ez zen sekula aritu, baina festekin jarraitu zuen telebistara aldatuta ere, ETBren Jaiak udako festetarako programara. “Ni festetan ibilitakoa nintzen, eta ea zergatik ez nintzen aurkezten esan zidaten. Telebistaz ezer ez nekien, baina editatzen ikasiko nuela esan zidaten. Oso modu naturalean izan zen”. Jaien ondoren Zinemaldian segitu zuen, eta Deia-ra itzuli zen gero. Hurrengo urtean, atzera Jaiak saiorako deitu zioten, eta orain arte, pantailan.

“Niri beti gehiago gustatu izan zait telebista-informazioa, telebista-entretenimendua baino. Baina denetik egin dut, denetik tokatu zaidalako”, aitortu du. “Niri asko gustatzen zait informazioa. Asko, asko. Nahiz eta entretenimenduko programetan aritu, konta dezagun zerbait horietan ere. Ez dadila jiji-jaja bakarrik izan. Noski, Urtezaharreko programan ezin duzu, baina Biba zuek batean modu entretenituan gauzak kontatzen dira. Nik uste, jendeak ere baduela interesa gauzak jakiteko”.

Kazetariaren lan egiteko moduak zer izan behar duen garbi dauka. “Behin, gidoigintzako ikastaro batean, Jose Luis Guerin-ek esan zigun: “Elegir es renunciar” (Aukera egitea uko egitea da). Hau da, aukeratu ezazu zer kontatu nahi duzun, eta hori konta ezazu ondo. Dena ezin duzu kontatu. Zer izan nahi duzu? Izan hori. Eta sakondu nahi baduzu, segi”.

AIMAR MAIZ MOREA

GABIRIA JAIOTERRI

Gabirian jaio eta kanpoan bizi direnen saila edo txokoa izatea nahi dugu hau. Euren berri izan nahi dugu: batzuk astebururo ikusten ditugu, beste asko urtean behin, herriko festetan, adibidez. Denak MAKILARI aldizkari honen zain-zain egoten dira, herriko berrien irrikan, hau baita herritarron berri izateko modu bat. Eta guk ere horixe nahi dugu: non bizi diren eta zertan dabiltzan jakin nahi dugu, kanpotik nola ikusten duten Gabiria ere galdetuko diegu, eta euren oroitzapenen kutxatxoa, umetako pasadizoak-eta, astinduko dugu.

Izen-abizenak:
Arantxa Igarzabal Gaztañaga
Jaioteguna:
1953/09/17
Jaiolekua:
Gabiriako Merkategi baserria

1. Non bizi zara?
Azpeitian bizi naiz

2. Herritik kanpo zenbat urte daramazu?
53 urte Azpeitian bizitzen.

3. Zertan aritu zara herritik alde egin zenuenetik?
Hemen lana aurkitu nuen. 33 urte LURGINTZA Nekazal Kooperatiban egin nituen eta beste bederatzi urte ABELUR Kooperatiban, biak Lehen Sektoreari eskaintzen dioten zerbitzu-kooperatibak dira.

4. Nola ikusten zenuen orduan Gabiria?
Herri txiki bat bezala, besterik ez nuen ezagutzen eta.

5. Ba al duzu gaur egun Gabiria eta gabiriarren berri?
Bai, noski. Nire ahizpa bat Gabirian bizi da, egunero elkarrekin hitz egiten dugu eta Gabiriako berri, nahiz albiste onak edo txarrak, zuzenean jakiten ditut.

6. Sarritan etortzen al zara jaioterrira? Zein datatan?
Bai, sarritan joaten naiz nire jaiotetxera, nire familiakoekin egotera.
Asteburuetan eta Andra Mari jaietan beti.

7. Bizilekuz aldatu zinenean, zer egin zitzaizun deigarriena herri hartan?
Ba konturatu nintzen Azpeiti oso herri euskalduna zela, izan ere, garai hartan ni mugitzen nintzen herrietan (Ormaiztegi, Beasain, Zumarraga) kalean ia euskararik ez zen entzuten, eta Azpeitian sartu dendetan eta kalean euskara erabat entzuten zen, eta bestalde jendea askoz irekiagoa topatu nuen.

8. Bizi zaren lekura zer eramango zenuke Gabiriatik?
Ba ez dakit. Azpeitian denetik daukagu, mendiak, bide-gorriak. Ahal izango banu (ja, ja,ja) neure jaiotetxea.

9. Eta zer ekarriko zenuke hona?
Ba nik ikusten dut Gabiriak ez daukala orain dela 53 urterekin zer ikusirik, aurrera pauso haundiak eman dira. Etxe berri asko egin dira, frontoi ederra du, haurtzaindegi bat ere ba omen du, eskola ederra, autobusak ere hor ikusten ditut gora eta behera, zerbitzu aldetik nahiko ondo ikusten dut, agian, bertako bizilagunek denda bat edo beharko lukete, baina bertan bizi ez denak ezin ditu behar horiek baloratu.

10. Hizkuntza aldetik aldaketarik izan al zenuen?
Ez, ez.

11. MAKILARI irakurtzen duzu?
Bai, baserrira joaten naizenean irakurtzen dut.

OROITZAPENAK:

Nik hiru urte bakarrik egin nituen Gabiriako eskolan, eta garai hartako oroitzapen asko ez ditut. Bai gogoratzen naiz eskolan maistra erdalduna genuela eta nik erderaz “sí” eta “no” besterik ez nekien. Ba nire ahizpak komunera joateko baimena nola eskatu behar nuen erakusten jardun zirela “Con su permiso puedo ir al water”? Eta gero zera gogoa etorritakoan silatik jaiki eta hantxe zutik egoten nintzela ezer esan gabe maistrak ikusi eta hark “hala, vete, vete” esan arte.

Ni txikia nintzela bi Jaunartze egiten ziren. Bat 7 urterekin (lehen Jaunartzea) eta gero 10-11 urterekin Jaunartze handia esaten zitzaiona. Ni adin horrekin Donostian nenbilen eskolan eta ez nuen Jaunartze handia egin, ze han ez zegoen ohitura hori. Ba, horregatik, ni, garai hartako herriko apaizak ez ninduen Maria-Alaben kongregazioan sartu, eta inoiz ez nuen lortu Ama Birjinaren medaila zeraman “zinta”, eta Inmakulada egunean mezetara lotsatuta joaten nintzen.

Gero, gogoratzen naiz nola gaztetan herriko festetatik edo Aztiriatik, Liernitik erromeria bukatu ondoren, etxera bidean, oinez, noski, kantuan kuadrillan etortzen ginen, eta oso ondo pasatzen genuen, garai hartan, ilunduta egoten zen, baina ez zegoen orain adinako beldurrik, ez eta arriskurik ere. Haiek bai garai lasaiak eta ederrak!

Usain bat: Belar berde moztu berriak oso usain freskoa eta ederra du.
Data bat: Nire seme-alabak jaiotako egunak.
Leku bat: Bizitzeko Azpeitia
Pertsonaia bat: Juan Mari Atutxa
Jolas bat: Mahai jokoak, kartak.
Hitz bat (edo esaera bat): Nolako enborra halako ezpala.
Pasadizo bat: Gaztea nintzela, eta Zumarragara eskolara nindoala, Ormaiztegin trena hartu behar nuen, berandu iritsi nintzen geltokira eta billetea erosteko denborarik ez. Sartu nintzen trenera eta azkar batean han etorri zitzaidan holako gizon ihar bigotedun bat eta 50 pezetako isuna ordaindu behar izan nion, alperrik izan zen horrenbeste dirurik ez nuela esateak, garai hartan askoz gehiago ere ez nuen izango baina…

Izen-abizenak:
Izaskun Alustiza Imaz
Jaioteguna:
1961-08-01
Jaiolekua:
Gabiriako Aztiria auzoko Etxetxo baserria.

1. Non bizi zara: Orain Legazpin bizi naiz.

2. Herritik kanpo zenbat urte daramazu? Esan dezagun, ba… 45 bat urte. Ezkondu ginela 40 urte eta aurretik ere ikasten nenbilela eta, urte gehiena Legazpin. Garai hartan elur asko egiten zuenez, nire ahizpa zaharrenaren etxean gelditzen nintzen lotan, Legazpin. Baina bueno, bizi Aztirian. Esan dezagun; bihotza Aztirian, oinak Legazpin.

3. Zertan aritu zara herritik alde egin zenuenetik? Ba, ikasten, gero konjelatuen lantegi batean urte askoan, nire senarrarekin, eta gerora, kamarera.

Ni konjelatu enpresa horretan, Legazpin hasi nintzen. Lehenengo Legazpin zen eta ni txurroak egiten hasi nintzen. Nik egindako txurroak saltzen ziren; egin, enbasatu eta saldu. Gero, enpresa Zumarragara pasa zen eta han 18 bat urte egin nituen. Asteburuetan kamarera lanetara joaten nintzen. Haurdun nengoela ere konjelatuetan lan egiten nuen eta gogoratzen naiz nola ginekologoak esaten zidan… bueno, nik esaten nion: Jo, eske kamaretan ibiltzen naiz eta hotz handia pasatzen det. Berak galdetu zidan: Zuk hotza sentitzen dezu? Ez, esan nion. Eta berak esan zidan: Ba, orduan, umeak ere ez. Fuerte jaioko da. Hala jaio dira, egia esan!

Egara mediku zentroan ere egon nintzen, homeopata batekin, Edurne Egiburu, Urretxun. Itxi arte han egon nintzen. Konjelatuetan, Garoan egon ondoren, han egon nintzen. Astean bi egunetan pasatzen zuen kontsulta eta masajista ere egoten zen. Nik hartzen nizkion zitak eta, dietak eta nik egiten nituen. Oso gustura egon nintzen. Gero utzi egin zuen. Edurnek MIR-a egin zuen eta orain Donostian dago klinika batean.

Bera batzuetan ez zen etortzen, Madrilera edo joan behar izaten zuen eta esaten zidan hiru egunetan ez zela etorriko, baina ni joateko. Han aritzen nintzen zitak hartu eta… Oso polita zen, zeren ume askorekin egiten zuen lan eta… Etortzen ziren eta, batzuetan, telefonoz deitu Edurneri eta hark esandakoarekin neuk esaten nien zer egin.

Baditut liburuak hangoak.

4. Nola ikusten zenuen orduan Gabiria? Garai hartako Aztiria nik pentsatzen dut, jende arteko harreman estuagokoa zela. Ni gogoratzen naiz, igandeetan denok elkartzen ginela. Berdin zen 5 urtekoa, 8koa, 11koa… Ez zegoen edaderik.

Legazpin, adibidez, herri handiagoa, ez daukazu harremanik, aldamenekoarekin hitz egiten duzu, baina ez daukazu harremanik. Aztirian desberdina da; baserri giroa, baina zer esango dizut, herri txiki horietan ere, kanpotik ikusita egoten dira inbidiak bata besteekin… Hori Legazpin ikusi, ez duzu ikusten. Zuk zure etxea daukazu, zure bizimodua, aldamenekoak… Azalagoko harremana. Desberdina da.

Ordukoa ikusita? Gehiago biltzen ginela, bai, niretzako bai.

Egia da denbora asko pasatzen nuela Aztiriatik kanpo. Aztiriako nire irteera izaten zen mezetara joan eta mezetatik irteeran, Segurara edo Zerainera bermuta hartzera, denok. Lau kotxe edo, auzoko jendearekin. Hori izaten zen nire irteera. Goazen Zeraina! Ez zuen inporta zein, nahi zuena sartzen zen kotxean eta joaten zen. Hori 16 edo 17 urte genituela.

Beno, lehen esan dut konjelatuetakoa, baina 19 urterekin Donostiara joan nintzen lanera; Errota Berri jatetxean lan egin nuen. Ikasten bukatu nuenean, hara joan nintzen eta han egon nintzen ezkondu arte. Gogoratzen naiz periodikoan irakurri nuela Donostian, Errota Berri jatetxean behar zela 25 urte inguruko emakume bat kamarera lanetarako. Nik 19 urte nituen, baina presentatu egin nintzen eta hartu egin ninduten.

Han egon nintzen ezkondu arte eta despedida egin zidaten Portuetxen. Igande gaua eta astelehena bakarrik neuzkan jai. Gero, ezkondu egin nintzen eta Garoan hasi.

Horregatik esaten nizun, kanpoan gehiago bizi izan naizela Aztirian baino.

5. Ba al duzu gaur egun Gabiria eta gabiriarren berri: Aztiriarekin bai, eta orain, semea Gabirian bizi denez, gehiago.

6. Sarritan etortzen al zara jaioterrira? Zein datatan? Bai, asko etortzen gara, baserria hor daukagu eta. Santamañatan, eta edozer gauza antolatzen dugula, baldin bada zerbait elkartean edo afariren bat tabernan, gu beti han gaude, ez dugu fallatzen.

7. Bizilekuz aldatu zinenean, zer egin zitzaizun deigarriena herri hartan? Dena eskura daukazu, autobusa daukazu beste herri batera joan nahi baduzu… Aztiriatik behar duzu zerbait, ez daukazu ezer. Eske ezin da konparatu. Niri Aztiria ikaragarri gustatzen zait, orain, bizitzeko… Segun zein garaitan zauden. Ume txikiak badauzkat, erosogoa ikusten dut Legazpi. Legazpin bizi eta asteburuetan Aztiriara joan? Ondo!

Baina gero, orain bezala ez; jubilatu naiz… Aztirian bizi? Zergatik ez?, Irteera polita…

Orain arte, ba, oso ondo bizi izan naiz Legazpin. Eroso; ni lanean eta umeak zaintzeko emakume bat neukan, baina Aztiriara zein eraman behar duzu? Brinkola bat, ondoan daukagu, baina trena dauka, eta hori diferentzia handia da. Ordu erdiro daukazu trena. Orain dela 50 urte igual trenak ere ibiliko ziren ibiltzen ziren bezala baina, orain ondo dago. Aztirian, ba, umeak dauzkatenek hor ibili behar dute, gora eta behera. Ez dago autobusik, ez daukazu ezer.

8. Bizi zaren lekura zer eramango zenuke Gabiriatik? Lasaitasuna. Aurrekoan *Herri txiki, infernu handi* ikusten ari nintzela, ba, gauza asko esan zituzten, baina azaltzen ari zena… Esaten nion neure buruari, gero ez dakit nora joango gara eta… Gainzabal azaldu zen, gure baserriaren goiko aldean dago, hori zoragarria da!

9. Eta zer ekarriko zenuke hona? Argiak eramango nituzke, gauez argitasun gehiago egoteko, dendatxo bat, ez supermerkatu bat, baina denetik egon ohi den denda txiki horietako bat.

10. Hizkuntzaren aldetik aldaketarik izan al zenuen? Ni Bergaran ibili nintzen eskolan eta dena erdaraz ikasi dut beti. Compañia de Maria-n, monjetan. Astelehenetik ostiralera uniformearekin. Bergaratik etorri eta elurra bazen, ahizparen etxean gelditu behar. Orduan, elurra kriston arazoa zen, orain dela 50 urte.

Nik gogoratzen dut tapatu egiten ninduela, bidetxo estu-estu bat gelditzen zela Etxeaundira, gurera eta bestera. Behin elurra hasten zuenean; benga, Legazpira!

Hamabi urtera arte Aztiriako eskolan ibili nintzen Klara maistrarekin. Handientxoenek txikiei erakusten genien, eta horrela.

11. MAKILARI irakurtzen duzu? Amari iristen zitzaion bitartean irakurri nuen, orain ez.

Zein atal duzu gogokoen? Sukaldeko txokoa gustatzen zitzaidan eta gero elkarrizketak, beti ikusten duzu baten bat ezaguna eta.

OROITZAPENAK:

Usain bat: Belarra mozten dutenean hartzen den usaina.

Data bat: Kaxianoren omenaldi eguna. Nire senarrarekin hasi nintzen egun hartan. Egun polita. Gainera Kaxianok nire senarraren ama ezagutzen zuen oraindik ikusmena zuen garaitik. Jokinen ama Betelun egon zen kamarera eta Kaxiano Lizartzatik hara joaten omen zen. Jokini esaten zion: Zure ama, ze guapa zan! Bai, Jokinek kriston harremana zeukan Kaxianorekin.

Leku bat: Otaño eta Aizaleku. Aztiriatik irten eta Larrosaindik Otaño eta hortik buelta egin eta gero… Edo Brinkolatik Larrosainera igo eta hango hiru mendixoekin, gero Otañora igo eta jaitsi, eta bazkari bat egin. Hori da niretzako planik ederrena eta seme-alabak eta umetxoak ere bueltan baldin badaude, oraindik zoragarriagoa!

Pertsonaia bat: Euxebio Igartzabal. Lehengo gauzak eta nola kontatzen dituen, beti gustura egoten naiz entzuten.

Jolas bat: Baztarretxekoekin eta aritzen ginen. Belarrak bildu eta ez dakit zer zirela eta… Legorburuko Rosa Marirekin eta. Gero, bizikletan ikasten. Nik ikasi nuen, baina orain kriston beldurra ematen dit. Behin joan ginen Gandiara, orain dela urte batzuk, eta alkilatu genituen bizikletak eta han ibili ginen *carril bici* horietako batean, oso zabala zen bidea, gustura ibili nintzen, baina bueltakoan… Buelta bat eman behar nuen eta hasi nintzen urrutitik: nik eztiat emango buelta hori eta, efektibamente, erori egin nintzen. Ze? Baino earki zentortzen eta! esan zidan Jokinek. Orain, nik bizikletan ezin dut, ni mendira.

Pasadizo bat: Baserriarekin beti eduki dut lotura, baina esan dudan bezala, ez dut jendearekin elkartzeko aukera handirik izan, eta pasadizorik... Orain, esango nuke,elkartea dela eta, gehiago juntatzen direla gazteak. Gure garaikook, berriz, galduta daukagu haria. Festetako afarian ikusten dut; lau bikote joaten gara. Pena da urtean behin ere… Orain ikusten ditut gazteak elkartzen eta festak antolatzen, afaria… Nahiz eta batzuk bertan bizi ez. Gerora zer egingo duten ez dakigu, orain garai politean daude.

ALOÑA MURUA JAUREGI
MARIAN BIDEGAIN ORMAZABAL

KEPA ORMAZABAL GALDOS (Gabiriako otsoa)

2025. urtea etapa berri bat izango da Kepa Ormazabal Galdos (Gabiria, 2006/07/07) txirrindulariarentzat. Ilusio eta gogo handia dauka 23 urtez azpiko mailan, estreinekoz ariko den kategorian, bere onena emateko. Iaz, junior kategorian, 4 lasterketatan besoak altxatzea lortu ostean, eta beste hainbatetan bere izaera erasokor eta lehiakorra erakutsi izanaren ondorio da aurten Euskadi Fundazioaren koloreekin lehiatzeko aukera izatea. Euskal Herriko lasterketarik onenetan eta hainbat lasterketa internazionaletan parte hartuko du, profesional aurreko maila gorenean.

Baina, lehendabizi, zer da zuretzat txirrindularitza gaur egun?

Lehen afizio bat zena, lagunekin elkartu eta ondo pasatzeko momentuak ematen zizkidana, gaur egun, bizitzeko modu bat bilakatu da. Txirrindularitzatik kanpo egiten ditudan gauza guztiak hori ardatz edo kontuan hartuta egiten ditut orain.

Bizitzeko modu horrek zer eman eta zer kentzen dizu, "ohiko" bizimodu batekin alderatuz gero?

Kendu ez nuke esango; txirrindularitzan murgilduta bazaude, gorputzak berak eskatzen dizu gauza batzuk alde batera uztea, horrek dituen ondorio positiboengatik, eta hori egin beharreko zerbait da hobetu nahi bada. Pertsonalki, ez zait asko kostatzen alderdi hori.

Eta eman, berriz, gauza asko; batez ere lagunak eta bizitako esperientziak. Baina adierazteko ere zailak diren emozio eta sentimenduak azpimarratuko nituzke; bereziki, egindako lanaren emaitzak ikusten dituzunean. Eta emaitza horiek laguntzen ez dutenean, berriz, behin eta berriro altxatzen ikasi behar duzu. Ikasgai hori, bizitzako edozein momentutan da erabilgarria. Txirrindularitzak heldutasun handia eman didala uste dut.

Nola baloratuko zenuke junior mailako garaia?

Junior mailako lehen urtean, esango nuke ez nintzela asko errendimenduan zentratu eta gehiago izan zela hobby moduan lagunekin egindako ekintza bat. Baina denboraldi amaierako lasterketetan konturatu nintzen, gehiago landuz gero, zerbait polita egiteko ahalmena banuela, eta iaz, kategoriako bigarren urtea haseratik serioago hartu nuen. Beste askoren laguntzarekin, baina bereziki Ion Ander Insaustik lagunduta; nire izaera errepidean nola azaleratu erakutsi zidan, lasterketetan aurpegia ematen eta nahiz eta onenen mailan ez egon, lasterketan modu batera edo bestera aztarnaren bat uzten. Gainera, urtea aurrera joan ahala, garaipenak ere etorri ziren, eta horrek ikaragarri motibatzen du lanean gogor jarraitzeko.

Aurten, berriz, afizionatu mailan arituko zara, non eta Euskadi Fundazioan. Nola hartu zenuen proposamena?

Uda amaieran iritsi zitzaidan eskaera. Sorpresa haundia izan zen niretzat, eta ezezkoa esan ezin den aukera horietako bat. Horrelako talde batek nigan konfiantza izatea izugarria da. Berez amateur mailarako saltoa handia bada, maila horretako talderik onenetako batean egotea are exijenteagoa izango da. Baina oso talde ona daukagu eta ilusioz beteta gaude bai staffa eta baita txirrindulari guztiok ere.

Zer ezberdintasun ikusi dituzu aurredenboraldi honetan zure iazko taldetik?

Esango nukeen lehendabiziko gauza dagoen seriotasuna da. Talde honen ikuspuntua, hurrengo pausoa den profesional mailara begira dago, eta hori nabaria da. Exijentzia maila ere nabarmen igotzen da, baina hori lortzeko prestakuntzarako baliabideak ere askoz handiagoak dira. Denbora gehiagoz eta intentsoago entrenatu beharra dago, baina ni oso “alemana” naiz horretan eta gogotsu nago nire gorputza zertarako gai den ikusteko.

Nola uztartzen da bizimodu hori unibertsitatean hastearekin?

Gasteizen unibertsitatean egotea batxilergoan egotea baino errazagoa da. Zure modura eta erritmora antolatzeko askatasun handiagoa daukazu, eta ikasten ari naizena benetan gustukoa dudanez, erosoagoa da, nahiz eta askotan zailagoa izan.

Arlo sozialetik, berriz, astean bost egunetan, gutxienez, etxetik urrun egotea da aldaketa handiena. Alde batetik, familiako eta lagunen arteko harremana gutxitu izanak eragiten dit, baina bestalde, lagun berri asko egin ditut, eta bizitzako esperientzia modura oso aberasgarria izango dela uste dut.

Zer espero duzu aurtengo denboraldirako?

Ikasteko urtea izango da, dudarik gabe. Taldeari eta, batez ere, profesionaletara pausoa emateko gertuen dauden txirrindulariei laguntza emateko prest nago, gure liderretako bat den Gari Ugarteri, adibidez. Txirrindulari diesela naizela esango nuke, bai denboraldian zehar, bai lasteketa barruan eta baita igoera batean ere. Beraz, pixkanaka, urtea aurrera doan heinean, hobetzen joatea da helburua.

Zein da Kepa Ormazabalen txirrindulari profila?

Errodadorea, ordekan edo portzentai baxuko aldapetan moldatzen naiz ondoen, daukadan gorpuzkeragatik ere izango da. Eguraldiari dagokionez, berriz, hotza edo euriarekin nire motorrak hobeto funtzionatzen du, edo besteenek gehiago sufritzen dute, ez dakit… jeje.

Zure gorpuzkera aipatu duzu. Zenbaterainoko garrantzia ematen diozu pisuari?

Pisuak garrantzia dauka, baina hori bezain garrantzitsua da indarra edo potentzia sortzeko gaitasuna, eta hor oreka bat bilatu beharra dago. Zorionez, gure prestatzaileak pisuarekin ez daude beste batzuk bezain itsututa, eta beste faktore batzuei (motibazioa, umorea, nerbioen kudeaketa...) ere garrantzia ematen diete. Ikusi besterik ez dago txirrindulari batzuk maiatzera dagoeneko erreta nola iristen diren, oso mugan ibiltzeagatik.

Gabiria bezalako herri txiki batekoa izateak ba al du onurarik txirrindularitzan?

Nire ustez izaera propioa eraikitzen laguntzen du. Ez dugu besteek esaten dutenaren atzetik ardiak bezala joateko hainbesteko joerarik. Niri, behintzat, etxean beti erakutsi didate esandakoari ikuspegi kritikotik begiratzen, gauzak ez direla modu bakarrean izaten. Heldutasun puntu hori nabaria da 18 urterekin erabakiak hartzeko garaian, izan lasterketa batean, ikasketetan edo bizitzako edozein arlotan.

Etxea aipatuta, zer iritzi dute zure bizimoduaren inguruan?

Nire etxean ez da txirrindularitza oso ondo ikusia egon orain dela urte bat edo bira arte, lesio edo istripuen beldur, agian. Hala ere, behin nire benetako desioa hori dela ikusi dutenean, izugarrizko babesa ematen didate uneoro eta gaur egun beraien bizitzaren parte ere bilakatu da, bai ni animatzeko eta baita bizi izan ditugun une txar askoren eskape bezala ere.

Bukatzen joateko, zein da zure ametsa txirrindularitzan?

Garbi dago, benetan oso zaila izan arren, ametsa profesionaletara iristea dela. Baina benetan merezi duten ingurukoak bertara iristen laguntzearekin ere konformatzen naiz.

Amestu gehiago. Goi-mailako ze lasterketatan parte hartzea eta irabaztea gustatuko litzaizuke?

Edozein monumentu edo udaberriko klasika handi irabaztea ametsa litzateke. Hala ere, noizbait Italiako Giroan parte hartzea oso erakargarria iruditzen zait.

Garbi dago ilusio eta motibazio faltarik ez duela, ezta lana gogor egiteko alferkeriarik ere. Txirrindularitza munduan, Gabiriako Otsoa bezala ezaguna dugun Kepa ehizarako prest dago, bere ausardia eta izaera erakusteko; baina, beti ere, taldea zainduz. Ibilbide horretan ez du babes faltarik izango, etxekoez gain, Gabiriako herria, modu batean edo bestean, bide bazterrean egongo baita bere indarra hauspotzen. Zorte on eta, batez ere, gozatu.

JOKIN MATXINANDIARENA ALUSTIZA



LAN ZAILETAN TREBATUTA

Anita eta Maria/ Urkiztegi eta Zantegi/ Ugarketa eta Santa Kruz/ Gabiria eta Urretxu...

Makilarirako elkarrizketa egiteko asmoa azaldu nion Mariari eta erantzun zidan: "*Nik hemengo berri gutxi dakit, gainera ez naiz hemengoa!*" Hirurogeita hamabina urte egin dituzte Mariak Zantegin (urriaren 9an ezkondu zen) eta Anitak Urkiztegin (urriaren 25ean).

Zuen haurtzaroa eta jatorria kontatuko al didazue?

Maria: Santa Kruz baserrian, Urretxun, jaio nintzen (Santa Cruz de Tenerife, jajaja, dio berak umoretsu!) eta ez nuen senarra (Patxi Lasa Zumalakarregi) beste inor ezagutzen Gabirian. Gu Zumarragan ibiltzen ginen eta...

Parrandatik orduan?

Ez, orduan ez zen parrandarik egiten. Iluntzean, bederatzietarako etxera joan behar!

Bost senide ginen, bi anaia eta hiru ahizpa. Ahizpa zaharrena, ni baino urte bat zaharragoa, 20 urterekin hil zen, eta beste hirurak, Inazio, Julian eta Garbiñe ziren.

Guk hiru mutil izan genituen, Benito, Iñaki eta Joxeba.

Anita: Ni Ugarketa baserrian jaioa, hiru senideetan zaharrena neu. Ahizpa bat, Mari Carmen, bi urte gazteagoa, eta Andres anaia, gazteena denetan.

Hiru seme-alaba izan genituen, Joxe Manuel, Iñaki, eta Ana Jesús. Senarra (Nikolas Etxeberria Amiano), hura pozez gainezka alaba jaio zelako. Hark bigarrena ere, alaba nahi zuen!

Eskolara joateko aukerarik izan al zenuten?

M: Aurrena mojetara joan nintzen sei urterekin eta gero Santa Barbarara hamar urte arte. Santa Barbaran Mendiolanekoak ziren maistra. Baina, etxean gelditu behar izan nuen amari laguntzeko, aitak hala esanda. Gerra garaian, bost urte neuzkan nik. Ederki akordatzen naiz Irimotik tiroka nola aritzen ziren.

15-16 urterekin josten ikasten aritu nintzen eta 16rekin Bergarara kozinan ikastera. 18 urterekin Hotel Urolara joan nintzen neskame eta handik Badiolaenera. Tailerra zeukaten eta anaia eta arreba solteroak ziren. Han, etxeko lanak eta baratzakoak eta... Urtebete egin eta handik ezkondu nintzen.

A: Gabirian zazpi urterekin hasten ginen. Hasi bai baina, gero gerratea etorri zen. Ondoren, berriz hasi eta hamalau urtera arte. Sekretarioaren arreba zaharrenak, Maria Garziandiak, ematen zigun eskola, baina fundamentu handirik gabe. Gero, Donostiatik etorri zitzaigun maistra bat. Hamalau urterekin etxean geratu behar nik ere, aita zena nik hamahiru urte neuzkala hil zitzaigun eta ez zegoen beste aukerarik. Lehendabizi, gerratearen ihesi joanda ibili zen.

Maria

Anita

Jolas ere egingo zenuten ala?

M: Bai, tronpoa eta soka saltoan, txinginen, harrapaketan... eskolako errekreoetan eta...gutxi oso, lanean aritzen ginen eta.

¿Tu madre trabaja? Eta guk bagenekien no erantzun behar genuela. ¿Y qué hace? Sus labores.

M: Jajaja, lanik ez? Orduan emakumeek etxean lana egiten zuten, arropak garbitu, aklaratu eta...lixiba jo... Gu beheko errekako zubi azpira joaten ginen. Astoan eramaten genuen arropa eta amonarekin joaten nintzen, baina, eskuak hazi egiten zitzaizkidan eta amona Ixidra aritzen zen arropa jotzen. Alergia edo, ez dakit zer zen.

Jaboia ez genuen hemen egiten, erosita ekarri. Lixiba egiteko bai, hori arropa asko zenean, ohe arropak eta... Garbitzeko, ontzi handi batean jarri eta ...bai, egiten genuen sutako hautsekin.

A: Guk ere ez genuen jaboia etxean egiten. Izaten ziren askamak edo deitzen zitzaienak, halakoak paketean ekarri eta egiten genuen.

M: Zantegin tela jartzen zen azpian eta sutarako hautsa gainean. Hari ur beroa bota, behetik irtetzen zena berriz berotu eta...enee... lan ona hartzen genuen. Zumarragan, Kalebarrenean, oraindik ere badaude sei edo zazpi harri. Obran ari dira, baina lixiba jo lekua zen tokira joaten nintzen ni. Badiolaenean "igual igual" egiten genuen.

A: Gure aita zenak, ezkontzeko zebiltzela, amari galdetu omen zion: "ze nahi dezu, ekonomikea ala uide?" Eta amak erantzun :"uide, uide..." Erreka gertuan zegoen ba Ugarketan, baina... Eta aitak, "oin bik jarriko dittuu". Hobe, esan omen zion Marta amandreak. Hala zuen izena. Ez zitzaion batere gustatzen; ez zion inori ere jarri. Aitajauna zen Joxemari, aita Domingo eta ama Luzia.

M: Akordatzen naiz garia ebakitzen ari ginela, estazioko festak eta musika aditzen zen eta aitari baimen eske, esan genion uzteko hara joaten eta ez, "ez, oin garie ebai behar da!" Ez zigun utzi joaten.

Ni behiak jezten hamar urterekin edo lehenago hasi nintzen. Amak esan zidan zortzi urte edo neuzkala: "aittei afarie preparaion (Orbegozoenera joan behar zuen lanera eta) ni behiek jeistea jun behainat eta". Arrautza frijitzen hasi, zartaginak su hartu, puzka hasi itzali nahian eta olioa erori hankara eta egundoko zauria eduki nuen. Kristorenak eta bi pasa nituen; oso oso gaizki pasa nuen, errea gaiztotuta. Aita altxatu zen mahaitik eta galtzak kendu zizkidan, baina ordurako aberia eginda, zortzi urterekin. Handik aurrera behiak jeztera.

A: Gurean behiak jezten Mari Carmen zen espeziala, nere aldean emakume handia, eskumuturretan indarra nonbait eta egundoko aparrarekin ateratzen zuen esnea, baldetik eroritzeko zorian...

M: Indarra bakarrik ez, manejua ere bai. Joxebari eta Ormaiztegiko iloba Begoñari saiatu nintzen erakusten, baina ez nuen lortu. Baina nola liteke? esaten nien, hori ez da zaila!!! Hala ere, Joxebak oheak egiten eta, laguntzen zidan eta hauek (Iña-

ki eta Benitok) esaten zuten, horixe, horrek neska behar zuen eta!

Nola ezagutu zenuten senarra?

M: Nik Santa Ixabel egun batean. Hotelean nengoen neskame eta jaitsieran ezagutu nuen.

Jaitsieran?

Bai, Antiotik jaisten da oinez eta orduan ere bai. Bederatzietarako joan beharra nuen hotelera lanera eta hantxe kitto! Gero, Zumarragara joaten zen Patxi; ni hamabost egunen behin irteten nintzen lanetik. Interna nengoen sukaldari eta lo eta dena bertan.

A: Nik eskolan ezagutu nuenik ez naiz akordatzen. Hasieran, Santalutzi aldera joaten ziren, baina gero hasi ziren Gabirira.

Azokara edo feriara joaten al zineten?

M: Ni bai, ostegunetan Urretxura, Santiago sagarrak, aranak eta...azak eta baratzakoak hartuta, esne saltzailearekin joaten nintzen, Joxemarirekin, "Diputatue."

A: Ugarketan sagar asko zen. Abuztuan hasten ginen Goiz sagarrekin, martxora arte edo. Eta astoarekin joaten ginen Legazpira, Oñatira, Bergarara , lokatzadi galantak pasata. Oñatira biajea zegoen, baina gazteak ginen. Amandrea han egoten zen mantala jantzita, hark berak aldatutako sagarrak zituen eta. Bergarara Mari Carmen joaten zen. Haruntza sagar ona eraman behar zen. Oñatira kaxkarragoa ere bai. Ni Oñatira joaten nintzen bi feriak egun berean zirelako, eta hark diru gehiago ekartzen zuen. Legazpin berriz, ostiraletan izaten zen eta poliki saltzen zen. Ordiziara ere... Barretxeren autoan joaten nintzen.

M: Astoa hartu eta esnearekin etortzen nintzen umetan eta hura partitu eta gero, etxera joan eta eskolara buelta. Hamar urteko haur batentzako lana! Eta elurte galantarekin ere bai, astoa elurretan ia lurperatuta. Larri ibilita nago! Metroko elurrak.

Txerririk ez dugu aipatu eta lanetako bat izango zen haiek zaintzea, jaten ematea...

M: Gurean bat izaten zen eta txerria eta ardi bat edo, jaten ziren urtean. Txerriari jateko ontzia garbitu, ura eta zahia edo arbia egosi … Txerria hiltzea bakarrik ez zen e? Odola beroa zegoen artean nahastu behar zen, bueltaka erabili, bestela gogortu egiten zen eta ez zuen balio odolkiak egiteko.

A: Neu ibiltzen nintzen lan horretan. Ni etorri aurretik ez dakit nola moldatzen ziren! Derrigorrean ikasi nuen.

M: Zantegin hogei ardi edukitzen genituen. Behin, zuen aita Eugenio etorri zen ardia umea egiten ari zela eta. Arkumeari besoak lotu abarka sokekin eta nik atera nion, hark esanda bezala, esku handiak baitzeuzkan ardiari arkumea kentzeko.

A: Urkiztegira Mutegikoa ekartzen genuen, Mutegikoa ez, Madariaga Goenekoa, Axier etortzen zen lan horietara. Hala ere, izaten zituen erakusleak, badakizu, ez dakienak dakienari erakusten. Horixe baino amorragarriagorik!

M: Txerri erregaloak odolkiak eta izaten ziren. Apaizari behintzat eramaten zitzaion eta auzo gertuenekoei ere bai.

A: Modu askotako odolkiak egiten ziren orduan ere. Gurean, aita eta semea txerria hiltzen ibiltzen ziren eta odolki asko izaten zen; solomo txikirik ez e?

Farmazia askorik ez zen orduan izango, nola moldatzen zineten?

M: Berbena belarrak asko erabiltzen genituen. Asun ura ere oso ona omen da odola mehetzeko. Gure etxean behintzat, asko erabiltzen genuen.

A: Belar urarekin gaitz asko sendatzen genituen. Sasi medikuak eta hezur konpontzaileak oso onak baziren orduan, Trukuman eta Betelu esaterako, fama handikoak ziren. Gure anaia Andresek ukalondoa hautsi zuen motorretik erorita edo...eta Betelukoenera joan eta oso ondo jarri zion. Herriko mediku Bengoa zegoen eta esan omen zion :" bai betirako gaizki uzteko ere". Eta Zubizarreta medikua, familiakoa zen eta ekarririk izango zuen, baina ez zion antzeman zer zeukan.

Laiaketan edo laian sekula ez naiz aritu, zuek bai?

A: Ikusita nago gure aita-amak eta amandrea laian eta ondoren pikatu egiten zuten segituan; laiarekin berarekin, puntarekin eten egin ohi zuten zohia. Dexente sakonduz gainera.

M: Ni segan aritu nintzen. Hostoa kimatzen ere bai, pagoa eta lizarra, eta ardiei eman.

Eta trena zer izan zen zuentzat?

A: Gu Gabirira bezperetara etorritakoan, apeaderoa nola egiten ari ziren ikustera joaten ginen. Gure etxean ez zuten jakiten baina... Nik hamalauren bat urte edo edukiko nituen.

Santiago egun batean, lehenengo aldiz trena geratu zela eta, makinistari bokadiloa eman ziotela esaten zuen gure Nikolasek. Santalutzi aldetik gure moduko umeak etortzen ziren trena ikustera. Orain dela 82 urte edo izango da. Denek ez omen zuten nahi e? Batek aitzaki bat eta besteek bestea; noski, biletea pagatu egin beharko zen eta!

Ez dakit zer balioko zuen. Nikolasek trenbidean lana egiten zuen eta kartila geneukan. Harekin debalde ibili gintezkeen. Eta aitona ere bai. Joxe Manuelek eta haren familiak ere ez zuten pagatu beharrik. Ez zen izango merkea, baina ez daukat gogoan.

Etxea jabetzan al zeneukaten?

A: Gu maizterrak ginen eta ez genuen segurorik pagatzen. Beti zeozer, konponketaren bat egiten. Gero, Legazpin etxea erosi genuen, Laubide auzoan eta gerora, hura saldu eta Zumarragan hartu genuen tren geltokiaren ondoan, erosoago zegoela eta. Laubidera ere, joan egin behar zen! Geroago Urkiztegi erosi genuen. Nagusiak saldu egin nahi baitzuen, maizterrak aukera zuen erosteko.

M: Zantegiko nagusia berriz, Segurakoa omen zen, Maria Zandategi izenekoa eta anaia bat apaiz omen zegoen Gabirian. Kanpai bat ba omen dago Zandategi izenekoa Gabiriako kanpandorrean.

Errotonda dagoen hortik gora, dena zen Zantegikoa. Eta orain baratzak eta dauden hori dena, soro omen zen eta 25.000 pezetan erosi omen zuen Jauregikoak. Etxea bera 22.500 pezeta pagatu omen zuen eta aita Benito gustura zen, eskriturak egiteko dirua sobratu zitzaiola eta. Ni etortzerako, erosketa hori eginda zegoen.

Zantegiko Patxi Lasa Zumalakarregi eta Urkiztegiko Nikolas Etxeberria Amiano ere, elkarrizketa honen itzalean eroso egongo zirelakoan nago eta Maria eta Anitari mila esker hain hitz-jario aberats eta gustagarria biziarazteagatik. Segi bizkor!

JOSE INAZIO MURUA JAUREGI
BLANKA LÓPEZ GARCÍA

HIRUGIHAR, TXANPINOI ETA GAZTADUN ¨QUICHE¨A

6 lagunentzat

¨Masa quebrada¨en osagaiak:

-150g postregintzako irina
-75g gurina (dadotan)
- Arrautza 1
-Gatz pixka bat

“Masa quebrada”ren prestaketa:

1- Ontzi batean, irina eta gurina nahastu eskuekin.
2- Arrautza eta gatza gehitu eta eskuekin, dena bat egin arte landu.Bola bat lortzen dugunean, ontzian utzi, tapàtu eta hozkailuan ordubete eduki.
3- Gainazal leun batean, hirin pixka bat bota eta bola zapaldu, rodilloarekin gure moldearem forma emanez bukatu.
4- Moldea, pareta altukoa izatea komeni da,masa moldean jarri eta eskuekin moldearen paretetara egokitu. Tenedore batekin ongi zulatu masa guztia.
5- Labean sartu 10 minutu, 180 gradutan. Pixka bat gogortzen denean atera.

“Quiche”aren osagaiak:

-200gr hirugiharra takotan
-150 gr txanpinoi
-4 arrautza
-400ml kozinatzeko esne-gaina
-125 gr gazta birrindua
-Gatza

“Quiche”aren prestaketa:

1- Ontzi batean, 4 arrautzak, esnegaina, gazta eta gatz pixka bat bota eta dena ondo nahastu.
2- Zartagin batean hirugiharra gorritzen jarri, txanpiñoiak zatitu eta nahastu. Txanpiñoiak bigundutakoan, arrautza, esne-gaina eta gaztarekin nahastu.
3- Lehen egin dugun masaren barrura bota nahasketa guztia eta labera sartu.180 gradutan, 30-40 minutu. Atera eta reposatzen utzi. ON EGIN!!

MIKEL ASURABARRENA BIDEGAIN

URTEKARIA

BERRIAK LABUR

URTARRILA

1
Herrian 517 lagun zeuden erroldatuta, urtebetean 10 gehiago (+%1,97). 2023an, jaiotza bat eta hiru heriotza. Herrira 27 etorri ziren, eta kanpora 13 joan ziren.
5
Euri jasa handiagatik zuhaitz bat erori zen Baztarrika parean errepidera, eta bolatokira ura sartu zen.
6
Baztarrika gaztak 2. saria Debako Urte Berriko ferian, Oñatibitxikik frutatan irabazi.
7
Gabiriar jatorriko Iñaki Maiora Oria txirrindulari ohi ormaiztegiarra omendu zuten Ormaiztegiko Ziklo-Krosean. Jon Eskisabel, Kepa Ormazabal eta Jokin Matxinandiarenak parte hartu zuten.
7
Elurra egin zuen Aizalekun.
8
Fisioterapia zerbitzua hasi zen, Legazpiko Kailas zentroaren bidez.
9
Leharrei mendi lasterketak Etiketa berdea ziurtagiria eskuratu zuen.
10
Podologo zerbitzua hasi zen.
11
Ehun gaztainondo banatzeko deia egin zuen udalak.
11
Hitanoaren erabilera herrian sarria baina egoera “erdipurdikoa” zela ebatzi zuen Badiharduguren inkesta batek.
12
Udal lanen eta aurreikuspenen berri emateko herri batzarra egin zuen udalak.
13
Biziola banaketa zerbitzua eskaintzen hasi zen herrian, ordura arteko azoka ibiltariaren ordez.
14
Patxi Ormazabal bolariak Seguran tiraldia irabazi zuen, eta Felix Maiz tokan bigarren.
19
Alegiako Sindikatoa dendako bazkide egiteko aukera ireki zuten, auzotarrentzat lehenik.
22
Eraikin publikoen garbiketaren kontratazioa lehiaketara atera zuen udalak, bi urterako eta bat luzagarri, urteko 34.000 gehi BEZarekin.
22
Gabiriako Rallysprintaren antolakuntza bere gain hartu zuen Bosteko eskuderia berriak bere burua aurkeztu zuen, probaren jarraipena ziurtatuz.
24
Intxaur aleak belzten dituen Rhagoletis completa euliari buruz mahai-ingurua egin zuten Zaldibiako Goizanen, Gabino Muruak bultzatuta.
26
Korrika 23ren denda jartzen hasi ziren, Ostatu aurrean.
26
Euskal Herriko 15. Mus Txapelketako herriko saioan zortzi bikote lehiatu ziren. Iñigo Igartzabal-Ainhoa Arratibel irabazle, eta Gipuzkoako finalera sailkatuak.
27
Eguzkitza-Jauregi bidea auzolanean garbitu zuten auzotarrek.
27
Alex Aranburu Debak (Movistar) eskuineko lepauztaia hautsi zuen, Mallorcako Challengeko laugarren proban, erorikoa izanda.

29
ELA sindikatuak deituta, Astigarragako Cotronic enpresan sei eguneko grebak hasi zituzten, 2023ko irailean Gabirian telefono-zutoin batetik erorita zauritu zen langile baten istripua eta beste baten kaleratzea salatzeko.
30
Troiko urmaelean hegazti aberastasun handia dagoela erakutsi zuen, irudi bidez, Troialagunak erabiltzaileak Youtuben.
31
Udalbatzak 2024ko udal aurrekontua onartu zuen: 758.937 euro. Horietatik, inbertsioetarako 150.000 euro.

OTSAILA

2
Bizkarsoro filmaren emanaldia izan zen.
2
Gabirizar baserrietarako bide berria asfaltatzen hasi ziren.
3
Maialen Akizu bertsolariak Huntza musika taldearen agurreko Azkena balitz bezala kontzertuan kantatu zuen, Bilbon.
4
Santa Ageda bezperan, kopla eta bertso kantari kantu eskean ibili ziren Osinaldeko eta eskolako taldeak.
4
Bi bolari bikotek Binakako Txapelketako finalean jokatu zuten, Aian: Joxean eta Patxi Ormazabalek, eta Felix eta Iñaki Maizek.
5
Gabiriar jatorriko Josetxo Orbezabal Rabanos beasaindarra (95 urte) omendu zuten, Beasainen, Urbiberri gizarte zentroan.
9
Ataungo Unidad Alavesa musika taldeak *Gabiriko seiak* abestia duen *Motoki, Zakurreki, Egurreki*... diskoa kaleratu zuen.
13
UFFF Udalak Finantzatzeko Foru Funtsaren 2023ko likidazioa 471.049,57 eurokoa izan zen Gabiriako Udalarentzat; aurrekontuan 466.796,89 euro jaso zituenez, 4.252,68 euroko aldeko saldoa gehiago jasoko zuen. 2024ko UFFFren aurrekontua 495.436,67 eurokoa zen.
15
Biztanle gutxiko herrietan kutxazain automatikoak mantentzeko, berrezartzeko edo jartzeko Eusko Jaurlaritzaren programa batean sartu zuten Gabiria.
16
Herriko lau baserritan ekoitzitako elikagaien eta bertako lau artisauren produktuen salmenta guneen fitxa zabaldu zuten.
17
Julen Murua gabiriarrak eta Aitor Vazquezek irabazi zuten, Idiazabalen, Euskal Herriko txapelketako hango saioa.
18
Sutearoak urteko batzar nagusia egin zuen, kultur etxean. Gabiriako ermandadean 55 aseguratu zeuden (Zerain, Idiazabal, Segura eta Urnietako batzuk barne).
18
Asier Amondarain Peñagarikano gazteak Olaberriko zaldi raid proban (80 km) parte hartu zuen, *Ainhoa Antheus* zaldiarekin.
19
Ardantza aldeko bidea asfaltatzen hasi ziren, REE Red Electrica de Españaren kontura, erabilera-kalteen truke.
22
Osinalde bertso sariketaren sortzaileetakoa eta lehen antolatzaileetakoa izan zen Joxe Mari Landa Maiora alegiarra hil zen (Gartziandegi, Alegia, 1947), 76 urterekin, Ikaztegietan.
23
Bertso afaria egin zuten Osinalde elkartean (80 lagun), Aitor Mendiluzerekin eta Iban Urdangarinekin.
23
Jon Sagarna eta Iñaki Rezusta Txasio musikari gabiriarrek jotzen duten Kattalin eta Nenufarrak taldeak kontzertua egin zuen, Orion. Taldearen bigarren emanaldia zen (lehena 2023-12-29an, Villabonan).
24
Elurra egin, eta ia Aztiriaraino zuritu zuen.
24
Joxean Ormazabal bolariak irabazi zuen Olaberriko tiraldia, Goierrikoan.
28
Gabiriak bazterketa sozialaren Gipuzkoako arrisku tasa baxuena zeukan, %3,2koa (Gipuzkoan %7,4), Gipuzkoako Foru Aldundiaren 4. inkestaren arabera

MARTXOA

1
Herriko nekazariek Gipuzkoako baserritarrek modu bateratuan antolatutako protesta ekitaldian parte hartu zuten, Donostian, lehen sektorearen aldeko neurriak hartzeko eskatzeko.
2
26.Gabiriako Rallyesprinta jokatu zen, euskal egutegiko aurrenekoa. Iraitz Olariaga-Josu Odriozola (Honda Civic) irabazle (18:42,1). Eñaut Igartzabal herritarra Mikel Madinarekin atera zen (20:57,00). Izena emandako 72 taldeetatik 66 baimendu zituzten irtetera.
5
Joseba Iztueta herritarrak eta gabiriar jatorriko Ekaitz Maiz Agirre etxauriarrak Lazkaoko Mendi Astean eman zuten Zanskar ikus-entzunezkoa.
6
Goi tentsioko linea proiektu berrien proiektuak iritsi zirela jakinarazi zuten.
9
Euskal Herriko Mus Txapelketaren Gipuzkoako finalean, Iruran, bost herritar aritu ziren: Iñigo Igartzabal-Ainhoa Arratibel (herrian sailkatuak), Julen Murua-Aitor Vazquez (Idiazabalen), Asier Agirre-Joseba Zabaleta (Mutiloan), eta Beñat Maiz-Unai Goikoetxea (Beasainen). Azken horiek final handira sailkatu ziren.
9
Gabiriko seiak abestia lehenbiziko aldiz jendaurrean jo zuen Unidad Alavesak, Ondarroan.
10
Juan Elgarrestaren (Astiazaran) eztiak herritarren dastaketako saria jaso zuen Zegaman, Gipuzkoako 24. Ezti Lehiaketan.
11
Frontoi-Azpi auzuneko euri-uren saneamendu eta drainatze obrak kontratatzeko deialdia atera zuen udalak, 231.881,22 euroko aurrekontuarekin.
12
Sektore publikoko grebarekin bat egin, eta Balentzategi eskolako irakasleak grebara joan ziren.
14
Goi tentsioko lineen proiektuetako dorreak eraikiko dituzten lurren jabeekin hartu-emanetan jarri zirela ohartarazi zuen udalak.
15
Alegiako Sindikatua denda Gabiriako, Ezkioko eta Ormaiztegiko herritar guztiei ere zabaltzeko bilera egin zuten.
16
Xabat Goikoetxea eta Mikel Aranburu Aztiriko Legorburuko lehengusuek IX. Goierri Rallyesprintean parte hartu zuten.
16
Aztiria Saria bertso lehiaketa jokatu zen. Bertsolariak: Aitor Tatiegi Ekhiñe Zapiain, Eki Mateorena, Iruri Altzerreka, Naia Arriazabalaga eta Mikel Etxezarreta. Epaileen puntuazioz Tatiegi eta Mateorena igaro ziren Osinaldera. Entzuleen botoz, Aztiria Sariaren irabazle Etxezarreta aukeratu zuten.
16
Kulturaldia egitaraua hasi zen. Ekainaren 8ra arte, 17 egunetan izango ziren ekitaldiak.
16
Gabiriar jatorriko Aritz Maiora Barandiaran olaberritarrak irabazi zuen Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketako paletako finala, infantiletan, Donostian.
17
Joxe Maiz bolariak Mutiloako tiraldia irabazi zuen, Lehendakariko azkena.
18
Espainiako Movistar+ telebista kateko *El Dia Después* programa ospetsuan Jon Ander Larrañaga eta Jon Gorrotxategi gabiriarrak agertu ziren, Anoeta futbol zelaian Reala-Cadiz partida ikusten ari zirela bi japoniarrekin.
19
Sagarrondoei buruzko ikastaroa hasi zuen Gabino Muruak, inausketari buruz. Bigarren saioa, 21ean, txertaketaz egin zuen.
20
Maialen Akizu bertsolariak *Bertsolamintza* jardunaldian hitzaldi bat egin zuen, Itsasun (Lapurdi).
22
Korrika Txikia egin zuten herrigunean, eskolakoek.

2024-2-4 Santa Ageda bezperan eskean

2024-2-4 Eskolakoak Santa Ageda bezperako eskean

2024-2-23 Bertso afaria Osinalden – Jabier Gartzia

2024-3-2 Gabiriako Rallyesprinta

2024-3-9 Igartzabal eta Arratibel EH Mus Gipuzkoa finalean Iruran

2024-3-16 Aztiriko bertso sariketa

2024-3-20 Korrika Batzordekoak petoekin

2024-3-22 Goi tentsioko lineen aurka elkarretaratzea

22
Goi tentsioko linea berrien proiektuen aurka elkarretaratzea egin zuten plazan 75 lagunek, *Goi tentsioko linearik ez. Herri bizien alde* lelopean.
22
Gipuzkoako Foru Aldundiak 2025eko UFFFn 1.100 biztanle baino gutxiago udalerriei diru gehiago emateko foru araua aldatu zuen.
23
23. Korrika Gabiriako herrigunetik igaro zen, lehenengo aldiz. Lizaratzu aldera 07:38an ailegatu, eta Altzibardik herrira igota Palankan Liernirantz hartu arte, zortzi kilometro eta 57 minutu iraun zuen korrikaldiak Gabiriako lurretan.
23
Korrika igaro izana ospatzeko, festa egin zuten herrian: gosaria, txistulariekin eta erraldoiekin kalejira, Goruntz taldearen dantza saioa, ume jolasak, eta bertso bazkaria Aztiriko erretegian (48 lagun), Endika Igartzabal, Aratz Igartzabal eta Gorka Maizekin.
25
Argazki lehiaketa antolatu zuen udalak, 2025eko egutegia osatzeko helburuz.
26
Ostegun eta Ostiral santu egunetan ez zen elizkizunik egin Andre Mari elizan.
30Alex Aranburu Deba txirrindularia lasterketetara itzuli zen, Lizarran.
31
Aberri Eguna ospatu zen, plazan.

APIRILA

3
Gabiriar jatorriko Eneko Goiburu Murua gaztagile segurarra Erregulartasun sariarekin saritu zuten, Ordizian, Artzain Egunean.
4
Alkain Txiki eremuko urbanizaketa lanak amaitutzat eman zituen udalak.
5
Balentzategi herri eskolaren Oroitz-Ona eraikinaren teilatuko eguzki plakak energia sortzen operatibo eta martxan jarri zituzten. 30 kilowatteko ahalmena dute, eta inbertsioa 28.680 euro + BEZa kostatu zen (erdia laguntzekin).
6
Alex Aranburu Debak Euskal Herriko Itzulia erregulartasuneko nagusiko mailot berdea irabazi zuen.
6
Josu Elgarresta Asurabarrenak Paris-Roubaix afizionatuen klasikoa bizikletan egin zuen.
6
Imanol Intza korrikalariak Mendaroko 12. Kilimon Ibilbidea mendi lasterketa (11 km) irabazi zuen.
6
52. Osinalde Saria bertso lehiaketa Aner Peritz *Euzkitze* zarauztarrak irabazi zuen. Bertso onenaren saria eta entzuleena Aitor Tatiegi oñatiarrak jaso zituen. Maddi Aiestaran, Eki Mateorena, Bittor Altube eta Aitor Ugarte ziren beste bertsolariak; aurkezle, Ane Etxezarreta, eta epaile Asier Iriondo, Asier Ibaibarriaga, Lurdes Murua, Aratz Igartzabal eta Eresti Oiarbide.
8
Gipuzkoa Bertsotan lehiaketan lau gabiriar eta saio bat herrian izango zirela aurkeztu zuten.
12
Zakur gorotzentzat zakarrontziak kokatu zituzten, herrigunean.
12
Aratz Igartzabal bertsolariak Lazkaon bertso desafioa irabazi zuen. Maialen Akizuk ere kantatu zuen, zortzi bertsolariren artean.
13
Goierriko Bola Txapelketako 4. jardunaldia Gabirian jokatu zen; hiru herritar sailkatu ziren tiraldian aurreneko postuetan: 1. Iker Etxezarreta (48), 2. Iban Maiz (47), 3. Joxe Maiz (47).
14
Dantzari Txiki Eguna ospatu zen herrian. Oin Arin (Lazkao), Aurtzaka (Beasain), Jalgi (Zarautz) eta Goruntz izan ziren.
15
Felix Zubia medikuak *Antsietatea eta depresioa* hitzaldia egin zuen.

17
Haur eskolan ate irekien jardunaldia egin zuten, matrikulazioari begira.
18
Joseba Iztuetak *Zanskar* ikus-entzunezkoa eman zuen, kultur etxean.
18
Gabiriar jatorriko Alberto Revuelta Gorrotxategi elgoibartar atleta eta erdifondista ohiaren doping kasua baliogabetuta utzi zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak, 2016ko ustezko kasu batengatik lizentzia 2025era kendu bazioten ere.
19
Street boulder kaleko eskalada txapelketa jokatu zen, 21 heldu eta 22 ume partaide zirela. Mutiletan Aritz Cantero legazpiarrak irabazi zuen, eta nesketan berdinduta Maria Osinaldek eta Maria Epeldek.
19
Udalak herriko bide guztien inbentario proposamen bat aurkeztu zuen.
19
Makilari 35. aldizkaria inprentatik iritsi zen.
20
VII. Leharrei mendi lasterketak jokatu ziren. Guztira 259 korrikalari irten ziren (izena emanda 275): luzean 154 eta motzean 105. Irabazleak: luzean Oier Elortza azkoitiarra (1:58:08) eta Irati Larrañaga usurbildarra (2:32:09); eta motzean Jokin Tolosa anoetarra (1:13:49) eta Maite Etxezarreta azpeitiarra (1:23:08). 20 gabiriarrek eta gabiriar jatorrikok parte hartu zuten.
20
Kepa Ormazabal Galdos txirrindulariak tarteko helmugen saria irabazi zuen Gipuzkoako Klasikoa junior mutilen UCI mailako nazioarteko txirrindulari proban, Ormaiztegin –Gabiriatik ere igaro zen ibilbidea–. Biharamunean, nagusikoa irabazi zuen, Donostian.
20
Kepa Ormazabalek Beasaingo 34. Idazlehiaketan bertsoen ataleko A mailan aipamen bat irabazi zuen.
21
Astigarragako Eragiyok koruak kantaldi-kontzertua egin zuen elizan, eta Valentin Larrea Iturbe musikari gabiriarraren korurako bi abesti kantatu zituen: *Eresiak* eta *Villancico al Niño Jesus.*
21
Eusko Legebiltzarrerako 13. hauteskundeak egin ziren. Emaitzak: EH Bildu 172, EAJ 81, PSE-EE 8, Elkarrekin Podemos 5, PP 2, Aulki Zuriak 1. Errolda: 407. Baliogabea 1, zurian 2. Abstentzioa: %33,17.
23
Balentzategi herri eskolan *Zibersegurtasuna etxean* eta *zibersegurtasun pertsonala* hitzaldia egin zuten.
24
Parkea Bizirik elkarte ekologistak jarritako etxolatxoetan, galtzeko arriskuan dauden zenbait hegazti espezietako kumeak jaiotzen hasi ziren, tartean Gabirian.
26
Gipuzkoa Bertsotan bertsolari lehiaketako saioa izan zen, saloian. Aitor Tatiegi, Aitor Zubikarai, Andoni Mujika, Maider Arregi, Urko Egaña eta Uxue Fernandez ziren kantuan. Saioa Arregik irabazi zuen (360,5 puntu), 2. Tatiegi (321,5) eta 3. Fernandez (313,5).
27Goi tentsioko lineen aurka Autopista Elektrikorik Ez plataformak Iruñean egin zuen elkarretaratzean parte hartu zuten herritarrek, autobusean 38 lagun joanda.
27
Juan Ramon Aramendi bolariak irabazi zuen Zerainen tiraldia, Goierrikoan.
30
Pasiotarren Gabiriako Ikastetxean ikasten ibili ziren 37 ikasle ohik juntadizoa egin zuten. Igartubeitin izan ziren, han Xabier Mendiguren zena oroitu, eta Ostatuan bazkaldu zuten. Pascual Barturen organo jotzaile ospetsua zen tartean, eta Andre Mari elizako organoa jo zuen.

2024-3-25 Korrika lehen aldiz Gabiria gainean

2024-4-6 Osinalde bertso saria –Aimar Maiz

2024-4-12 Aratz Igartzabal kopla desafioan Lazkaon

2024-4-19 Leharrei Street boulder txapelketa

2024-4-20 Leharrei mendi lasterketaren helmuga plazan –Aimar Maiz

2024-4-21 Eragiyok korua Valentin Larrea abesten –Aimar Maiz

2024-4-27 Autopista Elektrikorik Ez ekitaldia Iruñean

2024-4-30 Pasiotarren eskolan ibilitakoen juntadizoa

MAIATZA

1
Legazpiko 90. Santikutz Klasikoa txirrindulari amateurren lasterketan Gabiriako mendate guztiak igo zituzten.
3
Gipuzkoa Bertsotan lehiaketan, Aratz Igartzabalek Orion kantatu zuen (3.), eta Gorka Maizek (4.) eta Maialen Akizuk (2.) Legorretan.
3
Alex Areizagak egindako, eta protagonista Joseba Iztueta gabiriarra eta Andoni Ormazabal zumarragarra dituen *Itzalak* filma Durangon (Bizkaia) eman zuten, Ourdaybi Mendi Film jaialdian.
3
Urbiako Fondakoek iragarri zutenez, urteak bete zituen Irazola baserriko Jose Luis Uribetxeberria *Txantxangorria* artzainak Urbian 50. udaldia egingo zuen.
4
Gabirian jaiotako Joritz Lasarte Mujika ondarroarrak 5. egin zuen Ezkioko 8. Izazpiko Igoera mendi lasterketan (44:25).
5
Goruntzek Beasaingo Dantzari Txiki Egunean parte hartu zuen.
5
Baztarrika gaztandegiak 3. saria lortu zuen Idiazabalen, Gazta Azokako lehiaketan.
8
Sukaldaritza ikastaroa eman zuen Maria Jesus Deba sukaldari aztiriarrak, Aztiri-Bat elkartean.
9
Gipuzkoa Bertsotan lehiaketan, Endika Igartzabalek Idiazabalen kantatu zuen (5.).
10
Osinaldeko 46. Mus Txapelketa Josetxo Sagarna-Arantxa Bidegainek irabazi zuten, 2. Oier eta Adur Ruiz de Azua; 3. Iker Arratibel eta Julen Etxeberria; 4. Iñaki Maiz eta Iñaki Oiarbide. 11 bikote.
10
Joseba Iztueta mendigoizaleak Azpeitiko Udalaren eta Euskal Mendizale Federazioaren Joxe Takolo Beka jaso zuen, *Izenik gabeko dorrea* proiektuarengatik.
10
Alkaintxiki eremuan bizitegi etxea eraikitzeko partzela bat saltzera atera zuen udalak.
11
Joseba Idiakez gabiriarraren *Maunaren Loa* musika taldeak lehenengo kontzertua jo zuen, Antzuolan, Mox tabernan. *Ondoratzean* maketa 2023ko azaroan grabatu zuten.
11
Legazpiko Izadi Zaleak mendi elkarteak antolatuta, Legazpi eta Gabiria arteko muga lerroan ibilaldia egin zuten legazpiarrek, mugarriak aurkituz eta balizatuz.
12
Goruntzek Zumarragako Dantzari Txiki Egunean parte hartu zuen.
12
Joxean Ormazabal bolariak irabazi zuen Lasarteko tiraldia.
12
Segurako Xirika antzerki taldeak *Zopa* antzezlana egin zuen, saloian.
13
Mediku kontsultako zerbitzua eten zuten, 21era arte, medikuaren oporrengatik.
18
Anabel Aldalur Izagirre abeslariak Madrilen bakarlari modura azkenetariko kontzertua egin zuen, erretiroa hartu aurretik.
18
Gabiriar jatorriko Batis Maiz legazpiarrak omenaldi-aitortza jaso zuen, Elgetan, Euskal Herriko Mendizale Federazioaren mendeurreneko ekitaldi nagusian. EMFren lehendakaria izan zen, 1981etik 1984ra.
19
Jubilatu Eguna ospatu zuten, Ostatuan, 43 adinekok. Mandiolako Agapito Azarola eta Irubideko Gabina Etxeberria omendu zituzten.
19
Kepa Ormazabal txirrindulari juniorrak (Ampo) Anoetako 40. Proba irabazi zuen.
22
Herri bideen inbentarioari buruz lehen bilera antolatu zuen udalak, herritarrekin.
22
Etxeberribengoko zubiko bidegurutzea berritzeko, 5.937,53 euroko laguntza eman zion Diputazioak udalari, 6.985,33 euroko inbertsiorako.

2024-5-2 Alex Areizaga Durangon

2024-5-10 Joseba Iztueta Azpeitian Joxe Takolo Beka jasotzen

2024-5-10 Osinalde mus lehiaketako sarituak

2024-5-18 Batis Maiz eta Itziar Azpiroz senar-emazteak Elgetan EMFren omenaldian

2024-5-19 Jubilatu Eguneko saritu eta omenduak

2024-5-19 Kepa Ormazabal Anoetan irabazle

2024-5-22 Jose Antonio Elosegi Ordizian lehen gereziekin

2024-5-31 Rokodromoan lehen eskaladak –Aimar Maiz

22
Oñatibitxikiko Jose Antonio Elosegik denboraldiko lehenengo gereziak eraman zituen Ordiziako azokara.
23
Lan Ikuskaritzak Gabirian laneko istripua izan zuten langileen enplegatzaile Cotronic eta Telefonica enpresak zigortu zituen, prebentzio arloko urraketengatik.
25
Zirkulazioko istripu larria izan zuen herriko gazte batek, Eguzkitza parean gauez motoan zihoala, orkatz bat bidera atera eta jota.
26
Gabiriar tokalariek Euskadiko Toka Txapelketan parte hartu zuten, Altzan.
26
Zegama-Aizkorri mendi maratoian lehiatu ziren Imanol Intza (4:44:42) eta Egoitz Asurabarrena (6:02:13).
26
Haimar Zubeldia Klasikoa zikloturismo martxa Atagoititik igaro zen.
31
Alkainburu pilotalekuko rokodromoa edo boulder eskalada instalazioa inauguratu zuten.
31
Gabiriar jatorriko Manex Ansorregi Deba saskibaloi jokalari azkoitiarrak Urrezko LEB ligatik ACBra igotzeko lauko finaleko azken partida jokatu zuen, Burgosen, Guuk Gipuzkoa Basket taldearekin.

EKAINA

2
Aizaleku tontorrean urteroko festa ospatu zuten.
2
Legazpiko Ortiz de Luzuriagaren Omenezko Mendi Bizikleta Zeharkaldiaren ibilbide zati bat Gabiriako lurretan jarri zuten, Atagoititik Aztiriara.
2
Gabiriar jatorriko Aritz Maiora olaberritarra Euskadiko Jokoetan irabazle izan zen paleta larruz, Basaurin.
3
Lapurreta egin zuten Ostatuan.
5
Red Electrica de España enpresak Elgeako parke eolikoa berrituko zuela, eta handik Gabiriako zentraleraino datorren argindar linea 220 kilowatteko indarrera handituko zuela iragarri zuen.
5
Bekoetxe baserriko Anttoni Murgiondok udaberriko azak eraman zituen Ordiziako azokara, denboraldiko aurrenekoak.
6
Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako diputatu Maria Ubarretxena Gabirian izan zen, bisita instituzionalean.
8
Goierriko irakurle taldeen VI. Topaketa Gabirian egin zuten, eta Mariasun Landa idazlea (Errenteria, 1949) gonbidatu eta omendu zuten, haren *Krokodiloa ohe azpian* liburua landuta. Goierriko 63 irakurle izan ziren, 9 herritakoak.
9
Europako Parlamenturako 9. hauteskundeak egin ziren. Emaitzak: EH Bildu (Orain Errepublikak koalizioa) 141, EAJ (CEUS koalizioa) 51, PSOE 9, Podemos 3 PP 2, Izquierda Española 2, Bukatu da Festa 1, Sumar 1, Vox 1. Errolda: 408. Zurian 1. Abstentzioa: %48,03.
9
Goruntz Lazkaoko Dantzari Txiki Egunean izan zen.
11
HAPO Hiri Antolamenduko Plangintza Orokorra 2006ko lurzoruaren euskal legera egokitu gabe daukaten EAEko udalerrien %51,4ren eta Gipuzkoako %31,8en artean Gabiria zegoen.
11
Kepa Ormazabal Galdos txirrindulariak (Ampo) hirugarren egin zuen junior mailako banakako Gipuzkoako Erlojupeko Txapelketan, Aizarnazabalen.
14
Alegia auzoan Sindikatoa denda autokudeatua zabaldu zuten.
14
Felix Maiz bolariak irabazi zuen Ereñotzuko festetako tiraldia, eta bigarren gabiriar jatorriko Juan Mari Iñurritegi legazpiarra.

15
Lau bolari gabiriarrek Euskadiko Bola Txapelketan parte hartu zuten, Luiaondon (Araba).
15
VI. Goilurrak Rallya Gabiriako lurretatik igaro zen, TC2 eta TC4 erlojupekoetan (Mutiloa-Zerain).
15
Alex Aranburu Debak (Movistar) Belgikako Itzuliko 4. etapa irabazi zuen, Durbuy-Durbuy (177km) etapa erregina, Ardenetako muinoetan.
16
Balentzategi herri eskolako autobuskada bat ikasle eta guraso Gipuzkoako 35. Eskola Txikien Festan izan zen, Adunan.
17
Baztarrika gaztandegian kanpainako azkeneko gaztak egin zituzten.
18
Secundino Esnaola Musika Eskolako herriko ikasleek ikasturte amaierako kontzertua eman zuten, saloian.
18
Herrian 394 txakur zeuden erregistratuta, 10 biztanleko 7,43 txakur. Goierrin, proportzio handieneko herria zen, alde handiz.
20
Udalerriaren mugatik gertu, Ezkioko lurretan, Sprilur enpresa publikoak beste industrialde bat eraikitzeko asmoa agertu zuen prentsan, 102.355 metro koadroko azalerakoa, erdia pasatxo pabiloiek hartuak.
21
Balentzategi herri eskolan 2023-2024 ikasturtea amaitu zuten, eta LH6 bukatuta eskola utziko zuen Helene Morali agur kantuak eskaini zizkioten. Udal liburutegian eta bertso eskolan ere oporrak hartu zituzten.
23
Lore sortak bedeinkatu zituzten, San Joan bezperako ohituran, mezan.
23
San Joan bezperako suak piztu zituzten. Herrikoa, Kurutz-Bakarren.
23
Kepa Ormazabal eta Alex Aranburu ziklistek garaipen bana lortu zituzten, juniorren Gipuzkoako Itzuliko 2. etapan Andoainen Etxeberritxokoak, eta Espainiako errepideko txapelketa Legorburukoak.
24
Herriko udaleku irekietan hasi ziren 17 ume eta lau begirale.
25
Aztiriko frontoitxoa auzolanean margotu zuten.
25
Uda garaiko lehen bero sapa egin zuen: 36º.
27
Herriko bi baserritar tartean zirela, Zumarragako Udalak hango plazako azokako saltzaileak omendu zituen, estalpearen 70. urteurrenean.
28
Mediku kontsulta itxi zuten, uztailaren 22ra arte, medikuaren oporrengatik.
28
Balentzategi herri eskolako zortzi irakaslek bazkaria eginez hartu zituzten oporrak.
28
Orbeldi eta Madariaga zozkerek ere partea baduten Ezkioko Santa Lutzi-Anduaga auzoan San Pedro festak hasi ziren, 30era arte. Alex Aranbururen izeneko I. Igoera egin zuten Ezkiora. Biharamunean, Aranburu Frantziako Tourrean hasi zen, hirugarren aldiz.
29
Felix Maiz bolariak irabazi zuen Mutiloako festetako tiraldia.

UZTAILA

3
Udalak etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratazioa lehiaketa publikora atera zuen, lau urterako eta bat luzagarri, ordua 22,12 euroko (BEZarekin) prezioa ezarrita.

6
Zuhaitz bat hautsi eta errepidera erori zen, gauean, Baztarrika parean.

2024-6-2 Aizalekuko festa –Juan Ramon Goikoetxea

2024-6-8 Goierriko irakurle taldeen topaketa –Asier Zaldua

2024-6-8 Mariasun Landa omendua liburuarekin –Asier Zaldua

2024-6-12 Kattalin eta Nenufarrak taldea Ormaiztegin –Angel Elortza

2024-6-21 Balentzategin kurtsoko azken eguneko ekitaldia

2024-6-21 Bertso eskolakoak kurtsoko azken klasean

2024-6-25 Aztiriko frontoitxoa margotzen

2024-7-21 Aztiriko festak – Aimar Maiz

7
Kepa Ormazabal txirrindulari juniorrak (Ampo) 40. Circuito Cantabro Junior El Camargues itzulia eta hirugarren etapa irabazi zituen, Kantabrian.

9
Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak erabaki zuen Gabiriako Udalari 52.000 euroko diru laguntza ematea, Frontoiazpi kalearen barreneko harrizko horma egonkortzeko proiektuaren lehen faseko zati bat finantzatzeko.

12
Eguzkitza-Jauregi bidea auzolanean garbitu zuten.

13
Xabier Barriola kantari den Suhar abesbatza Txinara joan zen, Beijinen eta Quindaon bi jaialditan abestera.

14
Beasaingo Marimurumendi mendi maratoian lehiatu ziren gabiriar jatorriko Egoitz Asurabarrena eta Asier Murua.

17
Oñatibitxikiko Jose Antonio Elosegik aire libreko leka eta aran zuria eraman zituen Ordiziako azokara.

17
Herriko haur eskolan 14 bat urtean lan egin zuen Oihane zaintzaileari agurra egin zioten.

18
Aztirian festak hasi ziren, mezarekin eta hamaiketakoarekin.

18
Gabiriar jatorriko Ekaitz Maiz eskaltzailea (Etxauri, 1979) eta Bizkaiko hiru lagun Pakistanen Karakorum mendikateko Sosbun glaziarraren ondoan inork inoiz igo gabeko Mun Brakk II haitza (5.430m) eskalatzen hasi ziren.

19
Herriko udaleku irekia bukatu zen.

19
Aztiriko festetan, auzotarren bola lehiaketan Iñaki Urien irabazle, eta tokan Maria Luisa Lizaso eta Juan Ramon Goikoetxea. Auzo afarian, erretegian, 46 lagun.

19
Alegian festak hasi ziren, 16 sagardoren dastaketakin, auzo afarian 217 lagun, eta Joselu Anaiak taldearekin.

20
Aztiriko festetan, sagardo dastaketan herriko eta inguruko baserrietan egindakoak atera zituzten, sei guztira. Patata tortilla lehiaketan Jose Benito eta Miren Deba aita-alabak irabazle (14 bikote), eta bertso afarian 32 lagun, elkartean, Aratz Igartzabal, Ane Beloki eta Eneko Araiztegi bertsotan.

20
Alegiako festetan, I. Mus Txapelketan Dani eta Unai azpeitiar-gernikarrak irabazle (23 bikote); aizkora erakustaldia Mikel Larrañaga-Joxe Ugarteburu beteranoen eta Unai Etxeberria *Osinalde*-Eneko Otaño gazteen artean (beteranoak garaile).

20
Kirol auto klasikoen Azpeitiko Rallya herritik igaro zen, MR-4 "Gabiria" zatian.

21
Aztiriko festen amaieran, 18. Mendi Lasterketan Pello Olaberria mutiloarra irabazle (47:00, errekorra) eta nesketan Lara Estebanez legazpiarra (1:05:49, errekorra); korrikalari kopuruan ere (134) marka. Auzoko helduenaren omenaldia Zabaletako Rosita Aizpeoleari; Goruntzen dantzak, eta Aztiria-Gabiria herri kirol desafioa (Gabiria irabazle 24:10 minutuan; Aztiria 25:35). Bola tiraldian (35 bolari) Ander Etxebeste txapeldun, nesketan Naiara Peñagarikano, eta gazteetan Aner Miner.

21
Alex Aranburu Debak Frantziako Tourra 71. postuan bukatu zuen, Nizan. Hiru ihesaldi luzetan sartuta ibili zen Tourrean zehar, denera 407 km. Etapa-posturik onena 4. (uztailak 7), top-10ean lautan eta top-20an bostetan bukatu zuen.

22
Alegian festen azkena, herriko eta inguruetako bildumazaleen ibilgailu klasikoen erakusketa eginez.

30
Troiko bidea berritzeko 32.941,80 euroko laguntza eman zion Diputazioak udalari, 43.922,40ko inbertsiorako. Landa garapen proiektuetako laguntzetatik, berriz, 29.468,77 euro Aztiria erretegian biltegia eraikitzeko (45.336ko kostua).

31
Baztarrika gaztandegiak Londresko Great Taste 2024 lehiaketan bi sari jaso zituen.

ABUZTUA

1
Basurdeek belardi batean kalteak eragin zituztela ohartarazi zuen Enba nekazari elkarteak.
3
Alex Aranburu Debak Parisko Olinpiar Jokoetan parte hartu zuen, errepideko txirrindularitza proban (18.a).
10
San Lorentzo eguna ospatu zuten Ugaran goikoan: meza eta hamaiketakoa Kortan.
11
Bero oldeko bigarren egunean, tenperatura 40 gradukoa.
13
Herriko festak hasi ziren, pregoia adineko emakumeek eginda. Pilotan, palaz Leire Murua-Miren Garate 30, Naia Begiristain-Eresti Oiarbide 16; eskuz, Aritz Goena-Patxi Ormazabal 16, Xabier Naldaiz-Mikel Etxezarreta 22. Gazte afarian 110 lagun, eliz atarian, lanbroagatik.
13
Juanjo Moral Cibrian herritarrak *Vencer en tierra de espias* eleberria idatzi zuen, Juan Jose Moral Arnaiz aitaren 1975eko Bakearen Lasterketako parte-hartzea eta etapa garaipen bat, eta Gerra Hotza oinarri dituena.
13
Meategietako errepidean okerren zeuden sei gune berritzeko obra-kontratazio deialdia egin zuen udalak, 50.907,73 euroko baliokoa (BEZa barne).
14
Herriko festetan, herri kirol desafioko errebantxan, Aztiriak (8:08) irabazi zion Gabiriari (08:40); eta sokatiran ere bi tiraldiak aztiriarrentzat. Bertso jaialdian Andoni Egaña, Nerea Elustondo, Aratz Igartzabal, Jexux Mari Irazu, Alaia Martin eta Aitor Tatiegi, eta kontzertuan Ithaka, Belako eta DJ Fresamorangorekin.
15
Herriko festetan, txirrindulari igoeran (51 partaide) Aritz Jauregi Izuzkitza garaile (12:36), nesketan Naiara Peñagarikano (16:30), lehen gazteak Amets Elosegi eta Larraitz Amundarain, eta Arrondoenetik gorako lehena Telmo Betegi.
15
Baztarrikak 2. saria lortu zuen Araiako (Araba) gazta lehiaketan.
16
Herriko festetan, txistor lehiaketan Segurako Ondarre harategiko Felix Javier Goiburu Murua garaile (sei harategi partaide), eta sagardo dastaketan herriko edo inguruetako 10 baserritakoak. Bolatan txapeldun orokorra Joxean Ormazabal, eta tokan Antonio Amundarain.
17
Herriko festen azkena, San Roke Txikitako afari-merienda formatu berriarekin egin zen, lehen aldiz. Herri afari modura, denak bateratuta (293 lagun: 258 heldu eta 35 ume), udalak antolatuta, eta afaria Erramun Amundarain ordiziar sukaldariak prestatuta.
23
Joseba Iztuetak eta Ekaitz Maizek Frantziako Pirinioetako Vignemale mendian *Solo estoy sangrando* bidea eskalatu zuten, 750 metro luzeko harkaitza.
31
Brinkolako jaietan, musika jaialdi omenarrian parte hartu zuten Xabier Barriolak eta gabiriar jatorriko Maria Redondo Mujika kantari legazpiarrak.
31
Iñaki Murua bertsolariak Guretik eta Guretzat eguneko bertso saio batean kantatu zuen, Hernanin.

IRAILA

1
Baztarrikak 3. saria lortu zuen Legazpin, Gipuzkoako Artzain Gazta Txapelketan. Baita beste bi sari ere: gazteen dastaketako gazta onenarena, eta epaimahai herrikoiaren saria, Makatzarekin puntutan berdinduta.
1
Goruntzek Zarauzko Euskal Jaian parte hartu zuen.
2
Haur eskolan 2024-25 ikasturtea hasi zuten, ireki ahalko ote zuten zalantzan egon eta gero.

4
Udalbatzak 2023ko kontu orokorra onartu zuen ohiko osoko bilkuran. Herri bideen inbentarioari hasierako onespena eman zion.
5
Adinekoen topagunean ikasturtea hasi zuten, Nekane Peralto dinamizatzaile zutela.
5
Jesus Mari Deba Odolkiak etxeak odolki denboraldia hasi zuen.
9
Balentzategi eskolan 2024-2025 ikasturtea hasi zuten 30 ikaslek (iaz baino hiru gehiago). HH2ko gelan lau berri hasi ziren.
11
Gabiriar jatorriko Eneko Goiburu Murua segurarrak (Ondarre) 3. saria lortu zuen Ordiziako Ardi Latxa Gazta Txapelketan.
12
Mikel Aizpuru historialariak jakinarazi zuen ez zuela jarraituko Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondare zuzendari karguan. 2017an hasi zen Kultura Sailean, eta EHUko irakasle postura itzuli zen.
15
Leharrei taldeak antolatuta lehenengo mendi irteera egin zuten, Pagoetara.
15
Jon Eskisabel Barandiaran txirrindulari kadeteak (Inoxcra Beasain) Arabako Itzulian sailkapen nagusian tarteko helmugen azken saria irabazi zuen.
15
Xabier Barriola abeslaria kide duen Suhar Abesbatzak Varnako (Bulgaria) 42. International Choir Competition Prof. Georgi Dimitrov koruen lehiaketan parte hartu zuen.
17
Joseba Iztueta gabiriarrak eta gabiriar jatorriko Ekaitz Maizek 2023ko udan koroatu zuten Amaiur Peak gailurra alpinismoaren arloko Urrezko Pioleta 2024 sarietarako izendatu zuten, mundu osoko 68 igoera onenen artean.
18
Alex Aranburu Deba txirrindulariak (Movistar Team) 2. egin zuen Belgikako 64. Waloniako Sari Nagusian, Blegny eta Namur artean (202,4 km).
18
Gabiria herri izenaren etimologia posible baten teoria argitaratu zuen Patxi Xabier Salaberri Zaratiegik *Toponomasticon Hispaniae* webgunean. Antroponimo bat dela iradoki zuen, *Gaberius* edo *Cabilius* pertsona-izenetik eratorritakoa.
19
Gabiriako Udalak argazki lehiaketan jasotako irudiekin 2025eko egutegia argitaratuko zuela jakinarazi zuen.
21
Gorka Maiz Alustiza bertsolariak Gipuzkoako Txapelketan kantatu zuen, final zortzirenetan, Lazkaon. 5. sailkatu zen, eta plazak utziko zituela iragarri zuen bukaerako agurrean.
21
Errepideko txirrindularitza denboraldiko azken proba igaro zen herriko errepideetatik, afizionatuen Segurako 66. San Joan Saria.
22
Txirrindularitza denboraldia amaitu zuten Kepa Ormazabal Galdosek (Etxeberritxo), juniorretako azken urtean, eta Jon Eskisabel Barandiaranek (Gurutzeta), kadeteen 2.urtekoa. Elgoibarren karrera berean parte hartu zuten biek.
26
Kamioi batek zirkulazioko istripua izan zuen, Ormaiztegitik gora goiko errepide nagusian. Bidean zeharkatuta geratu, eta pasoa erabat itxi zuen.
27
Udal liburutegia ireki zuten kurtso berrirako, Miriam Mandiola liburuzain zuela.
28
Aratz Igartzabal Bidegain bertsolariak Gipuzkoako Txapelketan kantatu zuen, final zortzirenetan, Hondarribian. 2. egin zuen.
29
Endika Igartzabal Murua bertsolariak Gipuzkoako Txapelketan kantatu zuen, final zortzirenetan, Andoainen. 6.egin zuen.
29
Alex Aranburu Deba txirrindularia 91. Munduko Txapelketan lehiatu zen, Suitzan (58.bukatu zuen).
29
Felix Maiz tokalariak irabazi zuen Zumarragako Etxeberri auzoko jaietako lehiaketa.

30
Udalak etxez etxeko laguntza zerbitzua lehen aldiz enpresa bati esleitu ziola jakinarazi zuen.
30
Yoga, zunba-GAP eta pilates ikastaroak hasi ziren.

URRIA

2
Kalitatezko osasun publikoaren alde elkarretaratzea egin zuten 41 lagunek, Gabiriako plazan, Zumarragako EAG Etengabeko Arreta Gunea 24/7 plataformak deituta.
4
Auzolangiltza dokumentalaren emanaldia eta solasaldia egin ziren, Iker Iriarte egileetako bat bertan zela.
4
Gabiriarekin lotura duen Iker Irribarria pilotari ohiari buruz Maitane Ormazabalek eta Igor Meltxorrek idatzitako *Irri* liburua aurkeztu zuten, Araman.
4
Juanjo Moral herritarrak *Vencer en tierra de espías* liburua Legazpin aurkeztu zuen, jendaurrean lehen aldiz.
5
Irakurle Txokoan solasaldia egin zuten, Kattalin Minerren *Turista klasea* liburuaren inguruan.
5
30. Osinalde Bola Txapelketa jokatu zen, Alkainburu bolatokian (47 bolari). Irabazle nagusia Iñaki Maiz izan zen (36), 2. Joxe Maiz (36), 3. Endika Igartzabal (36). Emakumeetan, Elena Aldaz (35) eta gazteetan Ander Etxebeste (30) irabazle.
5
Maialen Akizu Bidegain bertsolariak Gipuzkoako Txapelketan kantatu zuen, final zortzirenetan, Azpeitian. 5.egin zuen. Final-laurdenetara lautik bi gabiriar igaro ziren: Aratz Igartzabal eta Maialen Akizu.
5
Gabiriako gazteek osatutako herri kirol taldea *Goierriko Hitza* egunkariaren 20. urteurreneko festan lehiatu zen, Lazkaon.
6
Pasiotarren Gabiriako Ikastetxean ikasle, irakasle eta fraide izandako Martzel Andrinua Lariz *Aita Martzel* (Ziortza Bolibar, 1930-8-18 – Euba, 2024-10-6) hil zen, 94 urterekin. Historialaria ere bazen, eta Gabiriako Ikastetxearen eta Eubakoaren historia idatzi zuen, baita han ikasle eta irakasle izandako Aita Patxiri buruz ere. Komentuaren 100. urteurreneko ekitaldian parte hartu zuen, eta antolatzaile aktiboenetakoa izan zen.
10
Urruti baserriko Pilar Ormazabal Erauskinek 100 urte bete zituen.
10
Alex Aranburu Deba txirrindulariak urteko eta Movistar Teamekin azken lasterketa egin zuen, Italian, Gran Piemonte 3. postuan amaituta. Bi garaipen lortu zituen 2024an, eta Frantziako Tourrean, Parisko Olinpiar Jokoetan eta Munduko Txapelketan parte hartu zuen, besteak beste.
10
Gabiriar jatorriko Kike Villamor Soraluzek Burgosen Europa mailako proiektu bat aurkeztu zuen, *La Europa de los Pueblos', red europea para un desarrollo rural del siglo XXI.*
13
Iganderoko meza 10:30ean ematen hasi ziren Andre Mari Elizan, 11:15etik aurreratuta.
13
Baztarrika gaztandegiak Euskal Herriko 41. Artzain Gazta Lehiaketan 2. saria lortu zuen, Idiazabalen.
14
Troiko meategietako errepidea konpontzeko asfaltatze lanekin hasi zen Asfaltos Urretxu enpresa.
15
Sasieta Mankomunitateak jakinarazi zuen Gabirian ere jarriko duela Minigarbigunea deituriko bilketa-ontzi finkoa, 7 hondakin-mota bereizita jasotzeko.
16
Oñatibitxiki baserriko Aitor Elosegi sagar mota desberdinei buruzko hitzaldi-erakustaldi batean hizlari izan zen, Lazkaoko Biziolan.

2024-8-16 Herriko festetan Goruntz -Gotzon Aranburu

2024-9-1 Baztarrika Legazpin saritua – Maider Intsausti



2024-9-12 Mikel Aizpuru

2024-10-2 Osasun zentroko EAG alde kontzentrazioa

2024-10-3 Frontoiazpi k aleko harri horman obrak-2 –Aimar Maiz

2024-10-5 Gabiriako herri kirol taldea Lazkaon Hitzaren festan

2024-10-18 Joseba Iztueta EMFk saritua Gasteizen

2024-10-31 Gau Beltza plazan –Jabier Gartzia

17
Nerea Mendizabal psikopedagogoak komunikazio ez bortitzari buruz hitzaldia egin zuen, eskolako gurasoentzat.
18
Zumarraga eta Urretxuko Goierri Pilota Elkartekoek lehiaketako bost partida Gabiriako frontoian jokatu zituzten.
18
Joseba Iztueta mendigoizaleari eta gabiriar jatorriko Batis Maiz legazpiarrari sari bana eman zien Euskal Mendizale Federazioak, Gasteizen, mendeurreneko galan.
19
Aratz Igartzabal bertsolariak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdenetako saioan kantatu zuen, Eibarren. 6.egin zuen.
19
Gabiriar jatorriko Alex Aranburu Deba txirrindulariari ongietorri ekitaldia eta festa egin zioten, Ezkion, herritarrek.
23
Alkaintxiki baserriari zer erabilera eman jakiteko, inkesta bat zabaldu zuen udalak.
23
Joxe Luis Uribetxeberria *Txantxangorri* artzain gabiriarrak –Irazola baserrikoa, 76 urte– Urbiako goi larreetan 50. uda igaro zuen.
24
Gabiriar jatorriko Eneko Goia politikaria EAJren herrialde mailako GBB organoa gidatzeko barne aukeraketan bigarren itzulira igaro zen. Gipuzkoako batzokien %18ren babesa jaso zuen, 9tan bozkatuena izanda.
26
Maialen Akizu bertsolariak Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako final-laurdenetako saioan kantatu zuen, Azkoitian. 6. egin zuen.
31
Gabino Muruak antolatuta, intxaurraren euliari buruzko hitzaldia egin zuten, Goimenen Zaldibiako egoitzan.
31
Telefonicak azpikontratatutako Cotronic telefonia enpresako bi langileren kaleratzeari buruzko epaiketa hasi zen, Donostian. Gabirian izandako lan istripuarekin zeukan zerikusia.
31
Gau Beltza edo Arimen Gaua ospatu zen, bigarren urtez.
31
Gabiriako udalerria ere barruan hartzen duen Goierriko Lurralde Plan Partzialaren berrikuspenaren aurrerapen dokumentua argitaratu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak.

AZAROA

1
Santu Guztien Egunean, hilerrira bisitan joan ziren herritar asko. Gaztaina erreak jan zituzten beste batzuek.
2
Eneko Goiak EAJren GBB exekutibako presidente izateko barne hauteskundeetan, bigarren itzulian parte hartzeari uko egin zion.
4
Kurrillo ugari pasatu zen gauean herriaren gainetik.
4
Valentziako uholdeetan kaltetuei laguntzeko eta lehen beharretarako gaiak eramateko, material bilketa hasi zuten Ostatuan. Furgonetakada bat bete zuten.
5
Liztor habia batek arriskua eragiten zuen, Larreaenetik beherago, Arroaga alderako espaloian, huntz tartean.
9
Izar Gaztañazatorre Aldazabal gabiriarrak Ezker Hormako Kluben Arteko Gipuzkoako Txapelketan gomazko paletako jubenilen binakako finala jokatu zuen, Hernanin; txapeldunorde izan zen.
9
Gabiriar jatorriko Eneko Goiburu Muruak bigarren saria jaso zuen Zegaman, Aizkorri-Aratz parke naturaleko 25. Gazta Txapelketan.
11
Eraitz Gorrotxategi Zuaitz gabiriarrari buruzko *Adopzio baten historia, Guatemalatik Gabiriara* dokumentala emititu zuen EITBk.

11
Zumarragako Osasun Zentroan EAG Etengabeko Arreta Gunea zabaltzeko borrokan ari zen 24/7 plataformak atsekabea eta sumindura adierazi zuen Goierri Garaiko udal ordezkariekiko –tartean Gabiriakoak–, aurreko astean udal guztiei deitu zien bilerara EH Bilduko sei zinegotzi bakarrik azaldu zirelako.
12
Juanjo Moral idazlea Balentzategi eskolan izan zen, idatzi berri zuen *Vencer en tierra de espías* liburuari buruz ikasleekin solasean.
12
Herritik ikusten diren goi mendietan denboraldiko aurreneko elurrak egin zituen. Aizkorrin eta Aralarren, 1.200 metro ingurura arte zuritu zuen.
12
Taldekako Bola Txapelketako finalaurrekoa jokatu zuen Gabiria2 taldeak (Mikel Mandiola, Patxi Ormazabal, Joxean Ormazabal eta Aratz Igartzabal), Segurako Txoritegi taldearekin, Olaberrian. Taldekakoan Gabiriako lau talde lehiatu ziren, hiru gizonezkoenak eta bat emakumezkoena.
14
Begoña Atin gabiriarrak Ondas sari bat jaso zuen, Bartzelonan *M11: Martxoko lau egun* dokumentalagatik.
15
Goazen telesailaren 11. denboraldiko aurre-estreinaldiko emanaldia egin zuten, kultur etxean.
16
Baztarrika gaztandegiak zilarrezko domina bat irabazi zuen 36. World Cheese Awards munduko gazta txapelketan, Viseun (Portugal) jokatua.
16
Valentin Larrea Iturbe gabiriarrak ahots taldeentzat konposatutako obrak kontzertu batean abestu zituen Astigarragako Eragiyok koruak, Donostian.
17
Errezil sagarraren 22. eguna ospatu zen. Errezil lehiaketan (15 partaide), sarituak 1. Xabier Arratibel (Otsategi), 2. Pake Galdos (Etxeberritxo) eta 3. Joxe Antonio Elosegi (Oñatibitxiki). Menbrillutan (10), Nekane Agirre (Landaberri) irabazle. Goierri Beheko 26. Ezti Lehiaketan (9) 1. Juan Elgarresta gabiriarra (Astiazaran), 2. Ageda Zeberio (Segura), 3. Beñat Elortza (Segura). Jendetza ibili zen, eta parte hartzea oparoa. Azokan, 10 baserrik jarri zituzten postuak, eta herriko lau artisauk.
17
Ormaiztegiko I. Raid zaldi proba Gabiriako lurretatik igaro zen.
19
Goierriko landa garapenari buruzko hausnarketa bilera edo saio bat egin zuten, Gabirian, Goimenek antolatuta.
20
Gabirizar Handi baserrian lapurreta egiten saiatu ziren.
23
Gipuzkoako taldekako bola txapelketaren finala Gabirian jokatu zen, gizonezkoen lau eta emakumezkoen bi talderen artean. Urmia (Ereñotzu) eta Ategorrieta txapeldun.
24
Goruntz dantza taldeak Ormaiztegin saioa egin zuen.
27
Izarraundi baserriko Juan Murua Garinek 100 urte bete zituen.
29
Kepa Ormazabal Galdos txirrindularia 2025ean amateur mailan korrituko duen Euskadi Fundazioaren taldean aurkeztu zuten. 23 urtez azpikoen Euskaltel-Euskadiren harrobiko taldean ariko da.
30
Bertso bazkaria egin zuten Osinalde elkartean (110 lagun), Julio Soto eta Iker Zubeldia bertsolariekin.
30
Ardiki jan bazkari berezia egin zuten Aztiriko erretegian.
30
Astiazarango Juan Elgarrestak irabazi zuen, Usurbilen, Euskal Herriko Ezti Txapelketa, milaloreen sailean.
30
Eibarko 44. San Andres feria berezian Baztarrikak gazta lehiaketan eta Oñatibitxiki baserriko Jose Antonio Elosegik fruta lehiaketan lehenengo sariak irabazi zituzten.

2024-11-9 Izar Gaztañazatorre pilotaria Hernanin

2024-11-17 Errezil sagar eguna –Aimar Maiz

2024-11-24 Goruntz Ormaiztegin –GITB

2024-11-27 Juan Murua Garin 100 urtekoa familiarekin

2024-11-30 Juan Elgarresta Euskal Herriko milalore eztietan txapeldun Usurbilen –Noaua

2024-12-20 Aztiriko mus txapelketa

2024-12-24 Aztiriarrak gabon eskean

2024-12-31 Urtezaharreko bola tiraldia –Aimar Maiz

ABENDUA

3
Euskararen Eguna ospatzeko, Haritz Garmendiak *Erdaldun berrien portaera elektorala* hitzaldia eta Janire Arantzabe *Esanezin* bakarlari altzagarrak kontzertua egin zituzten, Ostatuan.

3
Oñatibitxiki baserriko Jose Antonio Elosegi Beasaingo astearteroko azokara joaten hasi zen.

4
Gabiriako Udalak Kalbariota 6. AIU eremuko birzatiketa onartu izanaren iragarkia argitaratu zuen GAO aldizkari ofizialean.

8
Luzio Gabiria gabiriar zenaren omenezko 37. Bertso Jaialdia egin zuten, Zumarragan.

9
Renferen Aldirietako tren bat trenbidetik atera zen, euriteen ondorioz etorritako luizi bat zapalduta. Konboiaren hainbat ardatz atera ziren errailetatik. Trenean 20 lagun zihoazen, 18 bidaiari eta bi makinista, baina inork ez zuen minik hartu. Zumarragatik 12:57an irtenda beherantz zihoan trena, eta Gabiriako geralekuaren aurreko tunel irteeran izan zuen tupustekoa.

11
Udalbatzak 2025eko udal aurrekontua onartu zuen, 1.094.200 eurokoa, ohiko osoko bilkuran.

11
Igeribar Azpikoa baserriko Sagaspe okindegikoek 2024ko azken egunean baserriko ogia egiteari utziko ziotela iragarri zuten. 1979an hasi ziren Rosario eta Jexux Zaldua anai-arreben gurasoak.

12
Amelia Jauregi Pikasarri artzain eta baserritar gabiriarraren testigantzak eta ekarpenak dituen Mamia. *Esentzia* liburua aurkeztu zuten, Donostian.

13
Baserritarrek bost sari lortu zituzten Urretxuko eta Zumarragako Santa Lutzi ferian: Oñatibitxikikoek hiru (frutarekin bi, errezilekin bat), Izarraundik bat (errezila) eta Altolagirregarakoa-Gorostartzugarakoko Ander Izagirre Antiak bat (haragitako behorrekin).

14
Gabon argi berriak piztu zituzten, iluntzean, plazako haritz batean eta Kalerdi pareko pinuan.

15
Balentzategi herri eskolako haurrak Olentzero eta Maridomingi ikustera joan ziren, Zeraingo Aizpee meatzegunera.

16
Auto batek su hartu zuen, goizean goiz, Frontoiazpi kalean, eta suhiltzaileek itzali zuten.

16
Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2025eko horma egutegia banatu zuten, herriko plazan.

17
Zuazola Azpikoa baserriko sukalde zaharreko beheko suaren tximiniak su hartu zuen, iluntzean, eta Madariagagoeneko anaiek traktore-zisternarekin eta suhiltzaileek itzali zuten.

19
Secundino Esnaola Musika Eskolako herriko ikasleek Gabonetako kontzertua egin zuten, saloian.

20
Aztiriko Erretegiko 28. Mus Txapelketa jokatu zen (37 bikote). 1. Aitor eta Javi, 2. Gabi eta Manu, 3. Xabat Goikoetxea eta Iñakitxo Zabaletakoa aztiriarrak, 4. Jokin eta Eñaut.

21
Goruntz dantza taldeak tradiziozko txistor jana egin zuen.

21
Oñatibitxiki baserriko Aitor Elosegik fruta lehiaketan 2. saria irabazi zuen, Donostiako San Tomas ferian.

22
Espainiako Gabonetako Loterian 5. sariaren zati bat egokitu zitzaien zenbait gabiriarri, Beasainen erositako 74778 zenbakidun txartelekin.

24
Gabon egunean, etxez etxe eskean ibili ziren lau talde: eskolako haurrena, Osinalde elkartekoa, Aztiriko taldea eta Izarraundiko sendikoak.

24
Presentzia handia izan zuten gabiriar baserritarrek Ordiziako Eguberrietako azoka berezian: Izarraundiko Gabino Murua eta Oñatibitxikiko Jose Antonio Elosegi sagar saltzen postuetan, Baztarrikako ardiak erakusgai, eta Idiazabal Gaztarekin 2024an nazioartean saritu izanagatik omendu zituzten Baztarrika eta Eneko Goiburu Murua (Ondarre).

25
Eguberrietako meza eman zuten, elizan.

26
Luizia etorri zen beheko errepidera, Eguzkitzatik beherago.

26
Gabiriar jatorriko Naxara Odriozola Lekuona txirrindulari beasaindarrak Beasain Kirol Sari bat jaso zuen.

28
Negualdiko aurreneko izotza egin zuen.

28
Meategietako errepidea garbitzeko auzolana egin zuten, hamabi herritarrek.

28
I. Sasifrontenis txapelketa jokatu zen, Alkainburu frontoian egun osoan (22 lagun, 11 bikotetan). 1. Eresti Oiarbide eta Julen Sagarna, 2. Iñaki Rezusta *Txasio* eta Eneko Aramendi.

28
Oñatibitxikik 2. saria irabazi zuen Elgoibarko Gabon Zahar ferian, fruta lehiaketan.

31
Urtea 12 langabeturekin amaitu zen herrian (urtarrilean baino 2 gehiago).

31
Korrikalari herritar ugari irten ziren Beasaingo, Lazkaoko, Legazpiko eta Zegamako San Silvestre krosetan.

31
Urtezaharreko bola tiraldia jokatu zen (34 partaide), eta tiraldia Gorka Maizek (25) irabazi zuen.

31
Hondakin bilketa datuak 2024an herrian. Guztira bildutako hondakinak: 127.639 kilo. Birtziklatzeko bereiziak: 103.599 kg (%81), erraustegira 24.041 kg (%19). Birtziklaezinak: errefusa 22.360 kg (%17,5), etxetresna birziklaezinak 1.681 kg (%1,3). Bereizita jasoak: Beira 25.170 kg (%19,7), papera eta kartoia 9.840 kg (%7,7), ontzi arinak 22.300 kg (%17,5), biohondakina 23.480 kg (%18,4), inausketa eta lorazaintza hondarrak 15.080 kg (%11,8), egurrezko altzariak 3.711 kg (%2,9), tresna elektrikoak eta elektronikoak 1.653 kg (%1,3), arropa zaharrak 1.780 kg (%1,4), pilak 95 kg (%0,1), sukaldeko olioa 257 kg (%0,2), kafe kapsulak 233 kg (%0,2).

31
Errolda datua: 521 lagun zeuden erroldatuta herrian, 2024ko lehen egunean baino 4 gehiago (%0,77ko igoera). Urtean zehar, herrian 9 heriotza eta jaiotza 1 izan ziren; bizitzera 34 lagun etorri ziren, eta kanpora joanda baja 22 lagunek eman zuten.

2024an HILDAKOAK

_ Urtarrilak 6.
Maria Jesus Agirre Mendizabal, 95 urterekin, Etxetxo baserrian jaio eta Zabaleta baserrian (Aztiria) bizi zena.

_ Urtarrilak 26.
Pakita Morea Balda, 76 urterekin, Altolagirreazpikoa baserrikoa.

_ Otsailak 11.
Felipa Arruebarrena Lekuona, 92 urterekin, Donostian. Aunditegi-Errotan jaioa.

_ Otsailak 17.
Dominica Urbiztondo Uria, 97 urterekin, Mutiloako Kortzu Erdikoa baserrian. Arroaga baserrian jaioa.

_ Martxoak 4.
Eduardo Atin Altolagirre, 99 urterekin, Altzibar baserrian.

_ Martxoak 21.
Irene Andola Artsuaga, 89 urterekin, Seguran. Errotaberri baserrikoa.

_ Apirilak 26.
Ana Mari Urteaga Mujika, 88 urterekin, Gorostartzuazpikoa baserrian.

_ Maiatzak 2.
Maria Txintxurreta Gastesi, 95 urterekin, Zizur Txikian (Nafarroa), Txoko etxekoa.

_ Maiatzak 14.
Inixio Goia Telleria, 89 urterekin, Itzaitegi baserrian.

_ Maiatzak 18.
Begoña Soraluze Zelaia, 77 urterekin, Donostian. Zuazola Azpikoa baserrian jaioa.

_ Maiatzak 31.
Pia Alustiza Lekuona, 93 urterekin, Gure Txoko Maitea etxean (Landeta).

_ Ekainak 26.
Gregoria Gorrotxategi Mendizabal, Elgoibarren, Kaxeta etxean bizi izandakoa.

_ Uztailak 7.
Aitor Mujika Irizar, 53 urterekin, Zumarragan, Noare baserriko jatorrikoa eta Ostatuan lan egina.

_ Uztailak 14.
Pakita Galdos Idiazabal, 93 urterekin, Izar Erdikoa baserrian. Etxeberritxon jaioa.

_ Uztailak 16.
Joxe Mari Gabiria Pikasarri, 69 urterekin, Zumarragan. Gabiriar jatorrikoa.

_ Uztailak 19.
Joxe Mari Antia Rouet, 83 urterekin, Altolagirregarakoa baserrian.

_ Abuztuak 19.
Txomin Murgiondo Lasa, 95 urterekin, Etxeberribengoa baserrian.

_ Azaroak 26.
Sebastiana Azarola Urbieta, 96 urterekin, Tolosan, Errotaberri baserrian jaioa eta Araneaundi baserrian bizi izandakoa.

_ Abenduak 3.
Mari Cruz Egiguren Badiola, 77 urterekin, Salbatore auzoan (Beasain). Errotaetxe baserrian jaioa.

_ Abenduak 3.
Ignacia Txintxurreta Gastesi, 101 urterekin, Iruñean. Udaletxean jaioa eta Txoko etxean bizi izandakoa.

_ Abenduak 15.
Joxe Mari Mujika Murua Noare, 78 urterekin, *Noare* Zaharra baserrian.

_ Abenduak 25.
Emilio Odriozola Apaolaza, 87 urterekin, Salbatore auzoan (Beasain), Gabiriarekin lotura zuen.

_ Abenduak 25.
Rosa Mari Izuzkitza Goia, 82 urterekin, Ordizian. Jauregin jaioa.

AIMAR MAIZ MOREA

GABIRIAR BERRIAK

Imanol Intza Gisasola

Zer dela eta Gabiria?
Maialen izan da ni hona etortzearen erruduna.

Bertara etorri aurretik ba al zenuen Gabiriaren arrastorik? Non kokatzen zen, nolakoa zen, bertako bereizgarriak…?
Bai, banuen Gabiriaren berri. Nire birramona gabiriarra zen eta ezagutzen nituen bazterrak. Bertako festetara ere urtero hurbiltzen nintzen.

Nolako giroa topatu duzu? Nolako jendea aurkitu duzu bertan?
Giro atsegina dago bertan, jende gazte ugari dago eta oso ondo hartu naute.

Zer gauza on du Gabiriak? Gustuko tokiren bat?
Lasaitasuna. Hala ere, elizako gaueko kanpai hotsetara ohitzea kosta zitzaidan. Gustokoa, bertako parajeak, alde batean Aizkorri eta bestean Txindoki.

Zerbait falta zaiola esatekotan, zer izango litzateke?
Paseatzeko toki lau bat, edonora abitu eta aldapa besterik ez dago eta.

Aitor Yurrita Zabala eta Oihana Salazar Badiola

Zer dela eta Gabiria?
Aitor: Lantokitik gertu zegoen baserri baten bila hasi, eta Gabirian azaldu zen aukera.
Oihana: Betidanik izan dut baserri edota landa-eremu batean bizitzeko gogoa. Pandemiaz geroztik, gure ametsa gauzatzeko eman beharreko pausuak ematen hasi ginen, eta, azkenean, Gabirian topatu dugu gure neurrira egokitzen den etxea.

Bertara etorri aurretik ba al zenuen Gabiriaren arrastorik? Non kokatzen zen, nolakoa zen, bertako bereizgarriak…?
A: Ni Ormaiztiarra izanik, Gabiria ezagutzen dut. Askotan etorri izan gara Gabiriara, festetan, Osinalde txapelketara, Leharrei lasterketara, ostatura... Lankide asko ere bertakoak dira. Gabiria beti egon da presente nire bizitzan. Gaztetan, berriz, soziedadera ere etortzen ginen.
O: Ni izatez lasartearra naiz, baina azken urteetan Ormaiztegin bizi izan naiz; beraz, Gabiria ezagutu ezagutzen nuen, nahiz eta Goierrira etorri arte ez nuen hemengo berri handirik.

Nolako giroa topatu duzu? Nolako jendea aurkitu duzu bertan?
A: Giro ona eta herri giro handia. Jende jator eta irekia topatu dut.
O: Benetako herri giroa dagoela esango nuke. Egia esan jendearen aldetik harrera ezin hobea jaso dugu. Jende eskuzabala aurkitu dugu. Adin tarte ezberdineko jendearen prestutasuna ikusi besterik ez dago edozein gauza antolatzen dela ere…

Zer gauza on du Gabiriak? Gustuko tokiren bat?
A: Herri giroa bikaina du herriak. Auzolana egiteko ohitura ere gauza ona da. Herriko kaskotik ikusten diren bistak zoragarriak dira.
O: Kokapen aparta du herriak. Mendiz inguratuta gaude naturarekin kontaktuan; lasaitasuna da nagusi, eta hori nik, behintzat, asko baloratzen dut gaur egun.

Zerbait falta zaiola esatekotan, zer izango litzateke?
A: Oraindik ez dut ezer faltan sumatu.
O: Garraio publikoaren maiztasuna ez da oso handia. Kotxearekiko menpekotasun handia dugu. Ordutegi zabalagoa eskertuko genukeela uste dut.

IRATI eta SAIOA ETXEZARRETA LARRAÑAGA

ELKARRIZKETA
JUANJO MORAL CIBRIAN
Vencer en tierra de espías eleberriaren idazlea

“Inori ezer esan gabe hasi nintzen nobela idazten”

“*Eleberri gabiriarra*” atera zuen iaz Juanjo Moral herritarrak (Legazpi, 1977), *Vencer en tierra de espías* (Estrella del Norte, 2024). Haren aita Juan Jose Moral Arnaizen txirrindulari garaia eta Gerra Hotza nahastu ditu, suspentseko kontakizun bizia osatzeko. 1975eko Bakearen Lasterketan –Ekialdeko Europa komunistako kirol ekitaldi garrantzitsuena– etapa bat irabazi zuen Moral aitak. John LeCarre nobelagile ingelesaren erara, suspentsea, espioitza-giroa eta nobela beltzaren fikziozko osagaiak erantsi dizkio gertakari historiko hari. 2025eko urtarrilaren 30ean Gabiriako kultur etxean aurkeztu zuen, Iker Etxezarretak lagunduta.

Legazpin jaio zen Juanjo Moral, 1977an. Jaio ziren, Jorge anaia bikia eta biak. Zumarragan, gurasoen etxeko obrak atzeratu zirelako jaio ziren Legazpin, osabaren etxean bizi izan baitziren hilabete batzuk. 1978 hasieran Zumarragara joan ziren. 2009tik bizi da Gabirian, familia osatuta.

Liburua atera zenuenetik aurkezpen batzuk egin dituzu.

Bai. Gu asko mugitu gara, baita editorialа ere. Zaragozako aurkezpena, adibidez, editorialak antolatu zuten. Bizikleta tailer, taberna eta klub sozial estiloko leku bat zen. Legazpin, Zumarragan, Beasainen, Jacan, eta Elkarren Gasteizko, Donostiako eta Bilboko dendetan ere aurkeztu dugu.

Zer iritzi jaso dituzu irakurleengandik?

Nik uste, jendeari Gerra Hotzaren eta kirolaren arteko nahasketa gustatzen zaiola. Fikzioa eta errealitatea nahasten dira. Nire asmoa, hasieratik, aitari omenalditxo bat egitea zen, eta hori ere gustatzen zaio jendeari. Nahiz eta liburua literatura den, aurkezpen guztietan pantaila batean aitaren argazkiak jartzen ditut, jendeak ikus dezan nobela hau nondik datorren. Kritika oso onak jaso ditut. Ez da txirrindularitza liburu bat, baina txirrindularitza-munduan harrera oso ona eduki du.

Aitak zer esan dizu?

Harrituta dago. Oso lotsatia da, eta ez du asko hitz egiten. Baina uste dut gustatu zaiola. Elkarrizketetan ez du ondo pasatzen, baina tira. Bere garaian bai, baina ia 50 urte batere eman gabe pasatu ditu, eta azken aldian dezente eman ditu. Liburua

irakurtzen hasi zen, baina uste dut ez zuela bukatu. Ez zidan espresuki ezer esan. Amak irakurri zuen, oniritzia eman zidan, eta ondo, gustatu zitzaion.

Fikzioa eta errealitatea nahastu dituzu, irakurleak erabakitzekotan zer den gauza bakoitza. Zuk nondik edan duzu gehiago?

Historia jaio zen aitaren garaipen horretatik. Espainiako selekzioarekin Bakearen Lasterketa korritzera joan ziren, lehenengo aldiz. Oso ondo joan zitzaien, nire aitak eta taldekide batek etapa bana irabazi zuten. Baina, zoritxarrez, estatu mailan ez zen notizia izan. Aldizkarietan eta egunkarietan, Marca eta horrelakoetan, agertu zen, baina agentziako albiste bezala, izkin batean eta txikian. 1975ean, artean Franco bizirik zegoen, ez zen herrialde komunisten oso laguna, eta ez zioten hots handia eman, nahiz eta garaipen oso inportantea izan.

Zuri nondik piztu zitzaizun ikertzeko harra?

Orain dela hamabost-bat urte hasi nintzen aitaren historia hori ikertzen, argazki edo material gehiago aurkitzen saiatzen. Azkenean, hainbeste informazio lortu nuen, zerbait egin behar zela erabaki bainuen. Liburu biografiko bat idazteko beste agian ez zen –niri gainera ez zaizkit horrelako liburuak gustatzen–. Bestetik, Gerra Hotzaren eta espioien literatura betidanik asko gustatu izan zait, fanatikoa naiz. Gai aproposa zen bi arloak nahasteko. Orain dela ia bost urte, igande gau batean erabaki nuen nobela hastea; ez idaztea, hastea baizik. Nobela izango zela garbi neukan.

Lehenengo obra duzu.

Bai, lehenengoa. Lehen, letretakoa edo zientzietakoa nintzen galdetzen zidatenean, erantzuten nuen zientzietakoa erabatekoa nintzela. Orain ere hala da. Azkenean, ingeniaria naiz, Irizarren lan egiten dut, baina horrelako liburuak asko irakurri ditut: Gerra Hotza, espioiak, Sobietar Batasuna… Oinarri hori baneukan. Inolako aspiraziorik gabe hasi nintzen idazten, baina pixkanaka ikusi nuen historiak interesgarriak zirela. Idazkera ere ondo ikusten nuen, nahiko ondo idazten nuela iruditzen zitzaidan. Bukatu nuenean, Nagore emazteari eman nion irakurtzeko, hark bakarrik zekien-eta idazten ari nintzela. Irakurzale amorratua da hura ere, eta uste dut irizpide oneko pertsona dela.

Zer epai eman zizun emazteak, zero irakurle modura?

Bukatu zuenean, “ez dago batere gaizki”, esan zidan. Argi. Orduan hasi nintzen ingurukoei zabaltzen; ordura arte, gurasoei ezer esan gabea nintzen, ezta anaia bikiari ere. Emazteak ondo zegoela esan zidanean, orduan eman nien eskuidatzia anaiari, amari, koinatuari eta lagun batzuei, lauzpabosti. Denek irakurri zuten. Ordurako, nukleo gogorra bukatuta neukan; gero, noski, zuzenketa prozesu bat egon da. Nire sparring-ak haiek izan ziren. Proposamenak eta zuzenketak egin zizkidaten.

Idazketa prozesuan zer moduz sentitu zinen?

Gustura. Nire lehenengo liburua zen, eta batzuetan erori nintzen Googlen begiratzeko tentazioan, idazketa prozesua nola den jakiteko. Indar askorekin hasten dela, pixkanaka beheraldiak etortzen direla, une batean utzi eta ziurrenik ez dela berriro hartzen… irakurri nuen. Nik horrelako krisirik ez nuen eduki. Liburu bat idazten hutsetik hasten bazara, prozesu oso luzea da. Nire kasuan, ordea, gaia eta tematika lehendik asko mamituta neukan, aztertuta, idazten hastea erabaki baino lehenagotik. Aitaren historiagatik.

Berak kontatuta, noski.

Beti esaten zigun karrera hura oso inportantea zela, txikitan kasu askorik egiten ez genion arren. Gero bai, konturatu nintzen hala zela. Alemanian, Polonian eta Txekoslovakia zeneko Txekian eta Eslovakian material pila bat aurkitu nuen. Karrera oso-oso inportantea zen. Nahiz eta Berlingo Harresia erori zen eta dokumentu asko galdu zen, gauza asko aurkitu nuen. Horrekin, buruan informazio mordoa neukan jada. Aitaren historiari buruzko nobela hirugarren batek idaztea ondo legokeela

pentsatzen nuen lehen. Baina, noski, inor ez zen agertzen. Horregatik erabaki nuen nik hartzea lan hori. Berriz diot, inongo aspiraziorik gabe. Elur bola handitu egin da, dezente handitu ere.

Ekialdean kirol maila aparta zen, zure aitak irabazi zuenean. Besteak beste, ezin zutelako profesional izendapena eduki.

Kanpotik, edozeinek esan dezake aitak irabazitako karrera amateurra zela, Segurako karrera bezala. Baina ez zeukan zerikusirik, beste historia bat zen. Garai hartan, mundua bitan banatuta zegoen; gure aldean, Mendebaldekoan, kategoria guztiak zeuden, profesionalak barne. Munduaren beste erdian, amateurrak ziren, baina praktikan hango gobernuek hemengoek baino diru gehiago gastatzen zuten kirolean, apustu handia egiten zuten kirolariak zaintzeko, Olinpiar Jokoetan eta halako ekitaldietan emaitza onak edukitzeko. Praktikan, profesionalak ziren. Aldiz, nire aita eta hemendik joandakoak benetako amateurrak ziren. Han irabaztea, orain hemengo amateur batek Frantziako Tourrean etapa bat irabaztea bezala zen.

Espero zenuen horrelako oihartzuna?

Ez, ez, inola ere ez. Anaiari esan nionean nobela idatzi nuela, harrituta gelditu zen. Berak esan zidan, egin genezakeen gauza bat zela sare sozialetan aitaren kontu bat ireki, eta argazkiak eta gauzak han jarri. Egunero hasi ginen zerbait igotzen. Aitaren argazkiak bukatu zirenean –asuntoa ez baita amaierarik gabea–, hasi ginen Ekialdeko ziklismoaren argazkiak-eta jartzen, garai hartakoak. Eta jarraitzaile piloa agertu dira, mundu guztikoak. Bideo batzuk badauzkagu karrera horretakoak bi milioi ikustaldi dauzkatenak. Sare sozialekin jarraitzea erabaki genuen, labea berotzeko, nobelak argia ikusten zuenerako jarraitzaile asko edukitzeko eta haren inputa sartzeko. Nik uste, horrek ondo funtzionatu duela. Euskal Herrian ere asko saldu da, hemen txirrindularitza sakratua da eta.

Liburuak badu ibilbiderik orain-dik?

Bai. Nire kasua berezia da, lehenengo liburua dudalako. Idazle ezagunen liburuen zikloak diferenteak dira: lehen hilabeteetan buru-belarri lantzen dute promozioa, orduan saltzen dituztelako ia liburu guztiak, eta gero beheratzen da. Nire kasuan alderantziz da: ni ez nau jendeak ezagutzen, eta aldapa gora jarraitua da. Gorenera ez da ailegatu, jendea oraindik ezagutzen ari delako. Promozio puntuak ahal den leku guztietan aurkitzen saiatu behar dugu. Prentsaren aldetik ez daukat kexarik. Denek oso harrera ona egin didate.

Nobela momentuz gaztelaniaz dago, baina editorialarekin hitz eginda daukagu Polonian, Txekian, Eslovakian eta Alemanian ateratzea. Herrialde horietan jarraitzaile gehiago edukiko lituzke. Aurten edo datorren urtean, agian, argitaletxeren bat aurkituko dugu eremu hartan. Gero, ikusiko dugu. Kontratuan sinatuta dago, behintzat.

Liburuan benetako tokiak aipatzen dituzu: Legazpi, Lazkao…

Hori fikzioaren eta errealitatearen arteko nahasketa da. Max Werner ez zen etorri Lazkaora, adibidez. Hori fikziozko pertsonaia da, eta pasartea ere nire historia bat da. Lazkaoko lankide batek, pandemia baino lehen Euskal Herriko Itzulian afari bat antolatzen zuen, Movistar taldeko auxiliarrekin. Ni beti gonbidatzen ninduen, Irizarren ziklisten autobusak diseinatzen nituelako, eta Movistarren autobusa nik diseinatua zelako. Afari hori urteko ohitura bihurtu zen, eta nobelan eskertu egin nahi nien. Mikel eta Jose Luis Moreira izenekin jarri nituen liburuan aita-semeak; horiek benetako bi pertsona errealak dira, Pereira abizenekoak. Kasu honetan, Espainiako garai hartako selekzioa jarri dut, Ramon Ibarburu hautatzaileak gonbidatuta.

Selekzionatzailea ere erreala da?

Mendiburu da berez. Oraindik bizi da, Donostian. Aitari, bere lagunei eta Ramon Mendibururi eta, batzuei izenak aldatzea erabaki nuen. Batez ere Ramonek nobelan gauza arraroak egin beharko zituelako, eta abizena aldatzea erabaki nuen, fikziokoa delako. Baina oso erraza da zein den jakitea. Nire aita Juan Jose Moral Arnaiz da berez, eta nobelan Juan Arnaiz. Ramon Mendiburu Ibarburu da kasualitatez, eta Ramon Ibarburu bihurtu dut pertsonaia.

Derrigorrezko galdera: jarraituko duzu idazten?

Ea. Lau urte igaro ditut nobela idazten. Nukleo gogorra idazten bi urte, gero zuzentzen eta argitaletxe bila beste bi… Lan gogorra da. Gustura aritu naiz, baina gogorra da. Noski, argitaletxerik gabe ez nuen planteatu ere egiten, baina argitaletxea atera zenean, liburua ondo joanez gero, ziur asko zer edo zer egingo nuela pentsatu nuen. Zorionez, liburua ondo doa, eta izan liteke. Ehuneko ehunean ez dut ziurtatzen, baina ehuneko laurogeian bai. Nire ideia Gerra Hotza zen, eta horrekin jarraitzea da asmoa. Kirola ikaragarri gustatzen zait, baina ez naiz aditua orain beste liburu bat idazteko. Ikusiko dugu. Oraindik ez naiz hasi, baina ideiak buruzatzen hasi zaizkit.

AIMAR MAIZ MOREA

EGIA ALA MITOA

Emaginek, haurdunaldi prozesuan eta erditze garaian laguntzen duten profesionalak izateaz gain, emakumeon kezkak eta arazoak tratatzen dituzte. Hainbat kezka bururatzen zaizkit eta ez zait pertsona egokiagorik iruditu duda guzti hauek argitzeko.

Maddi Aztiria Galdos emaginak azalduko digu ondorengo esaldiak zergatik diren egiak edota zergatik mitoak.

Gai izango al zarete zuek egiak identifikatzeko?

---

1. Erretzen duen emakume baten kasuan, haurdunaldian kontsumoa murriztea egokiagoa da, guztiz erretzeari uztea baino. Antsietatea areagotu baitezake.

MITOA.

Haurdunaldian zehar erretzeak konplikazioak jasateko arriskua areagotzen du; hala nola, erditze goiztiar bat (37 astea baino lehenago), aborto espontaneoak, umetoki barneko garapenean atzerapena eta plazentaren oxigeno trasmisio desegokia besteak beste. Beraz tabakoaren kontsumoa alde batera uztea gomendatzen da, baita erretzaile pasiboa izatea ere (ingurukoak erretzen ari diren espazioak konpartitzea) ikusi baita erretzeari guztiz uzteak haurdun geratu aurretik edo lehen hiruhilekoan arrisku horiek txikitzen dituela. Aldi berean, egia da antsietatearen areagotzea eman daitekeela deshabituazio honen ondorioz, baina lehen aipatu bezala onura eta kalteen balantzea baloratu behar da. Beraz, garrantzitsua izango da profesionalen aldetik esku hartu daitezkeen alderdiak kontuan hartzea, jarraipen espezifiko bat egitea eta euskarria bermatzea.

2. Gel intimoa egunero erabiltzea gomendatzen da. (Zein Ph?)

MITOA.

Mikrobiota bulbobaginala gure bizi etapa eta ohituren arabera asko aldatzen den aspektu bat da. Beraz, bai adinaren, ziklo hormonalaren, estres mailaren eta bizitzen ari garen prozesuaren arabera, jokatzeko era ere desberdina izango da. Berez, gure bagina bera bakarrik "garbitzen" den organoa da, beraz ez da gelik behar hura garbitzeko egunerokotasunean; gorputzean erabiltzen dugun gel tanta bat ezpain eta bulban erabiltzearekin nahikoa da, baina oso kantitate gutxian. Gertatzen dena da, kanpo aldeko genitaletan dagoen mikrobiota onuragarria gutxituta badago, irritazio sintomak agertu daitezkeela eta orduan beharrezkoa izango da produktu espezifikoago bat, berezko ph-a azidoa mantentzen lagunduko diguna (PH 3,8-4,2); hots, PH neutroko xaboia. Beraz baliteke, gaztaroan edozein xaboi erabili eta on egitea, antisorgailuekin hasi, erditze ondorengora edo perimenopausiara iristea eta xaboi mota berdinak irritazioa sortzea, gure mikrobiota alteratua dagoelako. Laburbilduz, komeni da prebentzioan zentratzea, ph neutroko xaboi bat erabiltzeaz gain, eguneroko ohitura osasuntsuak kontuan hartzea, hala nola, ahalik eta lurrin eta kolorante gutxien duten arropa garbitzeko detergenteak, algodoizko kuleroak, sintetikoak ez diren pijamak…erabiltzea besteak beste.

3.Jaten dugunak eta estres mailak baginako fluxuan eragina du.

EGIA.

Aurreko esaldian azaldu bezala, janariak ez horrenbeste baina estres mailak bai eragin dezakeela bulba edo baginako mikrobiotan; hala nola, baita fluxuaren ezaugarrietan (kantitatea, kolorea, konsistentzia, usaina…) irritazioa, bertakoak ez diren bakteriak edo onddoen agerpena erraztuz. Prebentzioa ezinbestekoa izango da aspektu honetan, ohitura aldaketekin batera, mikrobiota berreskuratzeko baginako probiotiko obuluek ere lagundu diezagukete berezko defentsa maila hori lortzen.

4. Hilerokorik gabe ezin zara haurdun geratu.

MITOA.

Hilerokoa obulazioa eta hormona jeitsieraren ondoren gertatzen den umetoki paretaren erorketa eta baginatik ateratzen den produktua da, guk odol modura ikusten duguna. Beraz, egia da, emakumeok normalean obulatu egiten dugula eta haurdunaldia ematen ez bada, hilerokoa jeisten zaigula.

Baina, batzuetan bagina bidezko odoljarioak beste jatorri bat izan dezake (miomak, polipoak) hilerokoa izan gabe eta alderantziz, hilerokoa izan gabe, gorputzak modu irregular batean obulatu dezake gu konturatu gabe.

Adibidez, erditze ondorengoan, bularra ematen duten emakumeak hilerokorik gabe egon daitezke lehen hilabeteetan, berdin menopausiara iristen ari diren emakumeak ere, ziklo irregularren ondorioz hilabeteak igaro ditzakete hilerokorik gabe, baina obulazioa aurrera eraman eta haurdun geratu daitezke bi kasuetan. Berdina gertatzen da, hurrengo eguneko pilula hartu ostean edo antisorgailua hartzea ahazten denean, pilulak sortutako alterazio hormonala dela eta odoljario irregular bat eman daiteke, baina jada obulazioa suertatu bada, haurdun geratu gaitezke.



5. Baginako erditzea, zesarea bat baino seguruagoa da. Horrez gain, onuragarriagoa da umearentzat.

EGIA.

Baginako erditze eutozikoa (instrumenturik erabili gabe), haurdunaldi eta erditze prozesu normal baten ondoren eman daitekeen amaierarik seguruena da, konplikaziorik gabe eta ama-haurra binomioa osasuntsu daudela bermatzen denean. Kasu horietan, espazio intimo baten bermatzea, errespetuzko tratua, euskarria eta beharrezko laguntza fisiko eta emozionalaz haratago, ez da beste interbenziorik behar izaten.

Baina gaur egun, aurrerakuntzak aurrerakuntza, hainbat faktorek haurdunaldia eta erditze prozesua konplexu bihurtu dezakete (patología anitzak, tratamentuak, guraso izateko adinaren atzerapenak…) berezko prozesu fisiologiko hau medikalizatuz.

Testuinguru horretan eta momentuko erditze prozesuaren konplexutasunak direla medio, baliteke haurdunaldia ahal bezain pronto amaitu behar izatea, bideragarria ez delako edota haurrak umetokitik kanpoko euskarria behar dezakeelako. Erditze prozesuaren etaparen arabera, jaiotzeko modua azkarragoa suertatu daiteke bagina bidez, intrumentu batez lagundurik edo bestela zesarea izeneko interbentzio kirurgiko baten bidez. Prozedura hauek ama zein haurraren ongizatea bermatze aldera prozedura seguruagoak direla baloratu direlako eramaten dira aurrera, erditze fisiologiko bat bideragarria ez dela baloratu ondoren.

Oraindik hobetzeko aspektu asko izanda ere, zesareak interbenzio kirurgiko ahalik eta gizatiarrenak bihurtzeko hainbat proiektu jarri dira martxan azken urteetan (azal-azaleko kontaktua bermatzen dutenak, bikotekidearen presentzia kirofanoan, jaio bezain pronto edoskitzearen finkapena kirofanoan …) beraz, kasuak kasu, baginako erditzea seguruagoa izanda ere, zesareak beharrezko prozesuak dira, baina beharrezkoa izango da ama zein haurraren eskubideak bermatzen direla bermatzea.

6. Menopausiak libidoa gutxitzea eragin dezake eta baginako fluxuaren lehortzea ere bai.

EGIA.

Menopausia emakumearen bizi etapako une bat bakarrik baino ez da, obulutegiak bere futnzioa guztiz bukatzen duen momentua zehazki eta urtebete hilerokorik gabe egon ondoren ematen diogu izen hori. Aurreko eta ondorengo hilabete edo urteetan zehar, perimenopausiaren etapa bizitzen ari garela esan daiteke. Aurreko urte horietan hormonen gora beherek obulutegia martxan jarraitzea ahalbidetzen dute, baina ez lehengo erritmo berean. Horregatik, obulutegiak denbora gehiago beharko du eta baita kantitate hormonal handiagoa ere, bere funtzioa egin ahal izateko; prozesu honen ondorio izango dira sentitzen diren irritabilitate, sofoko eta odoljario irregularrak. Hala ere, itzulezinak diren aldaketak gauzatzen hasiko dira eta pixkanaka gorputzak hormona maila jeitsiko du, libidoaren gutxitzea, baginaren pareten lehortzea eta fluxua gutxitzea eraginez besteak beste. Muturreko kasuetan, baginako pareten lodiera murriztu, fluxua guztiz desagertu, ezpainak atrofiatu edo fusionatu eta baginaren sarrera txikitu daiteke, egunerokotasunean berebiziko arazoak sortuz; zauriak lehortasunaren ondorioz, erlazio sexualak mantentzeko ezintasuna, infezkioen agerpena … Eragin batzuk ohikoak eta bizi etapa honen zati baldin badira ere, konzientzia garatzea eta euskarria ezinbestekoa izango dira, emakume bakoitzak prozesua bizitzeko modua eta tolerantzia desberdina izan daitekeelako.



7. Haurdun banago eta ez badut haurdunaldiarekin aurrera jarraitu nahi, emaginarengana joan behar dut.

EGIA.

Behin espermatozoidea eta obulua elkartu eta umetokian ezarri direnean, haurdunaldia amaitzeko prozedura klinikoa burutzea legala da hilerokoa izan eta 14. astera arte gaur egun Espainiar estatuan. Behin erabakia hartuta, Osakidetzak finantziatuko du prozedura eta emaginaren bitartez bideratuko da, klinika kontzertatu batean aurrera eramateko. Beraz, nahikoa izango da zuzenean emaginarekin txanda eskatzea, 16 urtetik gorakoa izanda, gurasoen baimena beharrezkoa izan gabe. Informazioa, babesa eta zalantzen aurrean erantzuna izateko eskubidea emakume guztiona da eta emaginon betebeharra hura bermatzea da, intimitatea eta konfidentzialtasuna mantenduz.

8. Antisorgailuen erabilpenari buruzko informazioa edo hauetako bat erabiltzen hasi nahi badut, emaginarengana jo behar dut.

EGIA.

Emaginon beste funtzioetako bat antisorgailuen erabilpenarekin hasteko gomendioak ematea da; hala nola, emakume bakoitzaren aurrekari, ohitura sexual eta bizitzako etapa kontuan hartuta egokienak zaizkion metodoak baloratu eta erabaki bat hartzen laguntzea. Gaur egun, ez dago gure konpetentzien barruan antikontzeptiboak ezarri edo preskribatzeko ahalmena, beraz behin aukeraketa egin ondoren ginekologoak baieztatu behar izaten du aukeratutako antisorgailu mota, metodoarekin aurrera egiteko. Aukeraturiko metodoarekiko gogobetetasuna, tolerantzia eta kontrolaren jarraipena ere emagina eta ginekologoaren bidez kudeatzen dira, osasun zentroaren arabera.

Konturatuko zineten bezala, esaldi guztiak ez dira mitoak ala egiak, beti egon daiteke mito edo egia zatiren bat bakoitzean. Hala eta guztiz ere, lagungarri egingo zitzaizkizuela espero dut.

LEIRE MURUA LÓPEZ

ZUAZOLA ETA MADARIAGA AUZOAK

Iaz Ugarana auzoetan barna ibili ostean, aurten Zuazola eta Madariaga auzoetan barneratuko gara. Bi auzook, Ugarana auzoan ez bezala, auzoari izena ematen dioten baserriak dituzte: Zuazola Azpikoa, Zuazola Garakoa, Madariaga, Madariaga Goena, Madariaga Erdikoa eta Madariaga Barrena.

Zuazola Auzoa

Hasteko, aipagarria da lehendabizi landuko dugun auzoaren izen ofiziala Zuazola bada ere, inguruko bizilagun batzuek Txakilikuatro ere deitzen diotela. Jarraitzeko, Zuazola auzoa Zuazola baserriekin lotzen badugu ere, lurrez pentsa genezakeena baino handiagoa da. Gabiriako gunea bukatu bezain laster hasten da Zuazola auzoa. Izan ere, kaskoaren aldamenean dagoen Arroaga baserria, oraintxe berritua, eta Artzain, gaur egun erorita, Zuazola auzoaren parte dira. Hortik hasita bidegurutzera arte, sakabanaturiko hiru baserri egon dira: Etxeberri-Bizkai, Izagirre Haundi eta Izagirre Txiki (azken bi horiei ahoz Izar Haundi eta Izar Txiki esaten zaie eta jarraian hala izendatuko ditugu). Izar Txikin aipagarria da garai batean denda egon zela, eta aldamenean pentsua saltzen zela. Inguruan etxe berriak eraiki dituzte: Izar Alde, Izar Buru, Izar Eder eta Goiz Eder.

Behin bidegurutzera iritsita, Kamiñogurutze etxearekin egingo dugu topo, eta parean Arrondo etxe eta enpresarekin. Arrondo enpresa 1935. urtean sortu zuen Juan Joxe Arrondok arotz-lan artisauak eta hilkutxak egiteko. 1950eko hamarkadan bigarren belaunaldia sartu eta parketak eta tarimak egiten hasi ziren. 1977. urtean sortu zen "Pavimentos Arrondo" eta zurezko lurzoruen erreferentea bilakatu zen. Gabirian bertan lantzen zuen prozesu guztia; Afrikatik eta Brasildik egur-enborrak ekartzen ezagutu ditugu, Pasaiaraino itsasontziz eta handik trailerretan; 3 enbor nahikoak izaten ziren horiek betetzeko. Bitxikeria modura, elizako aulki guztiak enbor batetik ateratakoak omen dira. Hori horrela, pentsa nolakoak izaten ziren! 1999. urtearen inguruan hirugarren belaunaldiak "Instalaciones Aztiria " enpresa paraleloa sortu zuen zerbitzua zabaldu eta erantzun integralagoa emateko eraikuntza arloan batik bat. Zura-rekin batera Arrondo taldea sortu zen egungo beharrei erantzuteko. Bulegoak eta tailerrak Gabirian badaude ere, Gasteizen badute erakusketa eta biltegia, eta Zura lantegia Seguran. Gabirian 2. sektoreari dagokionez enpresa garrantzitsuenetakoa izan da eta da gaur egun.

Ormaiztegitik Legazpira doan bidean ezker-eskuin auzoan jarraituko dugu. Ormaiztegi aldera eginez gero, Sindikatoa ikusiko dugu. Etxe honek funtzio berezia izan zuen Gabiriako baserritarrentzat. Baserritarren arteko elkarlaguntzak eredu desberdinak izan ditu denboran zehar. Batzuk orain arte mantendu dira, auzolana esate baterako; beste batzuk, aldiz, une jakin batzuetan azaldu ondoren, desagertu egin dira gizarte eta ekonomiaren aldaketen ondorioz. Hori gertatu da baserritarren elkarteei dagokienez.

XX. mende hasieran, elkarte horiek indar handia hartu zuten, Eliza katolikoak eta erakunde publikoek bultzatuta; baina zituzten helburuak eta egitura ez ziren guztietan berdinak. Alde batetik ditugu aseguru funtzioa betetzen zutenak, ezbehar bat gertatzen zenean kaltetuei laguntzeko. Baserria errez gero, guk dakigula, Gabirian bi elkarte zeuden kalteak ordaintzen laguntzeko. Beste bat, San Isidro ermandadea, abereak aseguratzeaz arduratzen zen. Elkarte horiek ez zuten egoitza propiorik eta unean uneko arduradunaren etxean gordetzen ziren elkartearen agiriak. Mende hasieran, beste erakunde bat sortu zen: Alkartasuna sindikatua, Gipuzkoa osoan zabaldutako eredua eta izena hartuta. Nekazaritzaren eta abeltzaintzaren hobekuntzak zituen helburu, eta horretarako, besteak beste, denda bat jarri zuten Sindikato izeneko eraikinean, hain zuzen. Horrez gain, beste denda bat ireki zuten Alegia auzoan, Itsaso aldean. Sindikatoan, nekazaritzarako beharrezkoak ziren era guztietako tresnak eta gaiak eskaintzen zizkieten bazkideei, bereziki pentsuak, haziak eta lanabesak, bai eta etxerako elikagaiak ere.

Errepublikako urteetan, Alkartasuna sindikatuen inguruan hasieran, baina haien aurka geroago, Euzko Nekazari Bazkuna sortu zen. Baserritarren bizimodua duintzea zen helburu garrantzitsuena, eta hori lortzeko, maizterrak baserri-jabe bilakatzea. Gabiriako kasuan, elkarte berriak harremana izan zuen Alkartasuna sindikatuarekin eta dendak martxan jarraitu zuen. Gerra Zibilaren ostean, ordea, ENB desegin egin zuten agintari frankistek eta, beste alde batetik, herriaren eraldaketa ekonomikoaren ondorioz, sindikatuaren dendak bere funtzioa galdu zuen eta desagertu egin zen. Alegiako sindikatoa iaz zabaldu zuten berriz ere.

Sindikatoa atzean utzita, Irubideraino joan beharko dugu auzoko Bidaurreta baserrira eta Edersalera iristeko. Bidaurreta baserrian 67 urte ziren umerik jaiotzen ez zela, eta aurten umea jaio da bertan. Bestetik, Bidaurreta izenak berak erakusten du garai batean baserriaren beheko aldean dagoen bideak izango zuen garrantzia. Edersal izenez ezagutzen den eraikinak ere badu historia. Hasieran, 1867an bainuetxea eraiki zuten eta 1904. urtean utzi zuen zerbitzu hori. Oraindik badaude horren zenbait arrasto: ur beltza, bainuontzia… Ondoren, 1907tik 1966ra Aita Pasiotarren komentua eta ikastetxea izan zen. Lourdesko amaren leizetxoak jarraitzen du bide ertzean horren lekuko. Jarraian Edersal lantegi bilakatu zen, bertan egiten ziren "kristal mosaikoak edo gresite baldosatxoak" igerileku eta etxeen fatxadetarako.

Sindikato etxea gaur egun.
Egilea: Ane Miren Aizpuru

Edersal enpresa gaur egun.
Egilea: Gillen Martinez de Lahidalga

Kamiñogurutzan, parez pare jaisten den bidea ikusiko dugu, eta bertatik auzoko beheko aldera iritsiko gara. Erreka ondoan izanda, ez da harritzekoa inguru horretan errota askoren testigantzekin topo egitea. Batetik, Uharketa eta Errota Berri daude, eta bestetik, galduta dagoen garai bateko Igaraeta errota (ikus Goiberriko 2023ko otsailaren 20an argitaratutako erroten inguruko albistea gehiago jakin nahi izanez gero), eta Etxeberritxo baserria. Errekatik berriro goraka itzuliz, Oñatibi Haundi eta Txiki baserriak ikusiko ditugu. Aipatzekoa da Oñatibi Txiki baserria, izan ere, Gabirian lehen sektoreari, eta batez ere frutari dagokionez, herrietako ferietako salmentarako eusten dion gutxietako bat baita.

Hortik gora, bidegurutzean Legazpira doan bidea hartuz gero, deigarri egiten diren Arrondoko zerrategia eta Kortako ingurua ikusiko ditugu segituan. Korta jatetxea Gabiriako lurretan dauden hiru jatetxeetako bat da, eta aparkalekua kotxez beteta egoten da asteburuetan. 1988ko otsailean ireki zuten jatetxea, eta pixkanaka jangelak handituz joan da. Jatetxea itsaskitegia eta sagardotegia ere izan da. Korta jatetxearen izena da, baina baserriaren izena Zuazola Azpikoa da, bi etxebizitzakoa da eta hirugarrena erantsi zioten: Xuxula Berri. Auzo honetan, ermita berritu zen eta San Lorentzo eguna ospatzen da abuztuaren 10ean. Eremu txikian, hiru sektoreetako adibideak dauzkagu parez pare.

Hiru sektoreak bizirik batera erakusten dituen hirukia.
Egilea: Ane Miren Aizpuru

Legazpira bidean pixka bat aurrera eginda, Zuazola Garakoa baserrira iritsiko gara, eta hortik aurrera Madariaga auzoko lurretan sartuko gara. Bide hau garrantzitsua izan zen Oñatirekin komunikatzeko eta baditu bera izendatzeko bi deitura: gabiriarrentzat "kamino zaharra", legazpiarrentzat "camino real edo errege bidea". Gaurko gazte askok berriz, udaberri hasieran egiten den Rally sprintagatik dute ezaguna eta horren ondorioz ezagutzen dute Gabiria. Beste hainbatek, berriz, bizikletaz ibiltzeko edota txirrindulari lasterketak pasatzen direlako.

Madariaga Auzoa

Madariaga auzoa ere lurrez zabala da. Auzoa deskribatzeko, Legazpira doan bidean aurrera eginez hasiko gara eta kaskoan bukatuko dugu. Hala, Zuazola Garakoa atzean utzi eta Mandiola baserriarekin egingo dugu topo lehendabizi.

Bidearen goiko aldean dagoen Mandiola Zaharretik gora egiten badugu, Irizar Goena, Irizar Erdikoa eta Irizar Barrena baserrietara iritsiko gara (hauek ere ahoz "Izar" gisa ezagutzen dira, eta jarraian hala aipatuko ditugu). Garai batean, baserritar asko ibili izan zen esne-saltzaile etxez etxe esnea saltzen Ormaiztegi, Zumarraga, Urretxu eta Legazpin. Tartean ziren Izar Erdikoak, Zuazola Azpikoak, Oñatibi Haundikoak eta Izar Haundikoak besteak beste, izan norbere baserriko behien esnearekin, edo inguruko baserrietakoei erositа. Gaur egun, gehien bat haragitarako behiak ikusiko ditugu Gabiriako larreetan, etxerako eta inguruko harategietan saltzeko hazten dituztenak.

Izar Erdi eta Izar Barrena baserriak eta inguruko behiak.
Egilea: Ane Miren Aizpuru

Legazpira doan bidean nabarmen aurrera eginez gero, Legazpirekin mugan dauden Gabiriako Irazola eta Atagoiti baserrietara iritsiko gara, eskuinerantz eginda lehenengora, eta aurrera jarraituta mendate gainean bigarrenera. Bi horietako artzainak, Andres eta "Txantxangorri" ezagunak dira uda garaian Urbian egindako egonaldiengatik. Bidean, Itur Gorri ikusteko aukera izango dugu, metal ura duen iturria. Garai batean bertatik ekartzen zen ura Gabiriako gunera.

Zuazola auzora bueltan ezkerretara dagoen bidea hartzen badugu, auzoari izena ematen dioten Madariaga Barrena, Madariaga Erdikoa (Maerdi izenez ezaguna), Madariaga Goena eta Madariaga baserrietara iritsiko gara. Lurra mugitzeko makinaria ugari dituzte inguruan "Gabiria exkabazioetako" Amondarain anaiek. "Muttei anaiek" bezala ezagunak badira ere, berak ez dira Muntegin bizi, bai ordea haien arbasoak. Muntegi baserrira Madariaga baserri ingurutik gertu dago, kaskotik pixka bat urrunduta. Muntegi baserriak armarri txiki bat du etxe aurrean. Hortik gertu dago, halaber, Eizmendi baserria. Aurrera jarraituz gero, Trapalata eta Pagoeder mendietara iritsiko gara. Inguruan dira Legazpi, Zumarraga eta Ezkioko mugak.

Muntegi baserria.
Egilea: Ane Miren Aizpuru

Madariaga auzoa zeharkatzen duen bidea ibilaldiak egiteko aproposa da. Paisaia ederraz gain, inguruko zelaietan hainbat arrazatako abere ugari ikus ditzakegu larrean. Eta ikusi izan ditugu ahariak eta idiak paseoan beren probetarako prestatzen ere. Madariaga baserriak dauden ingurutik Gabiriako gunera doan bidea hartzen badugu, hainbat baserri ikusiko ditugu. Tartean daude Noare eta Noareetxeberri baserriak. Momentu honetan, inguruan baserrian bertan bizi den bizilagun asko ez dagoen arren, lehen sektoreak presentzia handia du, eta lan hori aurrera eramateko eguneroko bisita beharrezkoa izaten dute lurra zaindu eta abereak hazteko. Aurrerago Otsategi baserria ikusiko dugu eskuin aldean eta Gabiriako Murgil mendi ezaguna ezker aldean. Zelai hauetan eta ingurukoetan, uda Urbian pasatzen duten artaldeak ibili izan dira larrean, gertuko herrietakoak eta baita Araba aldekoak ere.

Muntegi ingurutik ikusten diren Madariaga auzoko zelaiak.
Egilea: Iñaki Larrañaga

Ardantzan, eskuineko aldera sartzen den bidea hartuta Eiz etxera iritsiko ginateke. Eiz inguruan San Migel ermita egon omen zen, egun galduta badago ere. Bidearen ezker aldean Murgilera igotzeko bidea dugu eta eserlekuen artean 1936ko gerra zibilean parte hartu zuten gabiriarrei egindako omenaldi-oroigarria dago. Gain honetatik inguruetara begiratuta, Gabiriako gainerako auzoetako txokoren bat ikusi ahalko dugu, baita Ezkio eta Itsaso ere. Azken bidegurutze honetatik, berehala iritsiko gara Gabiriako gunera.

ANE MIREN AIZPURU MURUA
GUILLEN MARTINEZ DE LAHIDALGA MALLA

ARITZ IRIARTE LEACHE
(Gabiria, 2004) Alkain Baserria.

“Lagun bat galtzen baduzu trans-a izateagatik, arazoa bestearena da, ez norberarena”

Naizen Elkarteak 10 urte bete ditu 2025eko urtarrilean. Urteurren hori baliatuz, Alkain baserriko Aritz Iriarte Leacheren (Gabiria, 2004) transtsizio prozesua gertuagotik ezagutzeko aukera probestu nahi izan dugu. Gaur egun Mondragon unibertsitatean LEINN ikasketak burutzen ari da. Bidaia baten atarian hartu dugu elkarrizketa hau egiteko tartea.

Naizen Elkarteak telebistako iragarki batean egin zuen moduan galdetuz ekingo diogu elkarrizketari; nor zara zu?

Aritz Iriarte naiz, mutil transexual bat. Nire prozesuaren bidez sortu dut nire identitatea baina esango nuke azaleratu egin dudala nortasun hori, betidanik izan baitut identitate berbera. Orain esan dezaket lortu dudala hori azaltzea eta gaur egun pozik nagoela nagoen bezala. Prozesu honetan asko ikasi badut ere, txikitatik nekien.

Askotan egokitzen zaizu azalpenak eman behar izatea?

Prozesuan zehar korapilatsuagoa da, baina beti dago azalpenak eman beharreko momenturen bat. Zure fisikoa aldatu ohi da, baina esaterako parrandan irtetzean edota erakundeetan nortasun agiria eskatzen dizutenean, zuri dagokizun adina baino gaztexeago dirudizu, gerta liteke jendeak ez jakitea argi zer generotakoa zaren. Bizarrik gabe genero femeninoan zuzentzen zitzaizkidan, orain bizarrarekin ez dago zalantzarik. Presio sozial hori badago, “akaso bizarra utzi beharko nuke mutila naizela nabaritu dadin...”. Egunerokotasunean orain askoz azalpen gutxiago ematen ditut, baina sarritan naturalki ateratzen da: mutil transa naiz, ez dirudi adin hori daukadanik...

Azalpenak eman beharra nola bizi duzu?

Harro. Ez dut ezkutatzen, baina egia da askotan beldurrez ekiten diodala. Ez da jakiten inoiz zein iruzkin jasoko duzun, ondoren berdin tratatuko ote zaituzten, baina erantzun desegokiren bat jasoz gero, beti pentsatu izan dut arazoa nirea baino, bestearena dela.

Gai batzuk beste batzuk baino errazagoak dira solaserako. Transexualitatea tabu ote da oraindik?

Akaso ez da tabu, baina badirudi adin batetik aurrera jorratzen den gaia dela. Haurrekin edo ikastetxeetan isilarazi egin ohi da, haurrei zalantzak sortuko ote zaizkien beldur, nahastuko ote diren, gaizki

pasako duten edo min hartuko duten beldur.... Sarritan beldur horiek ezjakintasunetik datoz. Gaiari buruz zabaltzen diren albiste asko negatiboak dira, esperientzia txarrak, hortik eratorritako arazoak... Baina ez dira iristen albiste onak; gu pozik bizi garela, eta ez dela esperientzia txar bat, baizik eta bizitzako beste ikasketa prozesu bat.

Erreferenteak ere falta dira? Zuk izan dituzu?

Izan, izan ditut baina neronek bilaketa eginda. Ez zaizkit iritsi ez ikastetxetik, ez etxetik, ez inondik... Txikitan badakizu zerbait gertatzen zaizula, baina ez diozu izenik jartzen, ez dakizulako duenik ere. Orduan etxean hasi ohi da informazio bilaketa; lehen bost albisteak ezkorrak izaten dira; norbait erasotu dutela, jazarri dutela.... Orduan gaizki pasako duzula irudikatzen duzu, urduritasuna sortzen da. Baina bilaketa horretan sakonduz gero, topatzen dira erreferenteak. Nik telebistako "La Voz Kids" saioko Hugo Marlo ikusi nuen. Kantari transexuala zen. Bere bizitzaren jarraipena egiten hasi nintzen eta zoriontsu izatea posible dela ohartu nintzen. Hots, bere ametsak jarraitzen ari dela, familia eta bikotea dituela... Beraz, "inork ez nau maiteko" pentsatzetik, "bizitza arrunta izan dezaket" pentsatzera pasa zaitezke.

Zure prozesu hasierako erreferente kopuru hori aldatu da?

Bai, nire ustez bai. Eta esango nuke heziketari esker ari dela aldatzen. Naizen, Hiruki Larrosa, Loratuz lotu, bezalako elkarteak izen asko hartzen ari dira, txikitxotatik ari dira gaia jorratzea bideratzen eta horrek etxean gauzak hitz egiteko aukera zabaltzen du. Egia da, ume txiki batek eskolan gaia jorratuz gero, etxean, afal garaian gurasoekin gaiaren inguruan solas egin dezakeela. Horrek egiten du hurrengo belaunaldietan normalizatzea; gai hauek egunerokoak dira eta ez dute zertan arazo izan.

Batzuek jasotako babesa aipatu duzu. Zuk ere gertukoenen babesa sentitu duzu?

Hasieran ez, baina uste dut neu itxi nintzelako izan zela; barruko beldurrak norbera baztertzea eragiten du. Transexualitatea hor dagoela ikusita eta identifikatuta, ikastetxean pauso txikiak ematea da gakoa. 30 laguneko gela handian ez, baina frantseseko gelan, 7 lagun izaki, hortxe iradoki nuen zerbait. Lagunek ongi hartu zuten eta gero talde handian esan genuen. Hor ikusten da jendearen jarrera: batzuek urrundu egiten dira, besteak ukatzen zaituzte.... Eta hor galderak sortzen zaizkizu: "Lagunak galdu eta gaizki pasa behar badut? edota gurasoak edo anaiak galduko banitu?" Lagun batzuk galduz gero, bost axola dizu, lagun minenak hor mantentzen direlako, baina familia bakarra da. Ez da sasoirik errazena izaten.

"Askoren ustea da haurrak nahastu egingo direla, ez dutela ezer ulertuko, baina erabat okerra da hori: ideia oso zabalak izaten dituzte, naturaltasun osoz ulertzen dute."

Eta etxean?

Anaia zaharrenak eta koinatak lagundu zidaten gurasoekin hitz egiten. Hasieran beldur horrek berak ez zidan gurasoen babes falta ezjakintasunetik zetorrela ikusten uzten. Eurekin hitz egin eta berehala hasi ginen kanpoko babesa bilatzen; elkarteetara joaten, Naizeneko hitzaldietara, heldu-leku bila. Hortik aurrera, bidelagun gisa izan ditut beti, nahiz eta momentu txarrak izan. Bizitzako beste ikasketa-prozesu bat da eta asko laguntzen du norberarekiko segurtasuna izateak. Lagun bat galtzen baduzu trans-a izateagatik, arazoa bestearena da, eta ez norberarena. Hori barneratzean aurrera egin zenezake edonola izanda ere, baina horra iritsi arte, laguntza behar izaten da.

Zein adinetan jarri beharko litzateke arreta, ume bat adierazten ari den hori zerbait badela jabetzeko? Jolasetik harago doala nola ulertu beharko genuke?

LEINN-en proiektu bat izan genuen, "Izan zure ahotsa" izenekoa. Hor ikerketa lan bat egin genuen eta ikusi genuen LH3n jada, gai hauek jorratzeko unea dela. Gero, fisikoki zure gorputza aldaketak egiten hasten denean, aukera gehiago daudela jakiteko, alegia. Hilekoa jaisten bazaizu, edo bularrak haziz gero, zure bidea hori dela pentsatzera iritsi zaitezke, baina ezjakintasun horrek sekulako arazoak ekar diezazkizuke, nire kasuan bezala. Askoren ustea da haurrak nahastu egingo direla, ez dutela ezer ulertuko, baina erabat okerra da hori: ideia oso zabalak izaten dituzte, naturaltasun osoz ulertzen dute. Umeekin hitz egiteko modua aldatzen ari da. Haurtzaro Transak ere badaude, nahiz eta ez zaien hitzik jartzen. Ume batek ez badu argi zer geratzen zaion, eta ez badio hitzik jartzen, asko sufritzera iritsi liteke.

Oraindik ere umeen gustu edo afizioak estereotipo jakin batzuen menpe daude?

Bai, oraindik ere zenbaitetan tamalez futbolean jolasten duen neska, marimutiltzat hartzen da edo mutila izan nahi duela pentsatzen da. Baina haur horrekin hitz egin eta bere gustuak, nahiak eta beharrak argitu behar dira. Gerta liteke transexualitatearen kontzeptua azaldu ezean, berari zerbait gertatzen zaiola jakin, baina hori tapatzen aritzea. Horrek min egin dezake. Haurrak gai dira gai hauen inguruan hitz egiteko. Sentimenduak adierazteko bidea eman egin behar zaie. Nor diren argi izan behar dute. Heziketa, tresnarik egokiena da; hezkuntza etxetik hasten da, gurasoengandik, aiton-amonengandik. Ikastetxea baina, haur guztiei informazio hori helarazteko tresna izan daiteke. Guraso askoren kasuan entzuten da ezjakintasuna dela nagusi, baina ume horrek jakintza eta informazio hori etxera eramanez gero, bide berri hori askoz azkarrago ireki liteke.

Gurasoren batek bere haurra prozesu baten atarian ikusiz gero, zer gomendio emango zenioke?

Pazientzia izan dezala bai informazioa bilatzeko, baita gauzak azaltzeko ere. Etxean, zerbait esan nahi badiozu, ez du zertan dena elkarrizketa bakarrean izan. Ez dago beti psikologoarengana joan beharrik, poliki-poliki joan liteke: Elkarte ezberdinetara joz... Behar den denbora hartu behar da, gauzak identifikatzeko baina presarik gabe. Normalean berehala hasi nahi izaten da hormonatzen eta gizarteak jarritako presio hori ere hor nabaritzen da. Niri tarteka informazioa eskatu izan didate eta joan izan naiz haur edo gazteren batekin hitz egitera. Beste esperientzien berri izatea aberasgarri gerta daiteke. Baina oro har gurasoen aldetik pazientzia, segurtasuna eta maitasuna transmititzea litzateke bidea. Hor gerta litekeena da, gizartearen aurrean nor zaren adierazi ostean, pausuak emateko presa izatea eta hanka sartzeko bidea ere egon liteke, frustrazioraino iritsiz. Nik esaterako 17 urterekin erabaki behar nuen heldua izatean haur biologikoak izango nituen edo ez. Adin horrekin egia da ez duzula etorkizunean pentsatzen. Fisikoa aldatzeko irrika izaten da, baina gauzak patxadaz aztertzea eta pentsatzea komeni da.

Blokeadoreak, hormonak, gero ebakuntzak.... Horiek dira ildo nagusiak?

Bai oro har bai. Baina bereiztu egin behar da: gauza bat da transexualitatea, fisikoki aldaketak egitea eta bestea da transgeneroa; zure identitatea aldatzea. Bada jendea fisikoki aldaketa egitea behar edo nahi ez duenik. Transexualitatea aurrera eramanez gero, informazioa lortu eta

poliki-poliki zure etorkizuna erabakitzen joan ohi zara. Familia medikuarekin hasi eta gero erabakiak hartu behar izaten dira. Gaztetxotan, ordea, ez duzu pentsatzen zure etorkizunean eta gerora damutzeko aukera dago; gauzak azkar eta gaizki pentsatu izanaren damua. Zure buruarengan segurtasuna izanez gero, zera pentsa zenezake: “nik une hartan nahi izan nuena daukat orain. Eta horri esker naiz orain, naizena”. Gakoa da iragana atzean uztea eta orainean pentsatzea.

Aldaketa fiskikoen prozesua, oso korapilatsua da edo gero eta errezagoa?

Niri ez zait tokatu, baina lehen prozesu psikiatriko bat pasa behar zen. Orain, 16 urterekin psikologoarengana joan eta galdetegi bat pasa behar izaten da. Nik ezagutzen dut gezurrak esan edota hitzordu horretarako janzkera aldatu behar izan duen jendea. Zure identitatea pertsona baten ebaluazio-irizpide baten esku gera zitekeen eta oso bortitza zen guretzako. Hori kendu egin zuten. Orain medikuarengana joan, zure egoera azaldu eta pausuak ematen has zaitezke. Norberaren erabakia da osasun bide publikotik edo pribatutik joatea. Osakidetzatik itxaron zerrenda luze

“Heziketa, tresnarik egokiena da; hezkuntza etxetik hasten da, gurasoengandik, aiton-amonengandik.”

hori duzu aurretik; urteak pasa daitezke kontsultara joan aurretik. Pribatuan aldiz, egoera ekonomikoak baldintzatzen zaitu. Ebakuntzaren ondorena idealizatzera iritsi zaitezke. Baina errealitatea zein den ikustean, depresio joera asko izaten da. Halere, prozesuan zehar okerrena izen aldaketarena da: oso prozesu makala da. Legalki izen bat izatean eta gizarteari begira beste bat izatean, azalpen asko ematea egokitzen da. Matrikulatzeko, zerrenda ofizialetan.... Azkenean motxila bihurtzen da eta azalpenak ematea kosta egiten da.

LGTBIQ+ kolektiboari eragiten dieten neurri politikoen jarraipenik egin duzu?

Lehen gehiago jarraitzen nuen jakin-minaren egarri hori nuelako, baina gauzak ulertzeko duzun gaitasun hori tarteko haserretzeko bidea ere handitzen da. Nik argi daukat: nire eskubideak edonorenak bezalakoak izan behar dute. Ni naizen bezalakoa izateko eskubidea behar dut baina transexuala ez den beste norbaitek eskubide berbera behar du. Eskubide berdintasunaz ari gara. Ez dut begi onez ikusten kolektibokoa izate hutsak prozesu luzeak sortarazi beharra: nire amak izena aldatu behar badu Maria Teresa izatetik Maite izatera pasatzeko, udaletxean paper batekin nahikoa du. Nik izena aldatzeko epaiketa Bergaran, Madrilera, udaletxera eta hamaika komeria... Berez ez litzateke behar horrenbesteko bueltarik. Izena aldatzeko amak adina eskubide beharko nuke. Etiketa guzti horiek kendu behar lituzkete.

Ba al dago azpimarratu nahiko zenukeen besterik?

Herri txikietan maitasun eta gertutasun hori ez litzateke galdu behar. Beste bat gehiago bezala hartu behar da. Hiri batean ez duzu goxotasun hori, baina gurea bezalako herri txiki batean, informazioa zabaldu liteke, hitzaldiak prestatu litezke beharra izanez gero, etxean, eskolan, herri-mailan... Denei informazioa gerturatzeko erraztasunak izan ditzakegu. Gutxi izateak bere abantailak ditu. Nik herrian ez dut arazorik izan, beti sentitu naiz onartua eta estimatzen da goxotasun hori. Hizpidea emanez gero, lasai hitz egin genezake. Antzematen da nor hurbiltzen zaizun goxotasunez, eta nor min ematera. Bide batez esan nahiko nuke nik egunero eskertzen diedala etxekoei ondoan izatea. Nik etxean beti eskertu dut eta etxetik kanpo lagunei ere eskertzen diet hor egotea.

ENERITZ GORROTXATEGI ZUAITZ
ERAITZ GORROTXATEGI ZUAITZ

MEDIKUAREN TXOKOA

SASOIAN JARTZEKO MODU ERRAZA

Ohikoa da, urte berriarekin batera, geure buruari helburu osasuntsuak jartzea. Kirola egitea da horietako xede bat. Askok eta askok, gimnasioan ematen dute izena, baina bi hilabete pasatzen direnerako, sasoian jartzeko asmo hori bertan behera uzten dute. Ikerketa baten arabera Estatuan %58k kirola egitea du urte berriko jomuga, baina horietatik %80k ez du xedea betetzen.

Badaude, ostera, itxaropena pizten duten datu batzuk: orain gutxi Euskadin egindako ikerketa batean agertu denez, aldizka jarduera fisikoren bat egiten duten herritarren kopurua handituz doa urtetik urtera. Ia euskal herritarren %60k egiten du kirola astean behin. Era berean, egunero kirola egiten dutenen kopuruak ere gora egin du, eta, dagoeneko, 10 herritarretik ia 3 dira.

Beraz, ohitura osasuntsuak hartzea ez da hain zaila. Eta kirola egiten dutenen kopuruak gora egin dezan, hementxe, nire proposamena: 10 ariketa erraz, egunero egiteko modukoak. 10-15 minututan egin daitezke egunero eta aulki bat besterik ez da behar hauek egiteko. Epe laburrean gure gorputzean aldaketa positibo bat nabariko dugu ariketa hauei esker.

Errutina bat barneratzeko 21 egun behar dira, eta proposatutako ariketak eguneko edozein momentutan egin ditzakegu. 21 egun horietan, zintzo, deskuidatu gabe, ariketak egiten baditugu, helburua bete dugu, eta gure sasoian ere aldaketa nabarmena izango da.

Beraz, aitzakiarik gabe, gehitu ditzagun gure egunerokoan 10 ariketa hauek!

OHIANA AGUADO PERALTO

1 Aulki batean eserita, burua atzeruntz eramango dugu, goraka begiratuz, ondoren poliki-poliki, burua beheruntz mugitzen joango gara.

2 Aulki batean eserita, burua ezkerreruntz mugitu, belarria sorbaldaruntz eramanez, ondoren berdina eskubiruntz.

3 Aulki batean eserita, burua zuzen mantenduz, ezkerreruntz eta eskubiruntz begiratuko dugu.

4 Aulki batean eserita, buruarekin borobilak egingo ditugu, lehenengo ezkerreruntz eta ondoren eskubiruntz aldatuko dugu.

5 Aulki batean eserita, besoekin borobil handiak egingo ditugu, aurreruntz eta atzeruntz.

6 Aulki batean eserita, beso bat aurreruntz luzatu eta bestea atzeruntz. Besoak aldi berean mugitu aurkako noranzkoan.

7 Aulki batean eserita, beso bat aurreruntz eta atzeruntz balantzeatu, eta ondoren beste besoarekin.

8 Aulki batean eserita, bi besoak aurreruntz luzatu sorbalden parean, bi besoak ezkerreruntz mugitu eta ondoren eskubiruntz.

9 Aulki batean eserita, bi besoak zabaleran luzatu, eta goruntz mugitzen joan zuzen goraka geratu arte bi besoak.

10 Aulki batean eserita, beso bat goruntz luzatu eta ondoren pixkanaka makurtzen joan eskuarekin aurkako orkatilla ikutu arte. Berdina errepikatu beste besoarekin.

eskola

KAIXO! IKASTURTE HONETAN, HAMABI IKASLEK OSATZEN DUGU GABIRIAKO ESKOLAKO HAUR-HEZKUNTZAKO TALDEA: XUHAR, AIARA, ARAITZ, JARE, ELENE, EIRU, ESTANIS, MATTIN, EIHAR,ENARA, YAGO ETA LARRAIN. LEHEN HIRUHILEKOAN "FRUTAK" GAIA AUKERATU GENUEN PROIEKTUA EGITEKO. FAMILIEI GUTUNA IDATZI ETA GURE LEHEN EZAGUPENEN HORMAIRUDIA EGIN GENUEN.



Familientzako gutuna eta hormairudia



EGURALDI ONA APROBETXATUZ, GABIRIATIK ZENBAIT PASEO EGIN DITUGU, INGURUKO ZENBAIT FRUTA, FRUTA ARBOLAK ETA BARAZKI BATZUK EZAGUTU AHAL IZATEKO. ANE MIRENEN ETXEKO LORATEGI ETA BARATZA, FRUITUAK, FRUTA ARBOLAK ERE IKUSI GENITUEN. GOIZA EDERKIPASA ETA GAUZA ASKO IKASI GENITUEN.

Ane Mirenen lorategi eta baratzeko fruituak eta barazkiak aztertzen.

Ane Mirenen etxeko baratzean, kalabazak ikusten

FRUTAREN GAIA LANTZEKO LAN DESBERDINAK EGIN DITUGU: EGUN BATEAN, HAMAIKETAKORAKO ZUKUA PRESTATU GENUEN. FRUTA ETA TENPEREKIN MURALAK ERE EGIN DITUGU ETA BERPIZKUNDE GARAIKO GIUSEPPE ARCIMBOLDO MARGOLARIAREN LANAK OINARRITZAT HARTUZ, PROIEKTUKO KARPETAN GURE ERRETRATUAK ERE EGIN DITUGU.
EZ GENUEN USTE BAINA ASKORAKO EMAN DIGU GAIAK. HEMEN DITUZUE ARGAZKI BATZUK:

PROEIKTUAN HEMENGO FRUTAK IKUSTEKO AUKERA IZAN BADUGU ERE, GURETZAT ARRAROAGOAK ETA JATORRIZ HEMENGOAK EZ DIREN BESTE FRUTA BATZUK ERE DASTATU DITUGU. ADIBIDEZ, DRAGOIAREN FRUTA, KAKIA ETA GRANADA. ZAPORE OSO DESBERDINAK DITUZTE.
DIBERTIGARRIA IZAN DA, HORRENBESTEKO FRUTA PROBATZEKO AUKERA IZATEA.

BUKATZEKO GURE AZKEN LANA "URTAROEN ZUHAITZA" IZAN DA. URTARO DESBERDINETAN DAUDEN SASOIKO FRUTA BATZUK ETA BERAIEN EZAUGARRI BATZUK IKASI DITUGU. PROEIKTUAK FRUTA DESBERDINAK EZAGUTZEKO AUKERA EMAN DIGU BAITA SASOI BAKOITZEAN DAUDEN FRUITUAK ETA BERAIEN EZAUGARRIAK EZAGUTZEKO ERE.



"Gure urtaroen zuhaitza"

ETA HAUXE IZAN DA LEHEN HIRUHILABETEKO LANA. GUSTATU AL ZAIZUE? LAN HORI BUKATU ETA ORAIN "ILARGIA ETA IZARRAK" PROIEKTUAN MURGILDURIK GAUDE. EA ZENBAT IKASTENDUGUN!!

LH1-2-3

Kaixo:
Balentzategi eskolako LH1ko ikasleak gara.
Aurten zortzi gara gelan. 1.hiruhilekoan landu dugun proiektuari buruz hitz egingo dizuegu.
Gure gorputzeko atal desberdinak, Digestio -Aparatua, elikadura eta ohitura osasungarriak ikusi eta ikasi ditugu. Eta guzti honekin liburuxka bat osatu dugu.

Gaztelanian gure gorputzeko hezur eta giharren izenak eta kokapena ikasteaz gain, zenbait bitxikeria ere ikusi ditugu horiekin lotuta. Badakizue jaiotzean 300 hezur ditugula eta gero 206 izaten ditugula? Hezurrik handiena femurra dela eta izterrean dugula? Eta txikiena? Ba estribua da eta belarrian aurkituko dugu. Zenbat bitxikeria !

Digestio - Aparatuak nola funtzionatzen duen ere ikusi dugu, bai eta bertan parte hartzen duten organoen izenak eta ezaugarriak ikasi ere.

Gure osasunean elikadura zein garrantzitsu den ere landu dugu; barazkiak eta fruta egunero jan, eta goxokiak ostiral arratsalderako utzi behar ditugula!

Badakizu osasuntsu egoteko bost puntu izan behar ditugula kontutan? 100 urte harrapatu nahi badituzu, apuntatu zer egin behar duzun:

1-Elikadura zaindu: baserriko produktuak sarri jan, arraina eta haragia astean 3 – 4 aldiz, eta azukrea saihestu. Ah! Ez ahaztu egunero 2 litro ur edan behar dituzula.
2-Kirola egin: hezurrak eta giharrak indartsu egoteko ezinbestekoa da kirol pixka bat egitea.
3-Higienea: jan aurretik eta ondoren hortzak eta eskuak garbitzea, jan aurretik janaria uretatik pasatzea ... beharrezkoak dira osasun on bat izateko.
4-Profesionaletara joan: sendagile eta bestelako profesionaletara joatea beharrezkoa da ondo egoteko. Autoari bezala gure makinari ere urteko errebisioa egin behar diogu.
5-Pozik bizi: bizitza alaitasunez eta umorez hartzea beharrezkoa da, gure buruko osasuna zaintzeko. Gogoratu hankak bezain garrantzitsua dela gure burua.

Jun Kruz Igerabide idazlea etorri behar zenez, Nire gorputzean bizi naiz liburua irakurri genuen. Liburua ikaragarri gustatu zitzaigun. Gure liburuxkan liburu horretako bi poema – joko jarri genituen. Hemen uzten dizuegu bi poematxoak bai eta bi asmakizun ere. Ea asmatzen dituzuen!

POEMAK:

Hatz erakuslea, sudurrerako.
Hatz txikia, belarrirako.
Hatz luzea, zilborrerako.
Hatz nagia, besazpirako.
Eta hatz potoloa, ahorako.
Juan Kruz Igerabide

Hezurrak barruan,
haragiak kanpoan,
bost txori habian,
eta ezin irten hegan.
Juan Kruz Igerabide

ASMAKIZUNAK:

Kobazulo hori, beti dago hezea
hesi zuriz inguratuta,
han bizi da herensugea.
Zer da?

Buruan sortu nintzen
bertan luzatu eta berdindu.
Bidean galtzen ez banaiz
zahartzaroan zurituko naiz.

LH4-5-6

BERTSOLARITZA ESKOLAN

- Ane Beloki -

Aurten lehenengo aldiz gure eskolan “Gu ere bertsotan” proiektua aurrera eramaten ari gara. “Gu ere bertsotan”, ikastetxeetan, ikas orduetan bertsolaritza lantzeko proiektua da. Bertsolaritza ikuspegi globalizatzaile batetik planteatuta, 4 arlo lantzen dira: Hizkuntza, Kultura, Musika (ahotsa) eta Trebetasun Pertsonalak eta Sozialak.

Euskal Herri mailan garatzen den proiektua da eta gure kasuan LH2ko 4., 5. eta 6.mailako ikasleak ari gara lantzen. Bi astez behin, asterarteetan, Ane Beloki bertsolari legazpiarra etortzen zaigu gelara klaseak ematera. Metodologia dinamikoa erabiltzen du, ohiko klaseen errutina puskatzen du eta hizkuntza modu ludikoan eta erakargarrian lantzen dugu. Oso gustura gaude berarekin eta bere klaseetan oso ondo pasatzen dugu. Hau dela eta, eta bere inguruan zerbait gehiago jakiteko, berari elkarrizketa bat egitea bururatu zaigu.
Hona hemen Aneri egindako galderak eta jasotako erantzunak:

Zure aurkezpentxo bat egiteko. Zure izen abizenak. Zenbat urte dituzu? Non jaio zinen eta, gaur egun, non bizi zara?
Ane Beloki Lopez naiz. 25 urte ditut baina martxoaren 1ean 26 beteko ditut. Legazpin jaio nintzen eta Legazpin bizi naiz.

Zein ikasketa dituzu? Edo egiten ari zara?
Euskal Ikasketak burutu nituen Gasteizen (garai bateko Euskal Filologia esan dezakegu) eta ondoren Master bat egin nuen irakaskuntzan lan egin ahal izateko; beraz, ikasketak bukatuta ditudala esango dugu.

Noiz eta zergatik hasi zinen bertsotan?
10-11 urte nituenean hasi nintzen bertsotan. Betidanik gustatu izan zaidan zerbait izan da. Nire aitona, Patxi Beloki, bertsotan ibiltzen zen. Txapelketa batzuetan ere parte hartu zuen. Aitak, berriz, bertsolaria ez den arren, afizio handia du bertsotarako eta etxean bizi izan dudan giro honek bertso mundura eraman nau ni ere.

Banaka edo taldetan egiten duzu bertsolaritza?
Bertsolari bat banaka bertsotan ez da ia inoiz aritzen. Gutxienez bi bertsoalari izan ohi gara. Niri gainera, talde handian bertsotan aritzea gustatzen zait.

Txapelketetan parte hartzen duzu? Zein izan da azkena?
Txapelketetan parte hartzen dut, bai. 13-14 urterekin nintzen Eskolarteko Txapelketetan parte hartzen, taldeka. 14tik 18ra bakarka aritzen ginen eskolartekoan. Ondoren, 18 urterekin, Sariketa izeneko txapelketan parte hartzen hasi nintzen; oraingo honetan ere, bakarka. Aurtengo honetan, berriz, 2024ko Gipuzkoako Txapelketa nagusian parte hartu dut.

Zer nahiago duzu txapelketetan parte hartzea edo librean aritzea?
Tentsio gutxiagorekin eta askoz lasaiago aritzen naiz bertso librean. Hala ere, txapelketak badu zerbait “engantxatze”n nauena.

Zer ikasi behar da bertsolaritzako andereñoa izateko?
Ez da ikasketa berezirik egin behar. Bertsolaritzako irakasle izateko, bertsolaritza zer den jakin behar duzu, mundu hau ezagutu.

Non eta noiz hasi zinen bertso eskolak ematen?
Lehenengo Bertso Eskola, Beasainen eman nuen 2016.urtean. Ondoren Legazpin hasi nintzen eta azken 2 ikasturteetan, berriz, Tolosaldeako hainbat bertso-eskolatan aritu naiz. Aurten, ikastetxeetan ibiltzeaz kanpo, astean behin Legazpiko bertso-eskolan aritzen naiz.

Gaur egun, zenbat eskolatan ematen duzu bertsolaritza? Zeinetan?
Guztira Goierriko 13 ikastetxeetan aritzen naiz: Murumendi (Beasain), Domingo Agirre (Legazpi), Balentzategi (Gabiria), Joxe Migel Barandiaran (Ataun), Aztegi Ikastola (Legazpi), La Salle (Zumarraga), La Salle (Beasain), Alkartasuna Lizeoa (Beasain), Gain-Zuri (Zumarraga-Urretxu), Ugaro (Legorreta), Urkipe (Itsasondo),...

Egunean zenbat eskoletara joaten zara bertsolaritza ematera?
Egunaren arabera 2 edo 3 eskoletara. Ostiraletan, berriz, batera.

Zure etorkizuna bertso-eskolak ematen ikusten duzu?
Bertso-eskoletan klaseak ematen ez dut ikusten nire burua, ordutegiagatik batez ere, baina ikastetxeetan bertsolaritza ematen jarraitzeko gogoz nago une honetan.

Ane Beloki bertsolaria, Gure bertsolaritza klaseetako irakaslea

MAKILAKIXKI

Gabiriarekin zerikusia duten galderak dira honakook.
Hiru aukeretatik bat bakarra da zuzena.
Zenbat asmatu egin apustu, ausartu eta ekin.

1- Zenbat biztanle ditu Gabiriak gaur egun?

a) 495 inguru
b) 508 inguru
c) 525 inguru

2- Nor da zaharrena?

a) Lurdes Murua
b) Miel Mari Iztueta
c) Mari Nieves Zumalakarregi

3- Ze izenburu du, Jon Sagarnak, Julen Sagarnak eta Iñaki Rezustak "Txasiok" jotzen duten taldeak, 2023an argitaratu zuen diskak:

a) Bihotzetik
b) Galaxia
c) Hubble

4- Iaz, Gabirian idazle bati omenaldia egin zitzaion. Nola du izena?

a) Joseba Sarrionandia
b) Mariasun Landa
c) Anjel Lertxundi

5- Aurten zenbagarren Osinalde saria jokatuko da?

a) 53.
b) 50.
c) 45.

6- Aurtengo urtarrilean, 100 urte beteta zituztenak, zenbat ziren Gabirian?

a) Bat
b) Bi
c) Hiru

7- Zeinek irabazi zuen tiragoma txapelketa emakumezkoetan iazko festetan?

a) Maialen Igartzabalek
b) Aloña Muruak
c) Idoia Maizek

8- Zein da Gabiriako patroia?

a) Andre Maria
b) San Lorentzo
c) San Roke

9- Zein auzo ez da Gabiriakoa?

a) Orbeldegi
b) Anduaga
c) Alegi

10- Zer izan zen "Kaxkante" gabiriarra?

a) Alkate
b) Mikelete
c) Aguazil

11- Zer izen du Gabiriako eskolako zuzendariak?

a) Ane Miren Aizpuru
b) Iñaki Insausti
c) Naiara Azpeitia

12- Zer izen du Gabiriako pilota lekuak?

a) Alkainburu
b) Alkainazpi
c) Urbeltz

13- Zenbat kide ditu Joselu Anaiak musika taldeak?

a) Lau
b) Sei
c) Bost

14- Zein txirrindulari profesional erdi gabiritar bizi da Ezkion?

a) Jon Izagirre
b) Xabier Isasa
c) Alex Aranburu

15- Ze altuera du Haizeleku mendiak?

a) 800 m
b) 809 m
c) 820 m

ERANTZUNAK

1- b	4- b	7 - a	10- c	13- c
2- a	5- a	8 - c	11- b	14- c
3- c	6 - c	9 - b	12- a	15 - b

BLANCA LÓPEZ GARCÍA
JOKIN MURUA LÓPEZ

GABIRIAKO AGUREAK 1915.URTE INGURUAN.
Goiko ilaran ezkerretik eskuinera: Pablo Lasa Agirre(Elizalde) ,? ,? eta ?
Erdiko ilaran ezkerretik eskuinera: Ageda Oñatibia Gabilondo (Elizalde,
Pablo Lasaren emaztea, izatez Etxeberribizkai baserrikoa)) ,? ,?, Andres Telleria Etxaleku (Ostatu) eta ?.
Azpiko ilaran ezkerretik eskuinera: ?, ?, Joxepa Gurrutxaga Aizpeurrutia (Ostatu, Andres Tellerian emaztea, izatez Izagirreaundi baserrikoa) ,? ,? eta ?

ANDER YURRITA OÑATIBIA